Sagastiberri

URRUZUNO literatur lehiaketa

PROSA

ARKAITZ ESTIBALLES

ANA MALAGON

ENARA ARRATIBEL

MAIDER SUDUPE

HARKAITZ ZUBIRI

OIHANA LARRAÑAGA

JONE URKIZU

LEIRE LARRABIDE

KEPA BETZUEN

IKER YURREBASO



irakaskuntza ertainetako
URRUZUNO
literatur lehiaketa 1995

LAN SARITUEN BILDUMA

katalogoa
Eibarko Hezkuntza Espartrua
943.20.27.49
20600 EIBAR

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 1995

Argitaraldia: 1.a, 1995eko uztaila
Ale kopurua: 2.600

© Euskal Autonomi Elkarteko Administrazioa
Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila

Azala: Jesus Iturriza

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Wellingtongo dukea, 2 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Fotokonposizioa: E.P.S., S.L.
Bto. Tomás de Zumárraga, 66 - 0100 Vitoria-Gasteiz

Inprimaketa: Grafo, S.A.
Avda. de Cervantes, 51 - 48970 Basauri

I.S.B.N.: 84-457-0610-1

Lege gordailua: BI-1443-95

AURKIBIDEA

Hitzaurrea 7
Orkidea beltzaren usaingozoa. *Juan Kruz Igerabide*ren aitzin solasa 11

Prosa: A maila

Azken trenaren zain estazioan ..... *Arkaitz Estiballes Ormaetxea*..... 19
Au revoir, maitea ..... *Arkaitz Estiballes Ormaetxea*..... 29
Maitasunaren beste definizioa ..... *Ana Malagón Zaldua* 37
Begi diztiratsuak ..... *Enara Arratibel Galartza*..... 49
Bekatuaren isurkia ..... *Arkaitz Estiballes Ormaetxea*..... 57

Azken agurra ..... *Maider Sudupe Rodriguez* 65
Begira nazazu ..... *Harkaitz Zubiri Esnaola*..... 73

Prosa: B maila

Zugatik ..... *Oihana Larrañaga Zabaleta* 87
Ihesi ..... *Jone Urkizu Mendiola* 95
Opari misteriotsua ..... *Leire Larrabide Elexpuru* 103
Seiak eta hamar ..... *Kepa Betzuen Arana*..... 113
Ai! Bixente, Bixente ..... *Iker Yurrebaso Pikaza* 121

Poesia: A maila

Orkidea beltza	*Ekhiñe Egiguren Azkune*	131
Amodioaren frentean hildako azken soldaduari	*Iñigo Iruretagoiena Agirrezabalaga*.....	145
Abazuzien pien	*Urtzi Urrutikoetxea Vacas*	157
Herioaz maitemintzean	*Leire Bilbao Barruetabeña*	165
20 eta 12	*Mikel Peruarena Ansa*	173

Poesia: B maila

Zure xerka	*Mikel Ayllón Corral*	187
Gogoratzen haiz	*Nagore Amondarain Ipiña*	195
Pentsamenduak	*Idurre Amozarrain Mendizabal* ..	201
Amodioaren desterruan	*Leire Beloki Lizarralde*	211
Lehenaldia ahazten, oraina bizitzen	*Mónica Estévez Fernández*	223

Urruzunotarrak 229

HITZAURREA

Urruzuno literatur lehiaketak hamar urte egin ditu. Haur izana ume gero, eta ume izana neska-mutikoskor honez gero. Ez ditu oraindik ikusmiran ere jomuga dituen gaztegordinen larreak; ez da gai, igoal, igali umotuz karga-karga eginik, abaildu beharraren patuari ihes egin nahi lioketen hitzondo, berbarbola eta jenero honetako zuhaitz sailak irudian ere ikusi-abartzeko.

Saiatu eta itxura-plantak egin faltan ez da behintzat geratuko, eta hona hemen, hamar urteak betetzean, bilduma izen eta taiu berria hartuz, aurrerantzean Urruzuno lehiaketaren frutuak jasoko dituen sail-koskor bataiatu berria: SAGASTIBERRI.

Epaimahaian honako hauek izan dira:

Juan Kruz Igerabide
Joxemari Iturralde
Anjel Lertxundi
Lurdes Otaegi
Joxe Mari Satrustegi

Aurten ere ez du harrera eskasa izan Urruzuno lehiaketak. Irakasmaila ertainetan diharduten 529 gaztek bidali

dute bere lana: A mailan 181 prosan eta 47 poesian; B mailan 248 hitz lauz eta 53 olerkian.

Lehiaketak dituen 20 sariak bosnaka banatzen dira, parte-hartze kopuruak azaltzerakoan aipatu diren bi arlo eta mailetan. Prosa arloko zaharrenen mailan, Galdakaoko Arkaitz Estiballes Ormaetxeak bat ez, hiru sari irabazi ditu. Aurkibidean arlo horren azkenean aparte ageri diren biek aipamena jaso dute. Aurreko urteetan arlo bakoitzekoak izenburuaren araberako alfabeto ordenan azaltzen ziren liburuan. Aurten, epaimahaiaren erabakiz, bere lehentasun ordenan agertzen dira.

Hona irabazle bakoitzari dagokion saria:

— Irailean 10 egun inguruko bidaia Europa aldera.
— Bidaia horretako norbere gastuetarako laguntza: 35.000 pezetako bidai poltsa.
— Oroigarria. Iraileko sari banaketan ematen zaie.
— Lanak SAGASTIBERRI sailean argitaratzea. Liburua eskola denetara eta parte hartzaile guztien etxera bidaltzen da.

Egindako ahaleginen ezagutza koxkor bat egin nahirik, bi ikastetxeri egiten zaie, urtero, aipamena: aurten Igorreko Arratia eta Laudioko Aiala Kantzelaria institutuei. Aipamen horrek irabazleekin batera bidaian joateko eskubidea ematen dio ikastetxe horietako irakasle banari.

Liburuaren azkenean damaigun Urruzunotarren zerrendak 1986tik 1995era bitartean irabazle izan diren guztiak jasotzen ditu, abizenen araberako alfabeto ordenan eta, lanen izenburuez gain, zein urtetako liburuan eta zein orrialdetan argitaratu ziren azalduz, lanak errazago bilatu eta erosoago erabiltzeko.

Zorionik beroenak sari eta aipamen irabazleoi. Eskerrik zintzoenak parte hartzaile guztioi, epaimahaikooi eta, bereziki, ondoko aitzin solasa paratu duen Juan Kruz Igerabideri.

Eta zuri, irakurle, haur-ume koskortu, gazte lirainsendo, sasoi beteko edo heldu-uste, haien bekaizten hasia, zarena zarela ere, on egin dagizula.

Euskara Zerbitzua

ORKIDEA BELTZAREN USAINGOZOA

Juan Kruz Igerabideren
aitzin solasa

Egia esango dut: ez ditut lehiaketak batere gogoko; lehia gehiegi dago gure gizarte honetan. Elkarri bultzaka bizi gara nor lehenago iritsiko. Eta zertarako? Bada, iritsi eta «non nago?» geure buruari galdetzeko; inoiz ez garela iristen jabetzeko. Gainera, lehiaketek altxor asko uzten dituzte zokoan, zaborra balira bezala...

Hori guztia egia da, baina egia da baita ere bizitza bera etengabeko lehia besterik ez dela. Bizi nahi duenak lehiatu egin behar. Ezin bizitza osoa zaputzetan jarririk igaro, harako idazle haren antzera:

«Bazen behin idazle bat, bere burua munduko idazlerik onena jotzen zuena. Gizarteak lehentasun hori aitortzen ez zionez, zeharo zapuztu zen eta lehiaketa guztien kontra mintzatzen hasi eta idazle on samarrak iruditzen zitzaizkion guztien kontra jarri. Gero, erabaki zuen munduak ez zuela merezi bere liburuen berri izaterik, eta ez zituela argitaratuko. Horrela, idazle hura inoiz libururik argitaratu gabeko munduko idazlerik onena izango zen. Eta oso pozik bizi izan zen uste horrekin. Denborak aurrera egin ahala, ordea, bere sormenak (eta mendeku egarriak) zerbait gehiago eskatzen zion; beraz, erabaki zuen munduak ez zuela merezi bere obra osaturik aurkitzerik (idazlea hil

ondoren inori liburu horiek argitaratzea bururatuz gero ere) eta liburuak hasi eta bere horretan uzten zituen, besterik gabe; horrela, liburuak hasi besterik egiten ez zituen munduko idazlerik onena izango zen. Alabaina, gure idazle handia zahartu ahala, zerbait finagoaren behar izpirituala sentitzen hasi zen bere baitan: mendeku egarria zeken-sena bilakatu zitzaion eta pentsatu zuen mundua ez zela duin haren hitzik entzuteko ere, jende arruntak aski zuela idazle handiaren arnasa entzutearekin; horrela, munduko idazle hats-emalerik onena izango zen. Baina hori ere gehitxo eskaintzea iruditzen munduko idazlerik onenari, eta erabat zapuztu zen: zein zen mundua haren arnas gorena entzuteko? Eta idazle handi hark bere arnasa ere ukatu egin zion munduari, eta horrela hil zen, itota».

Zahartuz doan eran idazleak horrelako zerbait sentitu ohi du, batzuek modu batera, beste batzuek bestera. Hala ere, badago zerbait idazlearen baitan zapuzte horretatik esnarazi eta, bere barnea irekirik, eskuzabal idatzarazten diona.

Zerbait hori indar handia da, arnasa libre hartzera bultzatzen du; zerbait hori sumatu dut Urruzuno lehiaketa honetako hainbat lan irakurtzen ari nintzela; zerbait hori bizitzeko indarra da, gaztetasunaren indarra, idazleari mundu osoa jango lukeela sentiarazten diona.

Epaimahai batean zaudelarik, irakurri eta irakurri aspertu samarturik, eta Orkidea beltza bezalako poema sorta topatzen duzunean, begi lausotu samarrak berpiztu egiten zaizkizu, aulkian hobeto eserita jartzen zara eta begi horiek ez dituzu paperetik jasotzen, amaitu arte; eta amaitutakoan ere behera begira gelditzen zara pittin batean, halako gozamenaren azken errainuak ondo dastatu nahian

bezala. «Honengatik bakarrik, merezi zian lehiaketak», entzun duzu alboan, eta inguruko buruek baietsi egin dute esana. «Amodioaren frentean... hori ere ez duk makala: ezohiko heldutasuna erakusten dik», esan du norbaitek, eta zuk pentsatu duzu munduan poetak sortzen diren bitartean asmatuko dugula bizitzari zentzuren bat aurkitzen. «Galdakaoko mutil horrek ere a zer nolako trebezia erakutsi duen; nork esan bereak zirenik hiru lan horiek, hain desberdinak euren artean», entzun duzu hurrena, eta beste garai batzuk etorri zaizkizu gogora; eta gaztetasunaren definizio bat oroitu duzu: «Gazteak, odolbete zainetan eta aire freskoa ezpainetan»

«Inbidia galanta hik gazte horiei», esan dizu belarrira txerren ttiki batek, eta hala dela aitortu behar zuk. Ogitartekoa erdi janik daukazunean beste norbait ogitarteko egin berria hozkatzera doanean ematen dizun inbidia bezalakoa da hori. Ikuskizun horrekin zure ogitartekoa are eta goxoagoa irudituko zaizu; edo, ipuineko idazlea bezalakoa baldin bazara, jaten segitzeko gogoak kenduko dizkizu agian.

Txerren ttikiak maiseatzen jarraitzeko gogoa du, nonbait, eta honela esan dizu: «Zertarako idatzi, moteil! Desanima itzak gazte txoro horiek, garaiz zaudek-eta oraindik». Eta zuk Sherezade oroitu duzu, bizirik irauteko Mila eta bat gauetako ipuinak asmatzen zituen hura; eta oroitu duzu, baita ere, Ursula Wölfel-en ipuin bateko emakume idazle hura, lehen esaldia pentsatzen zuen bitartean lapitzak zorroztu eta lapitzak zorroztu aritzen zena: ez zuen lehen esaldia amaitzerik lortu, baina lapitzak zorrozten munduko txapeldun izan zen. Batzuentzat, agian, literatura hil ala biziko kontua izango da, Sherezaderentzat bezalaxe; beste batzuentzat lapitzak (edo sudurrak, edo

belarriak, edo adimena, edo ospea, edo kontu korrontea...) zorrozteko aitzakia besterik ez; gehienok hor tartean gabiltza, gure sokari norbait atzetik tiraka datorrela ikustean poz-pozik.

PROSA. A maila

BBBko 3. kurtsoa, UBI,
LHko 2. gradua eta
IEEko 2. zikloa

Azken trenaren zain estazioan

Arkaitz Estiballes Ormaetxea
Galdakaoko institutua
Galdakao

«Hiriko bazter hauzo baten bazterrean,
etxalde arraildu bat da estazioa»

J. Sarrionaindia

Estazioa zaharra da, larrosa koloreko eraikuntza ederra izan zena marroiturik dager euria eta kutsadurak bere lan zikina burutu ostean; paretan garai batean hain harro dantzatzen ziren erlojuaren orratzak ere geldirik daude, estazio hartan bizitzak gelditzea erabaki balu bezala, baina umeek hautsi dituzten ur-tutuetako itoginek markatzen dituzte segunduak denbora gelditu egin dela sinestu dutenen etsipenerako; kate lodi ugertu batek sitsak jandako ate berde bat hesten du; ateko ordutegia denboraren poderioz horiturik datza, lau txintxeta herdoilduk sostengatzen dutela; honen gainean nehork endelega ezin duen *txatelegi* irakur daiteke behiala *txarteldegia* zioen tokian, zenbait hizkik estazio alaiago batera aldegin balute legez. Eraikuntzaren ondoan bi eserleku zabal daude, hezetasunak erabat hondatuak.

Garai batean hogei minututik hogei minutura igarotzen ziren trenak izugarrizko txistukadak jaurtiz airera, ziztu

bizian zetozen, eta jende aldra jaitsiaz batera etorri baino azkarrago aldegiten zuten; baina egun, orduoro orduerdiko atzerapenez datozen trenak gelditu ere ez dira egiten sarritan eta igarotzerakoan metal soinua darien hiru eztul baino ez dituzte jaurtitzen.

Bi aulkietariko batean gizon bat dago eserita, pentsakor, eskutitz bat irakurriz, trenaren zain. Zapata marroi zikinak oinetan, *Levis* urratu batzuk soinean, iluntzeko hotzetik babesteko guante ilunak eskuetan eta gaztetan erositako bigarren eskuko panazko jaka daramatza. Ez daki trena zein ordutan etorriko den, baina ez du presarik, bidaia luzea izango baita. Jakako sakeletik *Ducados* bat atera eta *A.M.* inizialak grabaturik dituen metxeroaz biztu du. Hankak gurutzatu eta estazio aurreko orubean dauden ijitoen txabolei so igaro ditu minutuak kaladaz kalada filtroraino heldu dela ohartu arte. Orduan zigarroa jaurti eta altxatu egin da, hiru buelta eman eta berriz esertzeko. Ijitoen txabola inguruetatik ume bat begira duelakoan dago baina, deus ere axola gabe, beste zigarro bat biztu du. Erdiraino erre duenean trenaren eztul metalikoa dantzu urreratuz, dudatan egon da jaiki edo ez jaiki, baina goizegi da bere trena izateko eta hurrengo trena heldu arte itxarotea erabaki du hirugarren zigarroa biztuz.

Trena gelditu egin da eta bere begien aurrean zabaldu ditu ateak parez pare. Erdi hutsik dator eta gizon bat jaitsi da soilik. Narruzko zapata dizdiratsu garbituberriak, tergalezko frakak eta jaka iluna, zetazko zapia jakatik eskegita, kokodrilodun jertse horietako bat, eta treneko biletea baino handiagoa den etiketa duen bufanda bat daramatza soinean. Aulkian eserita dagoen gizonari begiratu ere egin gabe, pauso arinez estaziotik alde egin du eskuineko eskuaz maleta beltz bati irmoki heltzen dion bitartean. Jon Bito-

rika da bere izena eta hirian lan egiten du, banku entzutetsu batean zuzendariaren konfidantzazko gizonaren postua beteaz. Soldata ederra irabazten du, baina ezin daiteke konpara maletan gorderik atera dituen informe sekretuak saltzerakoan lortuko duenarekin. Izkutuko informe hauekin batera bi hegazkin txartel dauzka Miamirako. Dena ongi loturik du, kolpea emateko egun aproposa heltzea besterik ez zaio falta eta pozik dago une hori egun batetik bestera heltzear dagoelako. Jon Bitorika karrika zikin batetik doa oinez, hausnartzen. Nazka ematen dio bertatik ibiltzeak, baina gaur ez du taxirik hartu nahi izan. Auzo hits hartako kale bihurrietan zehar dabil gora eta behera. Haragi ustelaren hatsa arnas daiteke airean. Etorkinen auzoa da: bertan kultura eta arraza oro nahasturik bizi dira, beltzak, ijitoak, sudakak... erdiak paperik gabe daude eta legez kanpoko ekintzetatik ateratzen dute eguneroko ogia, prostituzioa, droga trafikoa, pornografia. Lapurretaren erresuma da. Gaur ez du ohi bezala taxirik hartu hirigunetik bost minutura dagoen bere etxaldera joateko, gaur Joserekin gelditu baita. Kale kantoian dagoen tabernara sartu da. *El Charro* dio errotulu handi batek, eta han aurkitu du Jose bilarrean jokatzen beste hiru mexikarrekin.

Jose mexikar jatorriko hogeita lau urteko gazte bat da, inork ez daki zein duen benetako abizena, batzuek Mateos dela diote eta beste batzuek bere aita Mexikora joan zen euskaldun bat zela eta beraz Echegaray izan daitekeela diote. Dena den, huskeria horrek bost axola dio asteroko *Speed* dosiaren bila doanari. Josek bota marroiak janzten ditu beti, etiketarik ez duten *jean*-ak, eta boltsiko ugari duten jaka ilunak darabiltza dosiak ongi ordenaturik izateko. Auzoko mexikarren buru da. Nahiz eta gaztea izan, labana ondo nola dantzatu badaki eta *Navajas* ezizena urtetan zehar ongi irabazia du. Gaur umore txarrean dago, bila-

rrean galtzen ari da eta hori ez du laket. Zortzia sartzera zihoanean Jonek lepoan jo du eta honek gehiago haserratu du oraindik. Hori egin duena mexikar bat izan balitz ez zuen duda izpirik ere izango labana atera eta bilar mahaiko tapiz berdea gorritzeko. Jonek, ordea, diru freskoa dakar eta ez da komeni bera bezalako erosle ona paretik kentzea. Denen aurrean *zimaurra* eman dio eta Jonek aldegin ostean partidarekin jarraitu du. Handik bost minutura aspertu da eta tabernatik ateratzea erabaki du bere pausoak kale amaierarantz bideratuz.

Kale amaieran Roxanne-n parean gelditu da eta egunero eman behar dizkion zortzi talegoak eskatu dizkio. Honek ditizorrotik atera ditu eta mespretxuz aurpegira jaurti. Josek eskua luzatu eta, malkoak atera arte bi masailak gorritu ostean, lurrean botata utzi du ezkerreko zapatako takoia hautsita. Roxanne ez da emakumearen benetako izena, euskal izen eta abizen peto-petoak dauzka, baina pelikula batean ikusi eta bere buruari Roxanne deitzea erabaki zuen. Lan bila etorri zen baserritik haraino, eta bere gorputza salduz ateratzen duenaren erdia etxera bidaltzen du hil bukaeran; beste erdia alkoholak eta Josek ematen dion zaldiak kentzen diote. Ez du altxorrik, gaileta hustuen metalezko kutxaz besterik, eta bertan amak baserritik bidaltzen dizkion eskutitzak gordetzen ditu mimo handiz, guztietan ongi al dagoen galdetuz eta berak etxe aberatsean neskame legez dagoela erantzuten dio. Goizak kolokaturik edo horditurik igarotzen ditu eta iluntzean, bota larrosak, galtzerki beltzak, minigona urdina eta *sweater* hori estu harekin mozorroturik ateratzen da kalea egitera. Egunero bizpahiru aldiz egiten du narrutan, batere gozatu gabe, sexuaren plazerra galdua baitu aspaldi. Gaurko egunez, ostegunero, Kepa etorri ohi zaio eta berarekin zerbait sentitu izan du, kilika berezi bat barruan, baina gaur orain-

dik ez da agertu eta horrek are tristeago jartzen du Roxanne. Euri tanta batzuk erortzen hasi dira eta balkoipean jarri da ingurutik igarotzen diren kotxeek bere galtzerkiak zipristindu ez ditzaten. Alboan peta bat egiten ari den gazteari sua eskatu eta *Chester* bat erretzeari ekin dio, Kepa noiz agertuko zain.

Kepak gaur ez du Roxanne bisitatuko ordea, ostegunero bezala, gaur Ana Marirekin zita jarrita dauka biek elkar ezagutu zuten kafetegi hartan. Kepa gaztea da, hogeita zortzi urte bete berriak ditu eta amaren etxean bizi da oraindik. Duela bi urte bukatu zuen Kazetaritza eta gaur egun *INEM*eko zerrendetako beste numero bat da, ez daki zenbatgarrena, eta ez dio askorik axola, jakin baitaki ez duela lanik aurkituko. Beti bezala berandu dabil, dutxatik atera bezain laster txandalaren frakak, kamiseta urdin bat, gerrian artilezko jertsea eta deportiboak jantzi ditu eta, amari musu bat eman ostean, igogailua itxaron gabe eskilaretatik behera jaitsi da tximistak baino azkarrago. Gaur ez du hogeita bi zenbakidun autobusa hartu Roxannengana bere apeta eta fantasiak asetzera joateko, gaur herriaren beste puntara abiatu da hamairu zenbakidun autobusean. Bidean doalarik, mila irudi igarotzen zaizkio burutik, baina irudi guztietan Ana Mari agertzen da, bihotza lapurtu dion emakumea. Goiz euritsu batean ezagutu zuen *Esparru* zeritzon kafetegi hartan. Kalean zihoala bat-batean euria hasi eta kafetegira sartu zen; mahai guztiak okupaturik zeuden eta halako batean aulki bat ikusi zuen libre. Bertan esertzea erabaki zuen, burumakur zegoen emakume haren ondoan, ez baitzuen sekula pentsatuko besotik heldu eta negarrez hasiko zitzaionik. Emakume batekin inoiz izan zuen hizketaldirik luzeena izan zen hura, baina gustora zeuden biak. Beraien artean zerbait bazegoela susmatu zuten, baina bata bestearekiko ezberdintasunak nabarme-

negiak ziren; ia iragan ezinezko oztopo bilakatzen ziren. Pentsamendu hauetan murgildurik dagoela, geltokira heldu dela konturatu ere ez da egin. Salto batean jaitsi eta aurrez aurre duen kafetegian sartu da. Ana Mari oraindik heltzear dago eta, hau heldu bitartean, freskagarri bat eskatu du.

Ana Mari, ordea, etxean dago oraindik. Ez daki zer egin, agertu edo ez, hilero hainbeste eskutitz zoragarri idatzi dizkion mutila ikustera joan edo ez. Kafetegitik bost pausotara bizi da, baina metro bakoitza kilometro bat iruditzen zaio. Izan ere, ez dio minik eman nahi Kepa bezalako gazte bati. Kepa gogoko du, nola ukatu eskutitzetan idazten dizkionak idatzi eta gero, baina inpultsiboegia ikusten du gaztearen burua. Berak, ostera, Kepari ateratzen dizkion hamairu urteak kontuan izanik, zentzun gehiagorekin jokatu nahi du, ez du gaztearen bizitza alferrik galdu nahi. Berrogeita bat udaberri aldean izan arren, emakume liraina da eta gazteagoa dirudi, baina hala ere bien arteko lubaki eta paretak gaindiezinak iruditzen zaizkio. Ez dira urteak bakarrik, eskuan daraman urrezko eraztunak ere larregi pisatzen du, ezkontzaren kateek larregi estutzen dute. Izan ere, Ana Mari ezkondurik dago, italiar batekin, Paolorekin. Gaztaroko zoroaldi batek eraman zuen Paolorengana. Ikasbidaian Italian ezagutu zuen, ostatu hartu zuten hoteleko nagusiaren semea omen zen. Erakargarria iruditu zitzaien eta beraiekin ibiltzen zen hiria erakutsiz. Gau batean, whiskyz mozkortu ostean, hoteleko kuartoko ohean bukatu zuten. Hau izan zen gizon batekin oheratzen zen lehenengo aldia eta, maitasuna itsua omen denez, birritan pentsatu gabe ezkontzea erabaki zuten. Urte onak bizi izan ditu, baina gaztaroan amestutakoak egia bihurtu gabe zahartzen ari dela dakusa Ana Marik. Dena den, ez dio txarrik opa eta larriturik dago, Paolok etxean behar luke jadanik, baina oraindik ez da agertu.

Estazio zaharrean tren bat geldirik dago eta polizia zinta urdin batekin dena prezintatzen ari da. Dirudienez Paolo Piamonte deituriko gizon batek bere burua jaurti du trenaren azpira. Inork ez daki nola gertatu den, makinistak dioenez erreakzionatzeko denborarik ere ez du izan eta balaztatik tira orduko gizonak bere burua jaurtia zuen trenaren azpira. Poliziak hilketaren tesia erabat deskartatu du eta bere buruaz beste egiteko mobilen bila hasi da, baina ez dute inongo frogarik aurkitu gizonaren erropetan. Izan ere, polizia etorri orduko orubetik denbora guztian begira izan duen ume muturzikin beltzaran batek Paolok eserlekuan utzi dituen metxeroa eta eskutitza jaso ditu. Eskutitza Ana Mariren izenean bidalia dago eta igorlea Kepa Amilibia deritzon bat omen da, baina horrek bost axola dio umeari; metxeroaz gutunari su eman dio eta nola erretzen den gustora ikusi du, bere esku txiki zikin biak berotzen dituen bitartean. Polizia testigu bila dabil. Estazio aurreko orubean bizi diren ijitoengana hurbildu dira galdezka, baina hauek ez dute ezer entzun ez ikusi, uniforme bat dakusaten bakoitzean gortu, itsutu eta mututuko balira bezala. Sarjentua etxera joateko irrikitan dago eta, forenseak eta epaileak gorpua altxatzen duten bitartean, Paoloren heriotza ziurrenik arazo ekonomikoengatik izan dela bete du bere informean. Gustora gelditu da, baina sekula ez du jakingo Paolok goizean emaztearen boltsoan beste gizon baten eskutitza aurkitu ostean, etsipenak jota, bidaia luze bati ekitea erabaki duela, bizitza galduz biharko egunkarien erdi aldean inork irakurriko ez duen aipu beltz bat irabazteko.

Au revoir, maitea

Arkaitz Estiballes Ormaetxea
Galdakaoko institutua
Galdakao

Basurtoko eritetxean,
1995eko martxoaren 8an

Kaixo Suzanne,

Ohetik idazten dizut ziurrenik ázkena izango den eskutitz hau, baina ez pentsa ahultasun honek gure artean jazotakoa ahaztarazi dezakeenik. Ezin nuen egun bitxiagorik aukeratu ere, martxoaren 8a, emakumeen eguna,... eta zer? Egun batekin ezin daiteke ordaindu urte osoko lana. Bizitzako azken uneak izan daitezkeen egun hauetan anitz galdera egin dizkiot neure buruari; izan ere, emakumeen egunak barregura ematen dit, noren eguna da hau ba? Gogoan al duzu Louisa, Notre Dame aurrean eskean egon ohi zen atso hura? Ziur aski Louisa ez zen bere benetako izena ere izango, baina kaleko errotuluren batean irakurri eta beretzat hartuko zuen; baina zer inporta dio Louisari emakumeen eguna izateak ilunabarrerako behar dituen 22 frankoak lortzen baditu? Hor duzu Marie zure auzokidea, Jean Claude horditurik zetorrenean ia gauero bere garraisiekin esnatzen gintuena; ilusioa egingo ote dio senarrak gaur eramango dion lore txortak? Eta Alexis Pigalleko transexualak zer pentsatu behar du gaur gauean gizon frustratu batek berarekin oheratzeko ordaintzen dionean, bere

eguna dela? Eta gutaz ere sano pentsatu dut, gure atxikimenduaz, elkarrenganako maitasunaz, gaur al da gure eguna? Eskerrak urte guztia egun baten zain iragan beharrean minutu oro bizitzen ikasi nuela zure alboan, gozatzen eta baita sufritzen ere egoerak eskatzen zuenean, eta orain sufritzea suertatu zait, zu hain urrun... ni horren ahul...

Dena den, gorputzak urrun egon arren bihotzak hurbil egon ohi dira; izan ere, zuk beti zenioen bihotzaren erresuman ez dagoela distantziarik, bihotzek elkarrekin dirautela gorputzak banandu eta gerora ere. Nire bihotz bizi eta fresko hura ordea, udazkeneko hostoen moduan zimeltzen ari da, taupadak moteltzen ari dira trena estaziora heltzerakoan gelditzen den bezala, eta soinean beti zeneramatzan fraka urratu haiek bezala urratu zait. Nire bihotzeko urradura txiki horri odol tanto batzuk darizkio; esperantzaren hariarekin urradura josten saiatu naiz hasiera batean, baina beste hainbat urradura txiki egitea besterik ez dut lortu. Nola ez ote naiz ohartu bihotzaren ehuna jos dezakeen jostorratzik ez haririk ez dagoela. Odol tanto horiek ordea, bihotzaren erresuman dagoen amildegitik erortzean ez dute beheko lurrik zikintzen, haizeak, nitaz kupiturik, beste erresuma batera garraiatzen ditu, oroitzapenen erresumara hain zuzen ere, eta bertan metatzen dira oroitzapenen goru zaharraren ondoan. Orduan, oroitzapenen goru zaharrak odol tantoak odolezko hari bilakatzen ditu, gero hauekin bizitzaren lientzoari azkenengo bordatuak eransteko.

Lientzoa bukatzen ari dela dakusat, eta etsipen horretan murgildurik Scherezade datorkit gogora, bizia ez galtzeko mila eta bat gauetan zehar ipuinak kontatu zituen neskatila hura, eta nik ere berak bezala oroitzapenak berreskuratu nahi ditut, horrela oroitzapenen gorua geldituko ez delakoan, odol-hustuko ez naizelakoan. Dena den, neure burua engainatu besterik ez dut egiten, jakin baitakit

iturri guztiak noizbait idortuko diren moduan bihotzetik daridan odolezko haria ere eten egingo dela. Hala ere, zorionez nire oroitzapenak ez dira agortu, eta elkarrekin igaro genituen une haiek dakarzkidate gogora.

Oraindik ere gaur izango bailitzan gogoratzen dut Parisen elkar ezagutu genuen arrats hura. Aitortu beharra dago ez zela arrats eguzkitsua, baina ez zen hain hitsa ere iraileko egun bat izateko. Parisen urte garai horretan izaten diren egun haizetsu eta ilun samar horietariko bat zen. Hotelerantz nindoan latindar auzoko errotulu arrotzei begira distraiturik, haragi erre eta koipe usain berezi hura airean somatuaz, gizon heldu harekin indarka ikusi zintudan arte. Birritan pentsatu gabe, euskaldun peto-petoa neroni, tartean sartu nintzen otsoa aldenduz, eta zu berriz, bildotsa ardiarengana legez hurbildu zintzaizkidan.

Edozer gauzak gogorarazten dit zurekin igarotako uneren bat. Gelan zintzilik dagoen kuadro okertua dakusadan bakoitzean, gogora datorkit *Sacré Coeur* basilika inguruko margolari haiek (beraiengatik inork bost hogerleko ere emango ez zituen kuadro haiek marrazten zituztenak) ikustera eraman ninduzun eguna. Hemengo erizainek, bestalde, gauean gu lo gaudelako ustean batak besteari beraien esperientzia sexual ustelak kontatzerakoan, Pigalleko emagalduek adinako tristura sentiarazten badidate ere, aitortu beharrean nago bero jartzen nautela txuriz jantzita horrela ikusten ditudan bakoitzean. Ahaztezinak dira bihotzeko urraduratik odol tantoak atera heinean datorzkidan beste oroitzapenak ere, Notre Dame, Louvre, Champs Élysées, Moulin Rouge, Bois de Boulognen zurekin igarotako egun alai eta gau izartsuak.

Goru zaharrak, ordea, oroitzapenik gozoena goizean iruten du, izarak aldatzen dizkidatenean. Izara berrien

usain freskoak Rome kaleko hotel hartakoak gogorarazten dizkit, gure instintuek eztanda egin zuten hotelekoak. Lehenenengo egunetik ohartu ginen gure artean zerbait bazela, baina pentsaezina zen oso kultura ezberdineko neskatila biren artean lagun izatetik maitale izatera igarotzea. Naturak ordea bere alderik basati, zahar eta gozoena erakutsi zigun afaltzera gonbidatu zintudan gau hartan. Zaila izan zen lehenengo pausoa ematea; dardaraka geunden, baina eskutik heldu eta ohera eramateko ausardia izan nuen. Laster biluztu ginen eta uste nuena baino ederragoa zinela aitortzen dizut, orduan ezer ez banizun esan ere. Ahozgora etzan zinen, eta zure zangoen aldera makurtu nintzen, izterrak zabaldu eta azala portzelana bezain leuna eta apurkorra den aldea musukatu nizun behin eta berriz, etengabean, usain freskoko izara haiek busti arte. Ondoren zure txanda heldu zen. Beti gogoratuko dut luze etzanda nengoelarik nola miazkatu zenidan gorputz atal bakoitza goitik beheraino, gero izterrak gorantz jaso nituen nire krabelin gorria erakutsiz eta zuk behin eta berriz usaindu eta ferekatu zenuen, hostoz hosto, zure hatzamar bihurriek Garaipenaren Arkua non zegoen erakusten zidaten bitartean. Lur jota gelditu ginen eta, belar apur bat erre ostean, elkarren ondoan lokartu ginen.

Oroitzapen guztietatik tristeena, ordea, bisitan etorritako lagunek alde egiten dutenekoa da, beldur damostelako oroitzapenen gorua gelditu eta, zurekin gertatu zitzaidan legez, gehiago ez ditudala ikusiko pentsatzeak. Izan ere, latza izaten da azken agurra. Zure kasuan ere gogoratu dezaket autobusera igo aurretik itzuliko nintzela zin egin nizula. Tristura nabari zen bion aurpegian; malkoa begian agurtu zintudan kristaleko lurruna eskuaz kendu ostean. Hitzak ordea haizeak daramatza, nire esperantzarekin batera, eta zuregana joan ezinik aurkitzen naiz gaitz larri batek

jota. Orain, ohetik ozta-ozta jaiki eta leihotik begiratzen dudanean, Parisen antza hartu nahi nioke beti ilun dagoen Bilbo honi, baina Eiffel dorrea ezin dut inon kokatu, eta Trocaderoren antzik handiena San Mamesko arkuari hartzen diot. Nerbioira begira ematen ditudan orduak ezin pareka daitezke Sena ibaiertzean igaro genituen arratsekin, eskutik heltzeko beldurrez, ia orain bezala, gorputzak urrun baina bihotzak elkarrekin.

Ohartzeke ilundu du jadanik. Bilbo zikin honetan etxeetako argiak bizten ari dira eta emakumeen eguna berriz ere ospakizun hutsean gelditukо da, senarrak lore txorta edo kate bat oparitu zion egunean, bere hastapenetatik hain urrun. Izan ere, gutxi batzuk gogoratuko dute kotoi lantegietako emakumeen izana, ausardia..., edo ez dute gogoratu nahi apika, eta horiei, bihartik aurrera 364 egun iraungo dituen zapalkuntza datorkie gainera. Guk berriz, baztertuok, eskutik helduta ibili ezin garenok, gaurko egunez gogoratu egiten dugu, sufritu eta gozatu, eta nire osasuna dela eta ziur aski 364 egun bizirik iraungo ez baditut ere, gelditzen zaizkidanak bederen, aldez edo moldez, neure egun bihurtuko ditut, neureak, geureak, emakume izateaz harro gaudenonak,...

Eskutitz hau zuregana heldu orduko baliteke nire bizitzaren lientzoa guztiz bordaturik egotea. Dena den, jakin ezazu nire berririk izan ez duzun hilabete hauetan ere maite izan zaitudala. Nagoen lekuan nagoela, edozein egun delarik ere, ez ezazu ahantzi, maitea, bihotzaren erresuman ez dagoela distantziarik eta urteko egun guztiak direla gure egunak, benetan emakume sentitzen garenon egunak. Au revoir, mon chéri.

Maria Luisa

Maitasunaren beste definizioa

Ana Malagón Zaldua
Santo Tomas lizeoa
Donostia

«Bizitza, une ederrez beteriko
ordu laurden txar bat besterik ez da»

Oscar Wilde (Dublin 1854 - Paris 1900)

Pembroke munduaren amaiera da. Ez da inongo Apokalipsiari buruzko liburutan agertzen, baina hala da. Munduaren bukaera nonbait kokatu beharko banu, Pembroken egingo nuke zalantzarik gabe. Galeseko kostaldeko herri txiki honetan nire azken egunak igarotzea erabakitzeko arrazoia galdetuko bazenit, ez nuke jakingo zer erantzun. Beharbada, Jainkoak herrialde hau aspaldi ahaztu zuelako nago hemen. Ez dago goibeltasun garratzagorik, leihoaren ondoan eseririk, euri tanta malenkoniatsuak goitik behera erortzen ikusiz, Oscar Wilde edo Lord Byron-en idatzien artean, heriotza noiz helduko itxarotea baino. Argazki horiztatuak, amodiozko eskutitzak, te merke hotz bati azken zurrutada emanez... Hau da nire oraina, zer ote nire etorkizuna? Azken finean, ba al dago etorkizunik?

Zerbait zor diot bizitzari, baina ezin dut ezer ordaindu, negar malkoak besterik. Malkoak zugatik isuririk, malkoak gure... Oraindik gogoratzen dut, oraindik bizirik nago.

Ni nauzu James C. Wilford, Galeseko beste itzal bat, besterik ez.

Gudu garaia zen Cardigan-era iritsi nintzenean. Trenean, Londonerantz zihoazen zenbait soldadu topatu nituen, zoriontsu, nahiz eta hura beraien azken tren bidaia izan zitekeela jakin. Shakespeare-ek esan ohi zuen bezala: «Koldarrak, askotan hiltzen dira beraien benetako heriotza baino lehen; ausartek aldiz, behin bakarrik dastatzen dute heriotza». Egia. Trenetik jaitsi bezain laster konturatu nintzen nire koldarkeriaz. Erabat ikaraturik nengoen arrotza zitzaidan herri hartan. Zergatik? Ez dakit, bakarrik sentitzen nintzelako, apika. Geltokian etxe berriaren kokapenarengatik galdetu eta itzal bat Cardiganeko kale ilunetan barrena desagertu zen, nirea.

Cardigan ez da ez handia, ez txikia, ez polita, ez eta itsusia ere. Cardigan mapan zulo bat besterik ez da. Bidaiari galduak bakarrik erortzen dira han. Eta mundua handiegia egiten zait ezagutu nuenetik, herri hartan azkenekoz ezagutu nuelako zoriona.

Han zegoen, zutik, olatuek beraien besoetan hartzen zutelarik, etxe txiki eta apain hura. Ez nuen espero Estatuak horrelako oparirik egingo zidanik Cardigan galduko eskolan Literatura eta Historia emateagatik. Sartu nintzenean, itsaso usain batek nire ikara lasaitu egin zuen. Leiho guztiak ireki nituen iraileko egun gris hartako eguzki printz bakanak nire egoitza berrian sar zitezen. Zer espero nuen han aurkitzea? Betiko pakea, maitasun istorio bat ala nire bizitzaren zentzua? Hirurak, suposatzen dut.

Hatuak behar bezala geletan zehar sakabanatu ondoren —lehenengo aldiz nire bizitza osoan etxe txukun bat izatea lortu nuen, nahiz eta horrela gutxi iraun— hondartzara

joan nintzen haizea nire behatz puntekin urratzeko asmoz. Begiak hodeiertzean jarri nituen, itsasoak eta zeru beltzak bat egiten zuten lerro hartan. Isiltasuna, olatuak eta ni bakarrik hondartza hartan, biak zurrumurruka, zentzurik gabeko elkarrizketa batean...

—Ongi etorri Cardiganera, jauna— ...neska batek puskaturiko elkarrizketa baketsu batean.

—Mila esker —erantzun nuen. Bere burua Margaret Wellington, Wellington jeneralarekin zerikusirik gabeko Sir Alfred Wellington-en alaba bezala aurkeztu zuen. Nire ikasleetako bat izango zela esan zidan, beste zenbait gauzaren artean. Harritu egin ninduen ni hain erraz ezagutu izanak, baina berak aitortu zidanez, Cardiganen ez dago sekreturik eta berehala jakiten dute iritsi berriko arrotza nor den. Margaretek hamazazpi bat urte izango zituen lehenengo aldiz ikusi nuenean, ni baino hamar gazteagoa. Bere ile horia, ilekiribil eder batzuk osatuz erortzen zen sorbalden gainera. Begi keltarrak izan arren, arbaso sajoinak zituela esan zidan.

—Cardiganen bakarretarikoak gara. Gehienek Evans, Davies, Jenkins, Hopkins eta antzeko abizenak daramatzate. Nik ordea, Wellington —gure elkarrizketa hor amaitu zen, emakume bat Margareten bila etorri baitzen. Irribarre batekin ikusi nuen urruntzen. Neska eder eta atsegin horrek bere hitzekin nire hasierako bakardade beldurra gainditzen lagundu zidan.

Handik astebetera hasi zen ikasturtea. Nire ikasleak, hamasei eta hamazazpi urteko gazteak ziren gehienak. Nik eskatu nuen bereziki adin honetakoak izatea, Literatura eta Historia emateko gaztaroko adinik aproposenak direlako. Horren truk, gutxiago kobratuko nuela adierazi nion

Davies jaunari, eskolako zuzendariari. Ez ziren asko, hamar, sei neska eta lau mutil. Herriko bere adineko beste gazte guztiak lanean, frentean edo Cardiff-en zeuden. Nire aurrean zeudenak ziren hurrengo urteetan unibertsitatean sartzeko asmoa zuten bakarrak.

—Egun on. Nire izena James Wilford da eta ikasturte honetan zuen Historia eta Literaturako irakaslea izango naiz. Berria nauzue hemen, jadanik jakingo zenuten bezala, eta ez bakarrik zuek nigandik, baizik eta nik ere zuengandik zerbait ikastea espero dut. Nire lan metodoa arraro samarra egingo zaizue hasieran, baina gero ohitzen joango zarete. Nik ez zaituztet makinak bezala ikastera behartu nahi, ez da hori nire asmoa. Nik, zuek gizaki libre eta zentzudun bihurtu nahi zaituztet, inongo laguntzarik gabe, beraien kabuz aurrera jo ahal izateko gai diren pertsonak. Baina honetarako zuen aldetik ere zerbait ipini beharko duzue. Galderarik? —gela mututurik gelditu zen. Ez dakit zer pentsatuko zuten gazte gizarajo haiek, baina hasiera batean behintzat, ahozabalik utzi nituen. Horrela hasi zen ene bizitza Cardiganen.

Arratsalde batez, herriaren hegoaldean dagoen basora eraman nuen ikasle taldea. Han, beraiek eginiko olerkiak irakurri zituzten. Era guztietako sentimenduak agertzen ziren hauetan, baina bereziki harritu ninduen Colin Hopkins izeneko mutiko baten amodiozko poema hark. Besteei nabaritu ez nien zerbait berezi hori deskribatzen zaila egiten zait. Hasieran Lord Byron etorri zitzaidan burura, gero Shakespeare-en sonetoak, Shelley-ren poemak ondoren, eta azkenik aurkitu nuen behar nuen giltza. Mutiko hura Oscar Wilden ispilua zen. Hark zuen espresatzeko erraztasuna, berezko sentsibilitate batekin nahastu zuen, izugarrizko indarra zuen lan bat osatuz.

—Zer esango zenuteke olerki honi buruz? —galdetu nuen. Ikasleek ez zuten erantzuten jakin.

—Colin oso maitemindurik dagoela —arrapostu batek. Denek barre egin zuten, baina ni zerbait sakonagoaren bila nenbilen.

—Ez da hori, zerbait gehiago —gazteen aurpegiei begiratu eta haiek nik erantzuna esateko zain zeudela ikusi nuen.

—Ez al duzue ezer ikusi?... Berak erantzun dezala, azken finean olerkia berea da —orduan Colin oso gorri jarri zen, begirada inuxente batez bere inguruneari so egin eta ahots isil batez hau besterik ez zuen esan:

—Ez, ez dago ezer. Olerki bat besterik ez da, ariketa sinple bat —klasea amaitutzat eman behar izan nuen, Colin gaizki jartzen ari zela ikusiaz. Mutikoa une txar horretatik urruntzeko, iluntzen ari zela esan eta ikasle guztiak etxera bidali nituen. Nire pipa maitea piztuz, ni ere etxerantz abiatu nintzen. Trumoi hotsak entzun nituen bidean, uharte honetan ez dagoelako gau izartsuentzat lekurik. Ez kilkerrentzat, ez ilargipean amodiozko kantuentzat inongo tokirik ez du bidaiariak Britainia osoan aurkituko.

Sutondoan nengoen Tolstoi-ren liburu bat bukatu nahian. Orrialde bakoitzeko bizpahiru begirada botatzen nizkion suari. «Horrela amaitzen dira ametsak», Colinen poemaren hitzak gogoratu nituen. Kanpoan trumoi hotsak eta euri zaparradak, barnean amataturiko maitasun istorioak. Zerk bultzatzen ninduen horrela pentsatzera? Supituki, norbaitek atea jo eta nire burutapen leloetatik atera ninduen.

—Barkatu, Wilford jauna —Colin zen sarreran blai eginda zegoen mutikoa. Bere begien beldurrak hotzikara nabariarazi zidan.

—Sar zaitez, eta esaidazu zerk ekarri zaituen hain berandu nire etxera. Itxaron une bat, arropa lehorra ekarriko dizut.

—Wilford jauna, beldur naiz —esan zuen alkandora kentzen zuen bitartean. Nire aurrean hamazazpi urteko gorputz lerden eta sasoitsu bat aurkitu nuen; ongi elikatua eta kiroletan ibilia zirudien.

—Zeren beldur, Colin?

—Bizitzaren beldur, amodioaren beldur, ametsen beldur... —mutikoaren begiak malkoz bete ziren. Ez nuen ezer ulertzen, ezertxo ere ez, zergatik ote zegoen Colin horrela?

—Lasaitu zaitez, Colin, ez dizu inork minik egingo hemen zauden bitartean —badakit esan niona inozokeria bat zela, baina ez nuen ezer egokiagorik topatu. Mutikoa, bere malkoak lehortzeko zapi baten bila aritu zen bere patriketan begira; ez zuen aurkitu ordea. Burumakur gelditu zen lurrera begira. Ni begira gelditu nintzaion, bere eleren baten zain, buruari milaka galdera eginez. Eta isiltasuna izan zen jaso nuen erantzun bakarra, isiltasuna eta lurrera erortzen ziren Colinen malko haiek. Besoa lepo inguruan jarri nion, mutikoa lasaitzeko asmoz. Bere begi urdin galesak altxa eta begirada izutu batez begiratu zidan.

—Wilford jauna, ni... —berriz ere begirada zuzendu zuen eta arnasa sakonki hartu. —Ezer ez. Joan beharra dut —eta aterantz hurbiltzen hasi zen.

—Blai eginda bukatuko duzu berriro ere. Itxaron ezazu atertu arte —baina nire hitzek ez zuten eraginik izan berarengan. Hurbil izan nahi nuen Colin, eta berak ere hurbil izan nahi ninduela uste dut, baina bazegoen zerbait, airean apika, hau galarazten zuena. Eta atera gerturatzen zen bitartean, honela esan zidan:

—Arren, ez inori honen berri eman —gau euritsuan barrena desagertu egin zen. Leihotik begira egon nintzen jasotako bisitan pentsatzen. Zergatik agertu ote zen horrela nire etxean? Eta zergatik hain goiz desagertu? Lasai egon zitekeen Colin, ez nion inori gertatutakoa kontatuko, ez zen horrelako traiziorik egongo, ez nuen nik mutikoa mindu nahi, ez, hori azkeneko gauza zen... azkeneko gauza.

Eta maitasunari beste esanahi bat aurkitu nion hurrengo goizean, amodioari beste zentzu bat, bide nahasi bat zen hura, bide nahasi eta zail bat, izkutuan ibili beharrekoa. Nire ikasleek ez zuten hura ulertu, beraientzat ez zegoen Lord Byronen amodio sutsua besterik, ez zegoen bestelako definiziorik.

—Bart amets bat izan nuen —esan nien—, amets misteriotsu bat. Baso handi eta laberinto antzeko bat gurutzatzen ari nintzen. Supituki, nire itzala topatu nuen. Bai, huraxe nire itzala zen, baina ni baino askoz ere ederragoa. Nirekin hartu nuen basotik atera arte. Behin kanpoan nengoela, izkutatu egin behar izan nuen, besteek ikus ez zezaten hainbeste maite nuen nire itzala. Zer esan nahi du amets honek?

—Autoestimari buruz hitz egiten du. Berorrek bere burua asko maite du, baina jendearen aurrean maitasun hori izkutatu beharrean aurkitzen da, besteek harroputz bat

dela pentsa ez dezaten —erantzuna ez zen makala, baina ni ez nintzen horretaz ari.

—Oso ondo dago, baina ez dut uste erantzuna hori denik. Hala ere, zure esana kontuan hartzekoa da. Bai, Margaret?

—Amodio izkutuari buruz izan al daiteke? —galdetu zuen neskak.

—Zein eratako amodio izkutua? Hori Jerome-ek ere aipatu du. Nolako amodio izkutua?

—Ez dakit, maitatu ezin dezakezun pertsona batenganako amodioa.

—Ongi zoaz, Margaret, baina zein da pertsona hori? —nire galderek ikaslea geroz eta urduriago ipintzen zuten.

—Dagoeneko ezkondua dagoen emakume bat? —izan zitekeen, baina ez. Irribarre egin nuen, nire ikasleak nola saiatzen ziren ikusiz zoriontsu.

—Jadanik ordua joan zaigu. Biharko pentsa ezazue zeinenganako maitasuna izan daitekeen bart amets egin nuena.

—Ez al da ezkondutako emakume batengatik sentitutako maitasuna?

—Ondo pentsatu eta bihar esango didazu —Colini begira gelditu nintzen. Bere eserlekuan eseririk zegoen, leihotik begira. Bakarrik gelditu ginen biok gelan. Kanpoan ilun baina ateri zen, haizeak indartsu astinzen zituen patioko haritzaren adarrak.

—Ez zuen hori egin behar —esan zuen mutikoak haritzetik begirada kenduz eta bere bi begi urdinak nire gor-

putzean labanak bailiren sartuz. —Badakielako nik horrelako ametsak izaten ditudala, badakielako nik... —haritzerantz zuzendu zuen berriz ere ikusmena.

—Barkatu Colin, ez nuen inoiz pentsatu zu mindu zintzakedanik. Ez zen hori nire nahia.

—Lortu du, eta lortu du nik eskolatik alde egitea ere. Armadan sartu naiz eta hurrengo hilean Alemaniarantz bidaliko naute —bere eleek erabat hotz utzi ninduten. —Hobe berorrengandik urrutiratzea, Wilford jauna, eta Berlinen bertan akabatuko banindu etsaiak, hobeto oraindik.

—Nola esan diezadakezu horrelako gauzarik, Colin? —negarrez hasteko puntuan aurkitu nintzen. —Gazteegia zara gudura joateko, gazteegia, ezin zaitezke armadan hamazazpi urterekin sar!

—Aitak bertako bulego batean lan egiten du eta nire adina faltsifikatzeko eskatu diot —Colinek irribarre maltzur bat luzatu zidan.

—Zure aitak hau onartzen al du? —mahai gainean eseri nintzen bera nigana hurbiltzen zen bitartean.

—Aitak ni han izatea nahi du, eta amak ere bai, inork ez du desio ni hemen egotea —mutikoak bere liburuetara so egin zuen, zerbait egiteagatik.

—Nik bai —esan nion nik. —Nik nire alboan eduki nahi zaitut, nire Idaseko azkeneko ilara horretan isilean, mundua bueltaka nola dabilen ikusten, nire antzera. Gu bezalako pertsonek ez dute frenteetan izan behar, orri artean baizik.

Alferrik izan zen erran nion guztia. Ez zen berriro itzuliko. Eta orduko hitzak bezain alferrikakoak dira orain nire negarrak. Zein motza den, zein laburra bizitza. Merezi al du honek? Merezi al du katiluen artean, Lord Byronen poemen artean heriotza noiz etorriko itxarotea? Margaret triste ipintzen da ni horrela ikustean, ez da harritzekoa, ez... Margaret gaixoa, berak bere maitasun osoz ni zaindu, eta nik hiltzeko gogoarekin itzultzen dizkiot fabore guztiak.

Irakaskuntza utzi beharrean aurkitu nintzen Colinen heriotzaren berri izan nuenean. Ezin izan nuen aurrera jarraitu, ezin nuen gela hura berriro begiratu eta Colinen eserlekua betiko hutsik egongo zela pentsatu. Zeren, nahiz eta beste gazte bat han eseri, hura beti izango zen Colinen tokia. Pembroke aukeratu nuen nire egoitza berritzat, munduaren amaiera delako, apika. Margaretek nirekin etorri nahi zuela aitortu zidanean, ezin izan nuen sinetsi. Bere bizitzaren urte ederrenak, bera bezalako neska azkar batek zuen etorkizuna, bere ametsetako gizona aurkitzeko aukera, guztia nigatik uzteko prest zegoen.

—Berorrek egiten du oro —erantzun zidan irribarre maitagarri batez. Margaret da gehien maite dudana bizitza honetan, berak ez nau nik desio dudan bezala hiltzen utziko, ondotxo dakit hori, baina hala ere ez diot inolaz ere gaueko Jane Austen-en lanen baten irakurketa inoiz ukatuko. Margaretek askoz ere gehiago merezi du.

Eta Pembrokeko hondartza zeharkatzen dugun bakoitzean, itsaso usainak Cardigan ekartzen dit burura, eta Cardiganekin batera, Colin. Europako lurralderen batean lurperaturik dagoen Oscar Wilden ispilu hura.

Begi diztiratsuak

Enara Arratibel Galartza
Alkartasuna lizeoa
Beasain

«Begira nondik ezagutzen den zein den Agota.
Lehen begirada egiten zaio belarriari.
Bata handiagoa du; bestea, aldiz,
borobil eta erabat ilez inguratua»

Estrainekoz elkar ikusi zenuteneko hura gogoan izatea zaila iruditzen zait. Zu, zegokizun lekuan, elizako laugarren iladako aulki bat berotzen eta bera, Agot guztiak bezala, zure atzeko lerroan. Benetan ez dakizu bera zure presentziaz ohartu zen ere, zuk behinik behin ez zenuen ikusi ere egin. Berria zinen herrian, kostaldekoa izanik Arizkungo baserri batera ezkondua. Bertakoa ez izanagatik, soberan ezagutzen zenituen Agotei buruzko kontuak. Arizkungo Bozate auzoa euren nolabaiteko azken gordelekua izan arren, Agoten ospe txarra Euskal Herri osoan zabaldua zegoen. Itsusiak, zatarrak, gaiztoak, likitsak zirela entzuna zenuen; zuri ordea, ez zitzaizun horrelakorik iruditu. Elizako azkeneko eserlekuetara alboratuak egon ez balira, ez zinatekeen gai izango gainontzeko biztanleengandik bereizteko. Hasiera batean, mezetan jasan beharko zenuen gizaki horien hurbiltasunak beldurra eragiten zizun baina, sentimentu berezia zen, zeinean jakingurak ikara gainditzen zuen. Beraz, ez da harritzekoa zure gibelean

pausaturik zegoen jende multzoa behatu eta ezer berezirik somatu ez izanak, uste ez bezalako kamusada eman izatea. Batek daki zer ikustea espero ote zenuen, bi buruko gizakiren batzuk bai, gutxienez. Lehen hartu-eman honek Agotenganako zure interesa amatatu zuen, inoiz biztua izan baldin bazen, bederen.

Bozateko etxeen txirotasunak guztiz goibeldu zintuen. Agotar sorgin batengana jo zenuen zure senarraren arreba gaixo jarri zenean. Ez zegoen medikurik emakumearen herioarekin asmatuko zuenik eta sorginarengana jo zenuen zure senarrari deus esan gabe. Ondo baino hobeto zenekien herrian inork ez zuela onartuko jende horren laguntzarik. Han aurkitu zenuen bera, zure agotar maitalea. Sorginaren semea zen eta bere begiradaren epeltasunak biziki erakartzen zintuen. Bere laguntzarengatik izan ez balitz, sorginak ez zukeen zure koinata sendatu nahiko. Dena ezin hobeto irten zen. Zenbait kataplasma eta infusioren ondoan, gaixoaren egoera guztiz hobetu zen. Baina orduan, zure bihotza izan zen makaldu zena. Zure senarraren begietan bilatzen zenuen alferrik, Bozateko txabolan aurkitu zenuen goxotasuna. Gau hura eta gero, zure senarraren presentzia hutsak ernegatu egiten zintuen.

Ursule zuen etxeko neskame gaztea zen eta, oso langilea bazen ere, beti izaten zuen astia berritsukeriarako. Bere ahotik izaten zenuen herrian jazotakoaren berri eta grazia ematen zizun gauzak kontatzeko zuen erak. Gehiegikeriaren bat esan zuela iruditzen zitzaionean, algara nabarmenen bat jaurtitzen zuen, azaldutakoa estali asmoz. Berarekin izaten zenituen elkarrizketak, maiz, ausart samarrak izatera iristen ziren. Gizasemeei buruzko mintzaldia zeneramaten batean, izan zenuen bozatar gizonen gaia ateratzeko abagadunea. Gauza sinestezinak kontatu zizkizun

eurei buruz. Antinaturazko bizio askoren jabe zirela esan zizun eta gainera, sexu-harremanetan ezin kementsu eta sutsuagoak. Ursulek kontu hauek nardagarriak bailiren ukitzen zituen, baina zu zeharo kitzikatzen zintuzten eta begi liluragarri haiek zenituen oroimenean.

Momentu hura noiz iritsi zain zeunden, baina ez zenuen uste iturriko hartan topatuko zenuenik. Agotek guztiz galerazia zuten iturri hartara hurbiltzea, bazuten bere propioa; hala ere, bertara inguratu zen, han aurkituko zintuela jakingo balu bezala. Ursuleren hitzak izan ziren barnean zeneraman sua biztu zuen poxpoloa. Baserriko egunerokotasunak itotzen zintuen eta, horregatik, iturriko hartan ikusi zenuen bezain laster, bere begien eztia bilatu zenuen. Konturatu zinenerako bere bi beso gihartsuez inguratuta zeunden. Eguraldiaren sargoriari bota zeniezaiokeen erru guztia, baina ondo dakizu aspaldian amestutako unea zela hura. Bi basapiztiaren moduan jo zenuten larrua inguruko aletegi batean eta hitzik esan gabe itzuli zinen etxera. Zuretzat aski zen egun batean zoratu zintuen begirada hura, oroimenean baino gehiago, bihotzean gordeta eramatea.

Enkontru hauek ohikoak egin ziren. Zure senar gizarajoak egiten zizkizun zirriez trufatu egiten zinen, Agotaren gizontasunarekin alderatzekoak ere ez baitziren. Arizkungo jendea Agotak gutxiesten ikusteak barrea eragiten zizun, altxor miresgarriren bat aurkitu duenaren harropuzkeriaz.

Makina bat urte iragan ziren, Ursulek aurkikuntza higuingarria egin zuen arte. Bere ohiturei uko eginez, eguneroko biagoa alde batera utziz, osteratxo bat egitera irten zen neskamea. Segituan somatu zituen pago zahar baten azpitik zetozen oihu berezi bezain ozenak. Han zeunden

zu, zure maitalearekin ekinean, itsu-itsuan. Horregatik, deiadarka ihes egin zuen arte, ez zinen Ursuleren presentziaz jabetu ere egin.

Amen batean zenituen senarra eta beste zenbait gizon ondoan. Zu bortxatzen ari zelakoan atzeman zuten Agota eta kupidarik gabe egurtu zuten zure begien aurrean. Ez zenuen bestelakorik esan. Bortxatu ez zintuela esan bazenu ere, gaztigu bera jasoko zuen: HERIOTZA. Hau zen Agotek jasotzen zuten zigorra euren arrazakoa ez zen emakume batekin sexu harremanik izaten baldin bazuten. Horrela, gainera, zure ohorea ez zikintzea lortzen zenuen, Agot batekin nahastea ikaragarria izan arren.

Arratsaldean bertan urkatu zuten gaizkilea herriko enparantzan, Arizkungo herri suminduaren aurrean. Berak ez zuen zirkinik ere esan, ez zintuen salatu. Ziurrenik zuk merezi baino gehiago maite zintuen. Ez zuen aurpegia estali nahi izan eta bere begi ederren azken diztira zugana zuzendu zuen. Orduan irristatu zen zure aurpegian behera beragatik isuri zenuen malkoa, bakarra eta ezin gaziagoa.

Gauean, pozik oheratu zen Arizkungo herria guztiz lo somatu zenuenean altxatu zinen. Zure oin bilutsiak enparantzarantz bideratu zenituen eta zintzilik zirauen maitearen gorputz bizigabeari so egin zenion. Bere laztanen beharra inoiz baino handiagoa izan zen eta era berean, gizaseme hark zure bizitzan utzi behar zuen benetako hutsuneaz ohartu zinen. Urkamendira igo eta lasaitasun osoz, bere burua eutsi zenuen. Eskuek dar-dar izpirik ez zizuten egin Agotaren begiak erauzi zenituenean. Zuretzat inoiz baino diztiratsuago zeuden.

Harro joaten zara mezetara zure bi semeak ondoan dituzula. Herri guztiak goraipatzen du bi gazteen lerdenta-

suna, ama guztiek nahi lituzkete euren alaben senartzat. Bitartean, elizaren zati ilun eta baztertuenean, zure semeen odol zikin berbera daramaten Agotak; zikinak, itsusiak, likitsak eta ustelak.

Bekatuaren isurkia

Arkaitz Estiballes Ormaetxea
Galdakaoko institutua
Galdakao

«Benetako orgia batek ez du inoiz ipuin pornografiko batek adina berotzen»

Aldous Huxley, idazle ingelesa.

«Bi urte inguru neramatzan nire zakil asekaitza lasaitu ezinik auzokidea nekusan bakoitzean eta, bere mutil lagunarekin moztu zuela jakin bezain laster, begira egoteaz nekaturik, erasora jotzea erabaki nuen.

Susana ez zen oso altua, baina gorputza ongi proportzionaturik zuen, haragi estuak, zango leun eta finak, bular haundi eta biribilak. Ileak dirdira egiten zion bere albotik igarotzen nintzenean beti heze zituen ezpainek bezala. Dena den, bere begi urdin moreek sorgindurik nindukaten.

Behin, igogailuan gindoazela, bere etxean afaltzera gonbidatu ninduen eta, bigarren aldiz beroturiko espaghetti gozoak jan ondoren, botila ardoa bukatzen ari ginenean, berarenganako mirespen osoa aitortu nion.

—Aspalditik susmatzen nuen gauza da hori —erantzun zidan. Masailak apur bat gorritu zitzaizkion, begiak

sutan—. Zergatik uste duzu gonbidatu zaitudala? —eta nire isilunearen aurrean azken zaztada jaurti zuen— Busti bustirik jartzen naiz gizonezkoek zuk bezala begiratzen nautenean.

Momentu hartan nire zakila lozorrotik esnatu egin zen eta fraka barrenean saltoka hasi zen. Orduan neu gorritu nintzen; aurpegia bederen sutan soma nezakeen.

Susanak, bere eskuak *Levis* estuetan zehar igurtziz, bere lagunari izugarrizko antzezpenak egiten zizkiola esan zidan.

—Egia esan mutila bera baino gehiago antzezlan haiek botatzen ditut faltan —aitortu zidan etsipenean murgilduriik.

Nik ez nekien antzezpen haiek zer izan zitezkeen ere, baina ziur nengoen ez zirela edozein teatrotakoen modukoak, nire txoria bere habian saltoka baitzebilen oraindik.

—Ni ikusle ezin hobea izan naiteke —ausartu nintzen esatera—, azken finean urte bi badira elkar ezagutzen dugula, eta gainera orain biok bakarrik gaude.

Pentsatzen zegoen bitartean nire begirada bere bularretara bideratu nuen. Ditiburuak gogortzen ari zitzaizkiola nabari zitekeen, xume-xumeki. Zenbait segunduren ostean erantzunaren oihartzuna heldu zen nire belarrietara:

—Ongi da, baina ez ezazula ahantzi nahi duzun oro ikusi arren eskuak geldirik mantendu behar dituzula.

Ardoz erdiraino beteriko edalontzia mahai gainean utzi ondoren, jertsea erantzi zuen, eta nire bihotzak eztanda egin behar zuela iruditu zitzaidan ditizorroa kendu eta

nire begien parean inoiz ikusi izan ditudan diti gaizto bezain dantzarienak agertzerakoan. Ia arnasarik gabe, eskuineko eskuaz hankarteko sumendia gelditu nuen eta ezkerrarekin ardoz beteriko edalontzia ezpainetara urreratu nuen, begiak bi diti zoragarri haietatik aldendu gabe. Bularraldea artez-artez zuen, eta diti haiek grabitatearen legearen egiazkotasuna mehatxatzen zutela zirudien. Ezkerretik eskuinera, goitik behera, dantzan zebiltzan eta angelu guztietatik ditiburu probokatzaile haiek niri begira zeudela ematen zuen.

Lasaitasuna gordetzeko mingaina ezpainetatik igaro behar izan nuen zenbait aldiz. Susana bere hatzamarrekin bularrak laztantzen hasi zen, gero eta txikiagoak bihurtzen ziren zirkuluak marraztuz bere azalean, larregizkoak iruditu zitzaizkidan oihuska batzuk jaurti zituen arte. Benetan kontzentraturik zegoen ordea nire begietara so. Diti bat ahora eraman zuen eta bere mingain jolaskari eta luzea ditiburuan bildu zuen, poliki haginkada txiki batzuk eman zizkion eta xuka eta xuka aritu zen. Azkenik, ia oharkabean, bular zati mardul bat ahoan sartu eta bizitasunez miazkatu zuen. Bat-batean bularra erortzen utzi eta zera agindu zidan arnasestuka:

—Atera ezazu buztana nola duzun ikus dezadan.

Birritan pentsatu gabe kremailera jaitsi nuen. Arazoak izan nituen buztana fraketatik ateratzeko, erabat zuzen eta gogorturik baineukan. Susanak, esku biekin ditiburuak ferekatzen zituen bitartean, zera eskatu zidan:

—Igurtzi ezazu. Astindu ezazu niretzat, baina poliki, geldiro.

Bere ohorez zakila astintzeari ekin nion eskuineko eskuarekin eta, noizbehinka, ezkerrarekin zakilburua fere-

katzen nuen zirrikitu ilun eta sakon hartatik zerion isurki hura zabaltzeko.

Susanak frakak erantzi zituen bragekin batera eta, bere ipurdi borobila ikusitakoan, ia isuri nuen hazia. Nengoen lekutik ile kizkur haien artean aluko bi ezpain busti eta hezeak antzeman niezazkiokeen, eta begirada aldendu behar izan nuen bertan eztanda ez egiteko.

—Hurbil zatzaizkit —esan zidan Susanak ezpainetatik mingaina igaroz— begira nazazu hurbilagotik, baina ukitu gabe.

Poliki-poliki hurbildu nintzen berak hankak zabaldu eta alualdea laztantzen zuen bitartean. Azal ilunekoa zen eta dirdir egiten zuen isurtzen zituen xuku tanttoengatik. Pena ematen zidan horren nektar gozoa ezin dastatu izanak. Aluko ezpainak ukitzerakoan hatzamarrek dardar egiten zioten, klitorisa behin eta berriz sakatzen zuen eta gero hatzamar bihurrien bidez hezetasun guzti hura izterretan sakabanatzen ahalegintzen zen. Mingaina ahoan zebilkion bueltaka, beheko ezpainari haginka eginez. Bere begiak, ordea, nire zakila astintzen zuen ukabilerantza zuzendurik zeuden. Zakilburu likatsua intermitenteki agertu eta desagertzen zen nire esku ahurra bustiz.

—Arinago —agindu zidan arnasestuka.

Nik zakarki igurtzi nuen. Berak bizpahiru hatzamar sartu zituen alu barnera eta nire eskuaren erritmo berdinera mugitzen zituen. Nahiz eta sutan izan haragi zati hura, bere alu barneko nektarraren zipristina nentzuen. Ditiak haunditurik zeuzkan, eta biok izerditan geunden.

—Har nazazu orain —esan zidan alu barnetik hatzamarrak ateratzen zituen bitartean.

Klitorisean hasi eta ezpainetaraino miazkatu nuen bere iturri hura agortuko nuelakoan, baina zenbat eta gehiago laztandu are eta hezeago zegoen. Orduan belauniko jartzeko eskatu eta zakila sartu nion barruraino, zulo asekaitz hura betez; ondoren kanpora atera nuen, berriz ere barrura sartzeko, kanpora, barrura, kanpora,... azkenean hustu behar nuela iruditzen zitzaidan...»

—Kaguen zotx! Kaka zaharra! —berriz ere ohean isuri dut hazia.

Zakila lodi-lodi daukat, gelako argia biztu dut, goizeko hirurak eta laurden markatzen dute orratzek paretako erlojuan, hankartean hezetasun ezeroso eta higuingarri bat sentitzen dut. Paperezko mukizapirik ez dut eskura eta ohetik jaikitzeko gogorik ere ez. Zakila biguintzen hasi da, baina maindire busti hauekin lokartzea kostatuko zait, eskerrak bihar goizerako sikatuko dela, baina amak susmatuko ote du zerbait, usain berezi honek kezkatzen nau. Ez naiz itsu geldituko, ez da? Bekatua al da? Oraindik beste apur bat atera da, zakila hankartean estutu eta beste zerbaitetan pentsatzea izango da onena, lasaitu nadin, ea lokartzen naizen. Zeinen gogorra den hamalau urte izatea!

Azken agurra

Maider Sudupe Rodriguez
Garaialde lizeoa
Urretxu

Gaizki hetsitako dendaren oihal pusken artetik, ilargiaren presentzia somatzen zen, agure zaharraren begirada lausotua bere zurbiltasunean galtzen zelarik. Tribu hartako buruzagia izaten jarraitzen zuen agure hark zerura begiratzen zuen, baina ikusi, ez zuen ezer ikusten. Bere pentsamenduak eta ilargiaren usainak bat egiten zuten urruntasunean. Jainkozko elementu hark mendi magalean baso bat osatzen zuten zuhaitzak argitzen zituen. Errespetua eta bildurra nahasten zituen argitasun bat sortzen zuen. Bera zen gauaren jaun eta jabe. Berak aukeratzen zuen zer argitu eta zer iluntasun bakartiaren atzaparretan utzi. Itzal eta ainubeak ziren bere zaindari eta haranetako belar zapalduetan, haizea zebilen gauetan batez ere, deabru dantzak irudikatzen zituen. Kutsu misteriotsu batek menperatzen zuen izadia. Gauez entzun daitezkeen hots guztien atzean isiltasuna nagusitzen zen, egonezin, urduritasun eta ikara larri bati paso emanez.

Agureak han jarraitzen zuen, begirada goibela amaigabean hiltzen uzten zuen bitartean, ekiditeko ezer ere egin gabe. Ileak urdinduak zituen zeharo eta garai batean sendo eta lehiatsu izandako ehiztariaren gorputza ahultzen eta indargabetzen ari zela nabaria zen. Azal iluneko aurpegi zimurtu hark espresio tristea agertzen zuen.

Denda berean ez oso distantzia gutxira bere semea zegoen. Etsipenak gaindituta loak hartu zuen gizon hura, ona, indartsua eta ehiztari bikaina zen. Buruzagi izateko aproposa. Berau bihurtzeko berak uste baino gutxiago falta zitzaion gainera. Izakera hotzeko pertsona zen, baina bazituen izkutuan gordetzen zituen hunkipenak. Momentu hartan, adibidez, eguzkiak erretako masailetik behera malko isil bat zerion.

Agureak semeari begiratu zion xamurtasunez. Jada ez zuen ezagutzen aspaldi haur izandako izaki hura. Zegoeneko, tribuko edozein bi gizonen arteko harremana zegoen finkatuta beraien artean. Benetako *gizon* izatearen kontu madarikatu hark izorratu zuen bi ezezagun haien arteko komunikazioa. Tristea, baina hala zen. Agureak ez zuen bere semeaz harro zegoen sentimendua kanporatzen, ez eta honek aitaganako zuen mirespena erakusten ere. Lehenengo eguneko txikikeria bat izan zen urruntasun hura areagotzeko abiapuntua. Momentu hartatik aurrera, bi pertsona haien arteko komunikazioaren zailtasuna, elur bola bat balitz bezala, handitzen joan zen, gelditzea edonorentzat posible izango ez litzatekeen tamainara heldu arte. Zegoeneko alferrik zen.

Negar mutu bat ito zen agurearen eztarrian.

Umetan arrantzara joan zen egun hura gogoratzen zuen. Lehenengo aldia zen halako eginkizun bat burutzera bidaltzen zutela eta harro sentitzen zen.

Goiza aurrera zihoan eta eguzkia zegoeneko gain-gainean ageri zen zuhaitz multzo baten gainean. Ur-jauzia atzean utzi eta ibaia zabaltzen hasten den tokian, ur korronteak sakonera gutxiko uretan gailendu ohi diren harkaitzen inguruan bitsa sortzen duenean, mutil koxkor bat begizta-

tzen zen urrunean. Oinak eta eskuak ur hotz haietan sartuta zituen. Jadanik izoztuta zegoen, eta ez zuen arrain bat bera ere harrapatu. Ondoan zituen beste guztiak ere arrantza lanetan zihardutenen, baina euren saskiek bazuten zer erakutsi. Mutilaren hatzak, ordea, minduta zeuden eta inguruko beste guztiak gorroto zituen. Ez zuen onartu nahi bera baino hobeak izan zitezkeenik.

Arrantzan bera bakarrik aritu balitz, egun hartan lan hura berari bakarrik balegokio, arrain eskasiari atxikiko ziokeen saskia hutsik egotearen errua, baina gainontzekoek, azal iluneko mutil koxkor hark berak sinestuko zukeen gezurra salatuko zuketen.

Bueltatzeko garaia iritsi zenean eta beste tribukideek kanpamendurako bidea hartu zutenean, berak han jarraitu zuen. Arrenkuraz begiratzen zion piskanaka urrutiratzen zen taldeari. Tribuko emakumeek eurak arrantzatutako arrainak prestatuko zituzten bazkaltzeko. Nazka eta amorruaren pozoinak erraiak usteltzen zizkion. Berezko urguilua jabetzen zen bere buruaz.

Urte guzti haietan bere sentimendu guztiei gailendu zitzaien berezko urguilu hura bera zen.

Negar zotin batekin nahastu zen hasperen sakon bat galdu zen gauaren hutsartean.

Altxatu eta dendatik atera zen. Beste aldean gauak ez zuen askoz gehiago iraungo. Azkeneko aldiz begiratu zuen agureak barrualdera eta bihotzak agur esan zion semeari.

Makila eskubiko eskuan zuela, kanpamendutik urrundu zen. Ez zuen atzera begiratu nahi izan. Bertan uzten zituen umetatik bizi izandako lekua, familia eta ordurarte

bere agindupean egondako tribua. Oroitzapenak, pozak, tristurak... Bertan uzten zuen bere bizia.

Zerua tonuera desberdinetako koloreen bilketa burutzen hasia zegoen. Gauaren iluntasuna, more koloreko hodeiekin mugatzen zen; azken hauek, aldi berean, suzko lerro batekin topo egiten zuten. Mendiak oraindik itzalpean ageri ziren; soslaia soilik nabaritzen zen. Izpi eskas batzuk iluntasunetik ihes egiten zuten eta mendi-tontorretako harriak esnatzen zituzten.

Agureak basorako bideska hartu eta inoiz gehiago ikusiko ez zuen harana atzean utzi zuen.

Egunsentiaren espektakulua aurrera zihoan. Ortzea gutxinaka pizten hasi zen.

Gertuen zeuden zuhaitzen enbor ilunak zeru gorrasta batekin kontrajartzen ziren. Eguzkiak, lotsati, bere agerraldia iragartzen zuen. Egunsentiak ez zion inoiz momentu berezi bat izateari utzi eta egun hartakoa inoiz baino txundigarriagoa suertatzen zitzaion.

Begiak malkoz gainezka zituen orain agureak, baina burua altxatu, esku ahurrez malkoak lehortu eta aurrera jarraitu zuen. Basoan zehar, zuhaitz artetik igaro eta ibaia zegoen alderaino iritsi zen. Ur hotsa zalapartatsua zen. Urjauzi bat gertu zegoen seinale. Bai, halaxe zen. Ibaiertzetik harkaitz batzuk zeuden tokiraino abiatu zen. Ur hotsa geroz eta ozenago bihurtzen ari zen. Bere pausoak geroz eta astunagoak egiten ziren.

Ibaiaren alde banatan basoak begizta zitezkeen. Zuhaitzek udazkenak agindutako jantzia zeramaten soinean. Pinuek izan ezik. Hauek beti izan dira ausartenak, udazkenaren aginduei aurre egin dietenak. Zuhaitz enbo-

rrekin tartekatzen zen behe laino batek, garo, lirio, aingeru belar eta hainbat eta hainbat lore eta landare izkutatzen zituen.

Ur-jauziak, ibaiarekin topo egitean, ura harrotzen zuen, burrunbada ozen bat sortuz.

Basoen atzean harkaitz gorriskako mendi bat ikusten zen. Bere hegalek ur-jauziaren zarataren oihartzuna buel-tatzen zuten.

Agureak begiak hertsirik zituen. Zegoeneko bizitza honetan bere lana bete zuen. Bere aita izandakoak buruza-gi izateari utzi zionetik, berak hartu zuen kargua. Hainbat borroka eta bakealdi bizi izan zituen, hainbat etsipen, poz, jaiotza, heriotza, gaixotasun... ezagutu...

Baina beti bizitzak aurrera egiten zuen. Orain, ordea, ez zen inora joango. Buruzagi izateari utzi behar zion, bere aitak egin zuen bezala, bere semeak kargua har zezan. Maite zuen bere semea. Bere begirada ikusi zuen. Bere algara somatu zuen.

Ezkerreko oina aurreratu eta hutsean eman zuen hurrengo pausoa. Ozenki bere semearen izena oihukatu eta, poliki-poliki, ur-jauziak irentsi zuen bere gorputza, azken oihua irensten zuen bezalaxe.

Urrunean otso zuri baten lanturuak bere heriotza ahuendatu zuen.

Begira nazazu

Harkaitz Zubiri Esnaola
Xabier Zubiri institutua
Donostia

Ortze urdinduan zehar hodeiak lerratu eta xahutzen zirela, eguzki izpiak haranera barreiatuz, zuhaitz artetik iragan ahal zuten printzek marrazten zituzten oihaneko koloreak.

Zaldian zetorren udaberriari bidea irekitzen ari zitzaizkion.

Artean errekaren hotsak dena betetzen zuen; Saliletak inguruaz ahantzita zerraien xendan barrena, alboko alaitasun girotik lekora, bere mundu ilunean amildua, begitartean ezinegona eta noraeza antzeman zekizkiokeela.

Saliletak gori-gorian zuen gaztetasuna bere erraietan biraka, baina ez zuen hartatik behar adina edaten, bizitzeko beharrezkoa zuena ere ez ia. Hargatik, eta herrian etxekoek edo lagunek akitzen zuten guztietan egin ohi zuen bezala, abiatu zen Salileta erreka aldera.

Ingurura iritsi eta errekastoan oinak bustita, hari jarraitu zitzaion isurtzen zuenerarte. Errekan behera jaisten zen ur hotza esku ahurren artean hartu eta dzanga edan zuen; ondoren, hirutan egin zuen zurrut berriro.

Atorra eranzten eta ur hotza oinaren punttaz ukitzen hasia zen, hots bat entzun zuenean. Ihes egin behar zue-

nentz otu zitzaion; bertan geratu zen, ordea, ez baitzuen zertaz beldurtu.

Errekaren norabideari jarraiki, berarengana zihoazkion hotsak aditzean, beste ikara batek hartu zuen, baina zinez ez zekien zergatik.

Lipar batean hots haiek egiten zituena aurrez aurre izango zuela oharturik izkutatu zen Salileta, erreka alboko harroka baten atzean beheitituz; berak jakiteke zerbaitek atezuan jartzen zuen antza. Hotsak hurreratzen ari zitzaizkion heinean, noiz eta kukubilkatuagoa zegoen bera. Izan ere, begiak hetsita ez zituenean, arrokak atxikiak zituen lizunak ikusten ahal zituen bakarrik. Artean hotsak alboan zituen, baina beste hots modu batzuk eginez.

Jakinminak hartu zuen Salileta, lehenengo beldurrak ahantzirik. Aurrean zuena ikusteko doi so egin zuen arrokaren atzeko aldetik haratago.

Begiak zabal-zahalik jarri zitzaizkion aurrean zuen putzutik zetozen hotsen sortzailea ikustean; neskatxa bat zetzan arrokaren gain batean. Alde orotara so eginda, neskak soinekoa eranzteari ekin zion, bere zuritasuna agerian utziaz. Oin punttaz hotza zetorren ura ukitu eta astiro zipriztindu zituen bere soinaren atalak; gero, putzura sartu zen. Egin zituen imintzioengatik, benetan hotza zegoela zirudien, nahiz azkenerako atseginez aritu zen igerian.

Uretatik irtenik lehortzen hasi zenean, berriro so egin zuen alde guztietara, baita Salileta zegoen arrokara ere, eta une batez bien begiradak gurutzatu egin zirela iruditu zitzaion mutilari.

Neska ohikoa zitzaiona zirudienari jarraitu zitzaion eta, soinekoa jantzi ondoren, besterik gabe, etorri zen bidetik abiatu zen.

Salileta, ordea, inoiz ez bezala hasi zen herrirantz antxintxiketan, iluntzerako itzuli behar zuelako arduratua baino gehiago, ikusi zuenagatik aztoratua.

Erreka eta bere inguruak atzean utzita, berehala iritsi zen herrira eta handik etxera.

Ezkaratzean ama zuen zain, aitaren beldurrez, horma ilunen artean argi arrasto bat bezala. Amaren begi marroixkak antzeman ezinean zeuden, artean eguna abailtzen ari zela.

Sukaldeko mahaian eseri ziren biak, harik eta aita etorri eta, kopetilun, jaten hasi zen arte. Besteek ere ekin zioten jateari, ixilean, norbera bere mundutik irten gabe, bestearena zulatu nahi ez balu bezala. Hala ziren egunero etxe hartako egonaldiak, hitsak eta ezdeusak. Saliletak gorroto zituen eta, horrelakoetan hastapenetan kalean lagunekin jolasean aritzen bazen ere, azken aldian herriaz ere nekatzen hasia zen; ez zuen ezer atsegina aurkitzen, ez eta lehenago maite zituenak ere.

Liskar bat izan zuenetako batean, erreka inguruetara joateari ekin zion; akitzen zuten bakoitzean, gerora ohitura bihurturik, besterik gabe hara ihes egiten hasi zen.

Basoko lurrinek eta errekaren hotsak betetzen zuten Salileta, nahiz zinez hutsalak eta baliogabeak iruditzen zitziakion une haiek. Zuhaitzen baten mukurrean bermaturik iragaten zuen arratserarte geratzen zitzaion egun tartea.

Neskatxa ikusi zuenetik taigabe joaten zen hara edo, bestela, irudimenean abiatzen zen. Alabaina, ezin izaten zuen neskatxa gogoan eraman; izan ere, luzaz egon zen estrainekoz ikusi zuenetik agertu gabe. Horrela, gogotik xahutzen zitzaion haren oroitzapena eta egunak iragaten

zituen ikusi zuenaren eta desio zuenaren artean bere oroimeneko neskatxari itxura emanez.

Gauzak horrela, errekara oinak bustitzeko asmoz inguratu zen batean arestiko hotsa aditurik, ezpairik gabe izkutatu ahal izan zuen bere burua. Gero, neskatxa agertu zen ohiko zituenak egiteko, baina beti inork ikusiko zuen mesfidantzaz alde guztietara behin eta berriro begiratuz.

Osterantzean, egunak pittin bat berotzen ziren bakoitzean, erreka alboko arrokan egon ohi zen izkutatua Salileta, neskatxa hari so.

Aurrena soinekoa eranzten zuen, soin zuria zuhaitzen artean esne anpulu bat hosto baten erdian lez utziz; Saliletari lotsa ematen zion aurpegitik beherantz so egitea eta, horrela, begi marroixkek eta haien azpiko ezpain gorrixkek liluratzen zuten, baina noizbehinka beheko aldera irristatzen zitzaion begirada, bular mardulen parera iristen zen arte.

Putzutik irtetean, neskatxak begietara zuzenean so egiten ziola iruditzen zitzaion Saliletari, beti ikusi ez balu bezala jokatzen zuen arren. Zinez nahasturik zeukan begirada horrek, ikusi izan balu bezala, baina Salileta bera ez balego bezala jarraituz.

Artean beste ezertarako astirik ez zuela zirudiela, etxean ostatu hartu bailuen zebilen eta lagunen arteko solasaldien ildoa aspaldi galdua zen.

Ama egun batez kezkati agertu zitzaion; berarekiko ardura itxura emateko nahia iruditu zitzaion Saliletari.

—Zer duzu, seme, zerbaitek larritzen zaitu, etxean ez baitzara lehen bezala ibiltzen, ez eta kalean ere. Zure lagu-

nek erotzen ari zarela diote eta nik esamesak bakarrik ez ote diren galdetzen diot neure buruari, baina zinez kezkatzen nauzu.

Saliletari guzti hark irrifar triste bat eragiten zion barnetik, lehenago arduratu ez izanak, bere mundutxoa sortu zuenean barnera sartuz zulatu nahi izateak. Hala eta guztiz ere, ez zuen ezer azaltzeko inongo asmorik, ez arrotz zitzaion aurreko emakume horri bederen.

—Zure aita eta ni arras arduratuak gaude zurekin; zu ere besteak bezalakoa izatea nahi dugu.

Baiezkoa egiten zion semeak buruarekin, artean gogoarekin ezezko imintzioak egiten zizkiola. Haatik, bete lanaren patxadaz ahantzi bide zuen amak auzi hura; ez semeak, ordea.

Bitartean, errekaren alboko arrokaren atzeko aldean izkutatuz burua apur bat ateraz egon ohi zen arratsalde beroetan so, eta sarri iruditzen zitzaion neskatxak ere so egiten ziola, besterik gabe bereari ekiten bazion ere. Gero, ilea orrazteko esertzen zen luzaroan, azkenerako jantzi eta errekan gora abiatuz.

Dagoeneko estuasun gehiegirik edukitzeke begira egoten zela, neskatxa beti bezala bilustu eta aritu zen putzuan igerian. Inoiz baino astiroago irten zen uretatik, eta oraingoan Salileta zegoen lekurantz zuzendu. Goitik beherako zuritasuna aurrez aurre erakutsiz, begiak altxatu eta xaloki so egin zion neskatxak Saliletari.

—Noiz irtengo zain nago, ez izan lotsarik eta etorri lasai —ahots gozoa zuen.

Saliletak izuaren tenkadaz zutiturik ekin zion losintxari, desenkusatu nahian.

—Lasai zaitez —hutsune bat nabaritu zen neskaren hizketan— Nola duzu izena?

Mutila apur bat lasaitzen hasia zen.

—Salileta esaten didate lagunek —arnasa sakonki hartu zuen jarraitu aurretik— Eta zein da zure grazia? Ez baitzaitut inoiz ikusi eta, gainera, nik dakidala behintzat, ez dago inongo baserririk errekan gora.

Neskak asaldatu xamartua zirudien; Saliletak hori bere nondik norakoak zekizkienari egotzi zion. Aitzitik, hizketan hasi zitzaionean bezalako lasaitasunez ekin zion.

—Nik Joana dut izena, Ameraungoa, baldin hori ere jakin nahi baduzu.

Salileta artega jartzen zuena aurrean bilutsik zegoena bezalako neska eder bat izatea zen; izan ere; emakume bat horrela zekusan aurreneko aldia baitzen.

—Orduan zer, bazatoz ala?

Egin behar zuenentz deliberatzeke, aitzakiaren bat eriden beharrean aurkitu zen.

—Beste batean izango da, agian; egia esan, etxera itzuli beharrean nago, bestela gurasoekin arazoak izango baititut.

Joanak etsipenez goratu zituen sorbalda biak, buelta ematearekin batera janzten hasi aurretik. Bukatu baino lehenago alde egin zuen mutilak, zeharo asaldaturik. Aurrenekoz neska ikusi zuenean arraro sentitzen bazen, une haietan bere buruarengandik ihes egin izan balu bezala nabaritzen zuen bere izatea.

Lelotuak iragan zituen egun gutxi batzuk, harik eta berriro Joana topatzeko nahia piztu zitzaion arte.

Amari galdetu zionean, honek horrelakorik ezagutzen ez zuela bermatu zion, baina zilegi zela hori, ez baitzeukan urrun xamar zeuden baserrien berri. Dena den, Ameraun zelakorik egotea harritzekoa zitzaion, nahiz zergatik jakin ez.

Lagunengana ere joan zen; inoiz ez bezalako solasa zerabiltela kausitu zituen. Jarovit eta Xugar maiz egoten ziren elkarrekin honetaz eta hartaz eztabaidatzen, eta hala zeuden eguerdi hartan ere.

Ez zioten arretarik jarri Saliletaren hurreratzeari, ez baitziren ohartu inguratzen ari zitzaiela, arduratzeko sartuegiak zeudelako eztabaidan. Saliletak ohi zuena baino ozenago hitz egin zien, ia hitzak lardaskatuz.

Zer moduz zaudete gaurkoan, ikusten dudanez suharki baitzabiltzate bata bestea bere ustearen aldera erakarri nahian.

Txantxa egin nahi izan bazuen ere, ez zioten irrifarrik eskaini, askozaz gogotsuago baitzebiltzan beraien auzian; eztabaida hutsalak aspaldi utzi zituzten gai sozial eta existentzialistei bidea irekiz, arras erabakiorrak iruditzen baitzitzaizkien une haietan. Jarovit zuzendu zitzaion lehenik Saliletari:

—Zinez uste duzu zuk beste bizitzaren bat badagoela? Ez, noski, ez baitzara Xugar bezain inozoa; badakizu nolakoak diren kristau hauek, beti xume eta apal. Bada ez, ez daukagu beste ezer hemendik haratago eta triste itxaron behar diogu Herioren etorrerari. —Jarovitek oso gogoko zituen galdera horiek, gero berak erantzunez norbait ziztatzen bazuen.

Artean Xugar ihardespenerako garbitzen ari zen eztarria.

—Nik, zuk ez bezala, elkarrekiko errespetuan sinisten dut eta dagoeneko nahikoa nazkaturik naukazu zure aldartearekin.

Jarovit supituki oldartu zitzaion:

—Bai, noski, zu beti oso haserre zaudenez, ez duzu inoiz ganorazko erantzunik ematen; horrelakoa zara zu.

Saliletari ez zitzaizkion atsegin ezertara ez zeramaten eztabaida horiek, zerbait hobea baitzuen gogoan, eta artean ez zen beste ezertaz horretaz baino gehiago arduratzen; bizi legea zen.

—Ez dago, apika, beste lekurik, baina bai, ordea, leku ezezagunik, eta ni horietako baten bila nabil, Ameraun non dagoen jakin nahian alegia, eta bertan bizi den Joanaren bila hain zuzen ere.

Mespretxuz hitz egin ziotela iruditu zitzaion arren, finean halakorik ezagutzen ez zutela jakin zuen, eta galdetzeko herriko emakume zaharrenari edo, honek ez bazekien, apaizari.

Artean eztabaida betiereko horiekin utzi zituen lagunak.

Joan zen emakume zaharrenarenera inongo etekinik atera gabe, eta gero apaizari galdetzera, baina biek esan zioten ez zutela halakorik inoiz entzun, ez eta errekaren goiko aldean baserriren bat zegoenik ere. Alabaina, Saliletak ezpairik gabe zekien ezjakintasun hark sortu endekatzearen erdian, errekan ikusitakoak bultzatzen zuela bilatze hartara, berriro harekin topo egin nahi izatera.

Hala eta guztiz ere, hurrengo egunetan bakarrik egon zen errekaren ertzean, ixilik. Inor inguratu ez zelarik, galduak zituen esperantza gehienak.

Azken esperantza gisa zituenei galdetu zien Joanagatik, ezer onik erdietsi gabe, eta denek haren berririk eman ez eta etsi behar zuela zirudienean, apika ezintasunaren indarraren azken kondarrek bultzatuta, errekarantz abiatu zen lasterka.

Azkar utzi zuen herria atzean, bide malkartsuetatik, oihan eta errekaren lurrinez, putzu ertzera iritsi arte. Arrokaren gaineko aldean pausaturik egon zen luzaroan. Beharbada gauak eta egunak iragan zitzaizkion aurretik.

Gauzak horrela, egun argiz edo ilargia borobil zuen gau baten dirdiraz aurkitzen zen batean, hots batzuk entzun zituen urrutian, irudimenak sortuak bezala. Alabaina, hotsak hurreratzen zihoazen heinean, alaitasunak hartu zuen Salileta. Hartaratua zegoela, ezinegonean, zutitu egin zen.

Segituan zen Joana bere aitzinean, ile mataza sorbaldan behera zihoakiola. Irrifar egin zion bezain azkar, Saliletak eskua oratzen zion bitartean egin zion errekaren goralderanzko keinua. Joanak onespena eman zuen, burua-rekin baiezkoa eginez.

Eskuak gurutzaturik abiatu ziren errekan gora, astiro baina geratu gabe eta, artean beraien berri inork izan ez duela, seguru aski Ameraun baserriraino iritsiko ziren.

PROSA. B maila

BBBko 1. eta 2. kurtsoa,
LHko 1. gradua eta
IEEko 1. zikloa

Zugatik

Oihana Larrañaga Zabaleta
Txindoki institutua
Beasain

Abagune honetan, une honetan bertan, idaztea otu bazait, bularraren ezkerrean daukadan sentipen bonba hau lehertzear daukadalako da. Eta ba al dakizu norena den errua? Zurea, zurea bakarrik; zuk jarri duzu martxan eta. Orain, nahi dudan gauza bakarra da sentipen horiek hitz bilakatzea, hemendik denboraldi batera berriro bizirik sentiaraz nazaten. Ez ditut bizipenok altxor ederrena bailiran nire barrenean dirdira itzali arte gordeko; izan ere, ederregiak dira eta hori neurekoia izatea litzateke. Paperotan barreiatu daitezen baimena emango diet, zugatik eta ulertzeko gai izango diren guztiengatik.

Taberna, olio zantzua, sargoria, zerrauts usaina, mutil bat, arinegi doan denbora baten jostailu, artega, ontziak xukatzen. Neskato ttipia amaren gonapera ihesi, salto, irri, joan, etorri, negar txepela, samina... Osabaren ero aurpegiek izutzen zuten neskatila hark ez du hura ezagutzeko aukerarik ere izan. Behintzat, aukerarik ez didazu eman edo zerbaitek ez dit eman. Ez zaitut ezagutzen; ez dakit nolakoa zaren edo zer duzun gustoko edo zelan pentsatzen duzun. Ezer gutxi dakit zutaz. Hainbat urte luzetan zehar, ez hitz dartada edo gogoeta bakan bat... ezer ez. Ozta-ozta gordetzen dut haurtzaroko oroitzapen xume hori, negu hotzean noiz edo noiz agurtzen nauen eguzki errainu indar-

gea gorde nahi nukeen lez. Tristea da zurekin lotzen nauen gauza bakarra, umezaroan nizun beldurra dela ohartzea, duela egun gutxi arte bederen.

Izan ere, zu nire bizitzan zerbait gehiago izaten hasi zinen une hartan izan nuen beldur sentipen berbera; nire jabe egin zen neurtezinezko ikara bat krudelki. Noizbait nahi izan badut denboran aurrera egin eta bizitzaren malkarrei hor konpon egitea, *Centro Penitenciario* irakur zitekeen burnizko seinale hura kausitu genuenean izan zen. Huskeria bat baino ez nintzen neurrigabetasun enkoniagarri hartan galduta, abegi eskaseko lur latz haiek azkandurik sostengatzen zutena. Ezerez hark ez ei zuen hasiera ez bukaerarik; begiak nekatzeraino zen gaitza. Oraino ez dut ulertzen nola urteen joan-etorrian hainbeste negar-anpulu xurgatutako lurra izan zitekeen hain idorra. Isuritako gizamalko bakoitzeko lore bat erne izan balitz, hura munduko leku politena izango zatekeela pentsarazi zidan bizi egarriak. Erdi-erdian, lurraren sakonetik irtenda bezala, adreilu eta zementuzko mamutzar gorri bat altxatzen zen, irmotasun berekoa, ehiartasun berekoa, zureak ziren kateak herrestatuz. Eguzkia galdatan zegoen eta batasun hartan, lurrak zerua zirudien eta zeruak lurra.

Sarreran, ibilgailuentzako barrera eta goardia egiteko kabina bat baino ez genuen aurkitu; bizi aztarna bat ere ez zen ageri, den-dena hutsik zegoen. Ezkerrean, kristalezko ate laxo bat ikus zitekeen, denboraren poderioan markoko pintura galduz eta likistasuna bereganatuz zihoana. Hura zeharkatuz itxarongela batean sartu ginen. Hiruzpalau ijito familia eta emakumeren bat edo hormaren kontra jarritako aulki luzeetan eserita. Gelaren mutur batean kantina txiki bat, sendi haietako buruek goiz garratzak eztitzearren harrapatutako hordialdien erruz itxita. Bizitzak egindako

oinazea hotz eta desafiatzaile gordeaz, ez ziren ez haiek beren burua edonortzat hartzen zuten gizonak, idazten eta irakurtzen ikasi aurretik ustelkeriaren atzaparretan eroritako semea noiz ikusiko aiduru egon arren.

Emazteei, hiruzpalau haur lepotik zintzilik, aparramantarretan bilduta, aise nabari zekiekeen etsipenaren itzalak begietan sortutako lausotasuna. Ikaragarria zen begi haiek bizitzari narda egiteko zuten modua.

Bizitzak kolorea galtzen zuen eta irribarrea pertsonek.

Eta ikusi nuen aurpegitxo beltzaran desitxuratu hura, ile katramila harekin. Eta bat-batean, jolasgurak bultzatuta, artega, ijitoek txikitandik hain berezkoa duten doinu txispagarri horrekin, *¡Viva la vida!, ¡Viva la gente!* abestu zuen txaloz lagunduz, irribarrez, urte gutxi barru giltzapean egongo zena bera izango zela pentsatu gabe, seme baten itzulera desiratuko zuen aita izan zitekeelako konturik egin gabe, eta niri bihotza urratu zitzaidan.

Orduantxe izan zen. Bizi garen munduaren eta bere errealitatearen arteko muga markatzen zuen ateetako bat ireki berri nuen. Hura zeharkatu izanak benetan bizirik egotea zer den irakatsi zidan; osterantzean, ez nintzatekeen hemen guzti hau idazten egongo. Horrelakoa da bizitza... eta mundua; azken batean gizakiok eraiki dugu, bere baitan zertu dugun askatasuna eta bidegabekeriaren arteko lehia bizia barne. Beraz, azken honek nolabaiteko itzala egiten badigu, gure hobenez izanen da soilik. Bizitza bat, mundu bat egin eta dugu maite, txoko bakarti batean goibelkor muzinka ari dena bien bitartean. Izan ere, gurea da eta nahi dugun trataera eman diezaiokegu, gure gogora jarraitzen dugu bidea! Egunero berria izango den zerbaiten bila eta ezerk ez digu axola.

Ez da erraza hamabost urterekin eta idazlan bat eskuartean gauzak nondik zuzentzen hasi jakitea.

Bozgorailu batetik ahots batek dei egin zigun gure txanda iritsi zela adieraziz. Beranduago, itxarongela, funtzionarien etxebizitzak eta psikiatri eritetxea gure eskubian utziz, hauek eraikin nagusitik bereizten zituen patio batera zuzendu gintuzten. Nork daki zenbat amets egia bihurturik, zenbat irriño, zenbat fereka, zenbat musika izango zirateken aski izotz guzti hura urtzeko! Gu geu ginen han gauza arnasdun bakarra eta lepoa egingo nuke nire azpegi zurbilari begiratzera, nik ere ez nuela hurrengo kukua entzungo suposatuko lukeela edonork. Amak esan zidanean zure leihoak eraikuntzaren gibelean zegoen arkadira ematen zuela eta dagoeneko harrikaxkar bakoitza zenbatuta edukiko zenuela, zirrara batek zeharkatu ninduen goi eta behe arima matxuratuz. Anitz dartada ilun zetozen nire gainera oldarkor eta babesgabe topatu nuen nire burua, ikusten ari nintzenaren beldur, ikusiko ote nuenaren beldur.

Bigarren itxarotea, hotz amaigabe bat baino latzagoa, beldurra areagotuz, hamar urteren ondoren zu ikusteko unea gerturatuz.

«Familia Larrañaga-Zabaleta, pasillo número uno, módulo cuatro». Ni izan nintzen lehena bi metro karratuko kabina hartan sartzen. Honelako hamar bat edo egongo ziren bata bestearen atzetik jarraian eta ilara osoak, guk zeharkatutako pasabidea eta zuek zeundetena bereizten zituen. Sekula ez dut ahaztuko nola ikusi zintudan lehenengo aldiz, bizkarrez, beste birekin hizketan. Une hartan ez nion kabina bitan zatitzen zuen kristalari erreparatu. «Ostras Oihana, noaño hazi zea?». Aurrez aurre izan zintudan. Bata bestearengandik hain urrun jartzen gintuena ez zen beira huts bat; denboraldi luzeegi batean gure bitzitzek

jarraituak zituzten bide desberdinegiak eta orain zu barruan zeunden eta ni kanpoan. Bizitza zoragarria dela sentitzen duzunean bezala, zerbaitek, oraino ez dut asmatu zerk, kili-kili egiten zidan urdailean; agian izango da telebistan etengabe diotenez *Coca-Cola* bat hartzeak edo *Levi's 501* bakeroak erabiltzeak ematen dizun *Sensación de vivir* edo delako arraio hori...

Zure itxurak esaten zidan behintzat osasunez ezin hobeto zenbiltzala. Zenerabilen euskara dotoreak, irakurketari eskainitako ordu naharoak salatzen zituen. Hitz egiterakoan agertzen zenituen oreka eta gotortasunak lasaitu ninduten. Kanpotik ondo zeundela zirudien eta, niri zegokidanez, gogorrena gainditua nuen. Barrena nola zeneukan eta daukazun ezin dut jakin, nik bizitzaz zein askatasunaz gozatzeko aukera baitut. Hango gorabeherak kontatu zenizkigun bata bestearen atzetik eta zer esan ez genekiela utzi gintuzun. Orain, ordea, nahiago nuke horiek denak alde batera utzi, haizeak eraman ditzala! Nik elkarrizketa hartatik oroitu nahi nukeen gauza bakarra da nola esan zenigun patioan ordu luzeak ematen zenituztela, bai eguzkitan kiskaltzen bai hotzak akabatzen, baina txiripaz euria egiten zuenean, umeen antzera korrika eta saltoka ibiltzen zinetela putzuetan eta zerutik zetozen ur-tantek sentiarazten zizueten freskotasunak sorterria zekarkizuela gogora.

Konturatu nintzenean ez ditugula bizitzak opatzen dizkigun une gozoak behar adina balioesten, behar adina dastatzen, behar adina bizitzen, oso gaizki sentiarazi ninduzun.

Txirrin gorgarri bat entzun zen bisita-ordua amaierara iritsi zela adieraziz. Zuk, burua kristalera gerturatuz, hitz egiteko erritmoa eta tonua handitu zenituen iskanbila haren erdian entzun zintzagun. Elkar agurtu genuen. Behin eta

berriz, eskubiko eskuko hatzak ezpainetara eraman eta ondoren gorantz altxatzen zenuen besoa agur egiteko. Behin eta berriz. Iruditu zitzaidan bizitzak ez zuela merezi.

Ez da hala. Bizitza da ibai bat, lardaskatuta eta kutsatuta egon arren, ilusio eta amets emaria daraman bitartean, zentzuren bat duena eta inoiz lehortzen ez dena. Hau ere zugandik ikasi dut. Gezurra dirudi zenbat gauza ikas daitekeen pertsonengandik.

Askok pentsatuko dute dagokizun zigorra ordaintzen ari zarela, baina maite zaitugunok askatasun haizeak noiz joko zain gaude.

Ihesi

Jone Urkizu Mendiola
Azpeitiko institutua
Azpeitia

Ortze urdina zeharkatu berri duen hegazkinaren arrasto zuria nabari da oraindik, eta ez da aienatuko puska batean. Segundo gutxi batzuk aski izan ditu herri idorraren eremu mugatuak atzean utzi eta urruntzeko; aurrera doa etengabe hegal handiko txoria.

Haizeak, bere betiko ihardueretan, lurreko hautsak astindu ditu eta harantz eta honantz darabiltza, amaierarik gabeko solas bortitzean, eguzkiak erretako asfaltu berotik zerurantz jasoz; hareazko behelaino trinko bihurtuz. Aldi berean, etxe-arteetako zirrikituetatik barrena iragazten da, ziztu hotsa atereaz eta leihoetatik zintzilikaturiko maindire zuriak astinduz, bere bidean aurkitzen duen oro barreiatu nahian.

Haitzezko mendi garaietatik behera amiltzen diren harrien krakateko hotsak entzuten dira soilik; banan-banan erortzen dira, biraka eta jauzika, lurrean lehertzen diren arte, karraxika ari balira bezala. Besterik ez. Isiltasuna da nagusi. Izan ere, eguerdiko bero lazgarriak, ez baitu itomena besterik ekartzen eta herritarrak, egunero legez, euren etxeetan babestu dira bazkalondoko lo kuluxkaren aitzakian. Denak, sugandilen atzetik korrika dabiltzan haurrak izan ezik. Neguan ibai emaritsu —gaur errekasto—

izaten denaren urbazterretako sastrakak miatzen egiten dute olgetan, ez sastraka artean bakarrik aurki daitezkeelako, herriko karriketan maiz paseatzen baitira sugandila, musker eta beste hainbat narrazti euren mihi gorriska eta azal likitsa herriko beste edozein biztanleren gisan eguzkitara atereaz, baizik eta, nola edo hala, eguneko ordu mortu eta astunak arintzearren. Gero, harro itzuliko dira etxera, ehiza lanaren biktimak erakutsiz eta, bide batez, txanponen batzuk lortuko dituzte lan ondo eginaren saritzat. Herrian, asko dira narrazti hauen zaporea altxor baliotsutzat jotzen dutenak eta, beste hainbatek berriz jaki merke baina bertute ugarikoa dela diote. Beraz, lana izaten dute beti haurrek, inor ez baita ausartzen hauen denborapasa preziatua ohosten. Hala eta guztiz ere, badaezpada, denak lo direnean ekiten diote ehizari; segurtasun neurriak.

Baina gaur, murru erdi eroriaren ondotik jasotzen den muinoaren barrenean, neskatxa bat ikus daiteke. Bere adats fin eta leuna goxo ferekatzen du eguzkiak dirdira eraginez eta samurki atontzen haizeak. Bere aurpegi eta begien gardentasunak, gaztaroaren aztarna nabarmenak igortzen ditu; azal zuri eta emeak berriz, aingeru zerutiarren itxura. Korrika doala eta gorputzeko giharreak agerian dituela, greziar zizelkariek moldatu ohi zituzten artelanetako bat dirudi, edota ipuin miragarrietan agertzen den jainkosaren bat. Baina ez da amets bat, ez eta irudikeria soil bat ere; egiazkoa da. Egiazko neskatxa bat, bideska estu eta hautseztatuetatik korrika doana, gelditu barik. Aurrerantza doa hegazkinaren gisan; baina ez daki nora.

Arrapaladan biltzen zaio airea bere biriketan, eta arrapaladan irteten, egarritutako abere taldeek egiten duten gisan zingira bat dakusatenean. Bere bihotzaren erritmo bizi eta geldiezinaren zartaden soinua garbi entzun dezake

eta honek mugiarazten duen odolaren joan-etorria bere zainetan sentitu; burutik behatz puntetaraino dihoakion ibai gorria. Ez daki ziur korrika saioaren ondorena ala barruan daraman izu eta nazkaren arteko nahasketa xelebrea ote den bere arnasestu itogarriaren arrazoia. Dena den, ez du horretan pentsatzen denbora galtzeko astirik eta korrika jarraitzen du; ihesi.

Bere pausoak laburrak dira, baina bizkorrak eta jarraiak. Ez du atzera begiratu nahi, beranduegi baita horretarako; egindakoak egina dirau beti, eta ezin da aldatu.

Korrikaldiaren erritmoak, bularrak ezezik, pentsamenduak ere dantzarazten dizkio etengabeko amesgaiztoak balira bezala. Burutik uxatu nahi lituzke, betiko ahantzi. Baina ezin du, eta behin eta berriz datorzkio kolpeka bere arima estutu eta korapilduz, zapi busti bati azkenengo ur tanta urrupatzeko egiten den legez. Euren atzaparrekin tinkatzen dute harrapakin indargea eta irmoki estutzen irtenbiderik txikiena ere utzi gabe. Alde batera eta bestera astintzen du burua, burutazio mingotsek aska dezaten. Baina alferrik da, behin eta berriz etortzen baitzaizkio begien aurrera irudi berberak: labana, odola, gorpua, odola.... eta gorrotozko malkoak isurtzen ditu amorruaren amorruz.

Egunero bezala zihoan etxera, amonarenean bazkaldu ondoren. Bidea ez da luzea, baina bai zeharo aspergarria. Mila bider errepikatu izan dio bere buruari, nahiago izango lukeela zerbait desberdina gertatuko balitzaio noizbait, benetan gogaitzen baitu bidearen monotonia errepikakorrak. Baina hori esatean, ez zen gaurkoaz mintzatzen, ez eta antzekotasun txikienera hurbiltzen zaion ezertaz ere. Ez zuen horrelakorik nahi eta orain damu du, damu egin eta esanengatik.

Beroak bere gar indartsua luzatzen jarraitzen duen artean, herriak suzko labe bat dirudi, gori-goria. Haizeak, gogoz ahalegintzen den arren, ezin du bero astun hau inolaz ere arindu. Euri zaparrada freskagarri batek soilik gainditu dezake bero likitsa. Baina euri hodeirik ez da ageri inondik.

Eta neskatxari, izerdia dario lepotik behera; izerdi hotz eta labainkorra. Minutu gutxi batzuk lehenxeago, bidearen bihurgune batean, gainera etorri zaion tipoari zerionaren antzekoa. Ez zuen espero ordu hartan norbait irtengo zitzaionik. Ez ordu hartan, ez eta beste edozeinetan, beti pentsatu izan baitu berea bezalako herrietan ez dela horrelakorik izaten. Oker zegoen ordea, begiak irten beharrean eta ahotik lerdejario, eskuak luzatuz gogor eutsi baitu gerritik, bere xedea bete nahian. Bere indar guztiak bildu eta oihu egin nahi izan du, baina zerbaitek, bere barruan, ez dio utzi. Agian izuak eragotzi dio, edo ezustekoaren shock gogorrak. Dena den, karraxi egin izan balu ere, inor ez zatekeen ohartuko; batzuk lo zeudekeelako, eta besteek, arazoetan sartzeko gogorik ez zuketelako.

Behar bada guzti hori burutik pasa zaiolako edo, agian, bere burua defendatzeko premiaren aurrean atera zaion berezko erantzun bat besterik ez da izan. Baina oharkabean, beti poltsikoan eraman ohi duen laban txiki eta zorrotzaz zeharkatu dio eztarria alderik alde. Ez du zalantzarik txikiena ere egin. Segundo erdi bateko gorabeheran, bere lana burutzen duen hiltzailea bailitzen, erraz labaindu zaio burdinazko xafla zorrotza gizonaren haragian barrena.

Lantu ito eta labur baten ostean, balantzaka erori da hilberriaren gorpu astuna. Zauritik ibaika irtendako odoljarioak, lurra blaitu eta neskatxaren arropak zipristindu ditu.

Hari begira dagoela, oka egiteko gogoa etorri zaio eta, bat-batean, zerbaitek mugiarazi izan balu bezala, hasi da korrika. Eta hala darrai, herri mortuan barrena, esango dutenaren eta patuak ekarriko dionaren beldur, ihesi.

Opari misteriotsua

Leire Larrabide Elexpuru
Arratia institutua
Igorre

Amona Frantziskaren opariak beti hartzen nituen pozik armairu txiki hura ekarri zidan arte behintzat! Amona Frantziska nire amaren ama zen eta berandu baino lehen nik eskatutako opariren batekin etxean azaltzen zen. Esan beharrik ez dago ni beti zain egoten nintzela hura noiz etorriko. Batez ere armairua eskatu nionetik.

—Armairu bat? —pentsatuko duzu—. Armairu bat zertarako? Ba erropa sartzeko, hain zuzen ere!

Begira, etxekoek bazüten norberak bere armairua. Aitak eta amak armairu handi bana beren gelan, nire anaiek, Lander eta Koldok beste armairu bana, izeba Benitak ere bazituen bi armairu bere logelan eta berak gordetzen zituen nire gauzak: soineko, galtza, jertsei eta zapatak.

Baina nik armairu bat eduki nahi nuen nire logelan, eta ez izeba Benitarengana joan zerbait behar nuen bakoitzean. Horregatik eskatu nion amona Frantziskari niretzako armairua. Ailegatu zen amona azkenean hainbeste espero nuen arratsalde hartan.

—Amona, noiz ekarriko dute armairua?

—Nik daukat armairua, maitea, nik daukat hemen, besapean. Ez dut inoiz armairu bat besapean gordetzen duen

pertsonarik ezagutu eta horregatik, pakete hura utzi, argia itzali, atea itxi eta bertan gelditu nintzen oso haserre. Ez nuen paketea irekitzeko gogorik, hura ezin zitekeen nire armairua izan. Hain txikia zen! Amona Frantziska benetan triste zegoen, eta niri zer? Ez nituen haren galderak erantzuten. Zer uste zuen? Ez zegoen oso lasai, baina afaltzen gelditu zen; baina nik ez nuen amore emango, ezta pentsatu ere!

Afalondoan logelara joan nintzenean, ohean sartu eta paketeari begira geratu nintzen. Zer ote zegoen? Ohetik jaiki eta irekitzea pentsatu nuen. Lehenbizi soka askatu nuen, horrek eman zidan lanik gehien. Nirekin haserre zegoela zirudien eta ez zuen nire esku artean eten nahi, baina azkenerako, pixkanaka eta poliki, amore eman zuen.

Urdin-urdina zen, hura bai gustatu niri. Handia izan balitz... Hiru, hiru ate zituen, hura bai armairua! Handia izan balitz... Eta erdiko atean, ispilua! Amaren armairuak ere bazuen ispilua. Handia izan balitz...

Eskua ispiluaren aurrean jarri eta harekin keinuak egiten hasi nintzen. Irakaslea haserre dagoenean bezala hatzamarra atera nuen eta esan nion:

—Txikiegia zarela, miniarmairu!

Eta eskua mugituz:

—Frantziska, Frantziska, a ze ipurdikoa eman behar dizudan, hau ekarri niri!

Lurrean etzan eta nire aurpegiaren haserrea ikusi nuen ispiluan, bekainak tinko, ezpainak zimur eta estu... barregurea eman zidan, baina txo! ispiluak ez zuen barrerik egiten... Ez eta nik ere luzaro, han agertzen zen hura ni ez nintzela konturatu nintzenean.

Begiak urdin-urdinak zituen, masailak berriz gorrixkak, eta ilea? Ilea ez dakit, pago hostoez jositako txano batek izkutatzen zuen.

—Zergatik egin didazu barre? —esan zidan haserre bezala baina ahots gozo batez.

—Barre nik zuri? Baina ni...nor...?

Ez zidan bukatzeko denborarik eman.

—Armairumari dut izena eta hemendik aurrera zure lagun bihurtuko naiz.

Harrituta nengoen eta nire buruan mila galdera hasi ziren bueltaka une hartan.

—Ba, horrelako armairu txikia izanik, nola zaude bertan?

—Begira, ni oso pertsona berezia naiz, baina ene! txikia dela eta ez dela, hauxe kezka makala...

—Zer gorde dezakezu zuk? —galdetu nion irrifartsu, eta honetan bai harrapatu nuela, ziur!

—Sekretuak...—esan zidan isil-isilik.

—Se-kre-tu-ak?

—Bai, zuk ez al duzu sekreturik?

—Ba ez dakit... Zer da sekretu bat?

—Sekretu bat, isilean gordetzen duzun zerbait da. Baina kontuz! Beste baten sekretua ezin duzu inola ere kontatu, hori bere sekretua lapurtzea izango litzateke; horregatik da hain garrantzitsua non gorde izatea. Zer iruditzen zaizu?

—Uf! Ba nik sekretu pila bat dauzkat orduan, baina orain ez zaizkit gogora etortzen...Mmmmmm... —eta ahoa jogurra jaterakoan bezala okertu ondoren:

—Aizu, Armairumari, orain logura naiz eta ni banoa ohera.

Oheratu eta armairuan sartuko nituen sekretuez pentsatzen ia-ia lo hartu behar nuenean, salto batetan jaiki, armairuaren eskumako atea ireki eta nire lehenengo sekretua sartzera nindoala, honela esan zidan Armairumarik:

—Astiro, astiro, lehenengo sekretua niretzat izaten da eta.

—Zuretzat?

—Bai, bai, niretzat. Ea, esaidazu zer gorde behar duzun hemen.

—Ba, zu zara nire lehenengo sekretua, ez diot inori esan nahi hemen zaudela, ez eta armairuan zer gordeko dudan ere. Armairumari negarrez hasi zen.

—Zergatik egiten duzu negar?

—Eskerrik asko, mila esker, esker mila...

Eta negarrez jarraitzen zuen. Pixka bat baretu zenean, berriz galdetu nion jakin nahian.

—Zergatik negar baina?

—Hara! Askatasuna eman didazulako.

Eta barrezka azaldu zidan bere bizitzaren istorioa.

«Ni baso handi bateko pagadian jaio nintzen. Horrelako egun batean, aspertuta geunden batean, basotik atera eta ea nor

joaten zen urrutiago egin genuen apustu. Ibili eta ibili, baserri handi bat ikusi nuen basoaren azkenean. Ondo jakin arren arriskutsua nuela basotik irtetzea, besteen aurrean ausartago azaltzearren, korrika abiatu nintzen baserrira. Han, atzeko atetik ganbarara igo nintzen. Trastez gainezka zegoen ganbara hura.

Halako batean, alde egitea pentsatu nuenean, ja, ja, ja, ja, barrez ikusi nuen gizon handi bat nire atzeko aldean.

— Ez zaitez joan. Gurea izango zara hemendik aurrera. Ja, ja, ja... Eta hau esanaz, kutxa handi batean sartu ninduen. Han hauts berezi batzuk bota zizkidan eta horregatik naiz berezia. Nik negar egiten nuen gau eta egun. Ez nintzen inoiz baretzen.

Udaberri batean, baserriko teilatura habia egitera etorri ziren enarek, nitaz errukitu eta honela esan zidaten:

—Guk ezin zaitugu basora eraman, baina bai Armairuetara joateko aukera eman, eta entzun, entzun ezazu ondo!

—Noizbait armairu berriaren jabeak gordetzen duen lehenengo sekretua zu baldin bazara, askatasuna izango duzu zure etxera joateko.»

Armairumariren istorioak harrituta utzi ninduen, ez zitzaidan hitzik ere ateratzen.

—Orain joan naiteke nire pagadira, berriz ere lagunekin jolastu, gertatu zaidan guztia kontatu eta gero arin-arin ahaztu.

—Eta ni... ni ere ahaztu egingo al nauzu?

—Ez horixe, zu ezin zaitut ahaztu. Ezagutzen al duzu Sustraia mendira joateko bidea?

—Bai noski! Bide bat baino gehiago dago eta batzuk ezagutzen ditut, askotan joaten gara familiarekin igandea pasatzera.

—Oso ondo, orduan entzun... ni joan eta gero ispiluan agertuko den bidea jarraitu behar duzu eta «x» batez seinalatuko dizudan lekuan, mendira joango zaren hurrengo batean, pago bat aurkituko duzu.

—Han egongo zara zu?

—Ez, ni ez. Ni urrunago bizi naiz. Han, esandako pagoa aurkitu behar duzu, baina oso pago berezia, ez edonolakoa.

—Zergatik berezia?

—Badakizu zuhaitzei udaberrian hostoak jaio eta udazkenean jausten zaizkiela, baina pago honi ez zaio horrelakorik gertatuko. Zuk armairuan sekretuak jarriko dituzun neurrian, hostoak jaioko zaizkio: sekretu bat, hosto bat, sekretu bi, hosto bi, horrela jantziko da pagoa.

—Eta udazkenean?

—Udazkenean ere ez zaio hostorik jausiko, hori utzi nire kontura.

—Baina alde egin baino lehen kontatuko al didazu zerbait?

—Nondik hasi ere ez dakit, hainbeste sekretu ditut nik...

—Armairumari, kontatuko al dizut Iñakirena?

—Nahi baduzu, aurrera!

—Iñaki da nire lagunik maiteena eta elkarren ondoan jartzen gara eskolan; eskutik helduta ibili ginen behin jolasorduan, pena da zuk ez ezagutzea.

Eta horrela igaro genuen denbora luzea. Hainbat eta hainbat sekretu kontatu nizkion. Benetan agur tristea izan zen eta, Armairumariren irudia betiko gorde nahian, berriro sartu nintzen ohera.

Hurrengo goizean esnatu eta badaezpada ere ispilura begiratu nuen. Ezer ez, ez eta Armairumarik esandako bidea ere. Amets egin ote nuen? Bai, seguru asko amets egingo nuen. Armairu bat, armairu txiki bat, kirten gorriko armairu urdina besterik ez zen.

Ikastolan, lagunek zenbait gauza interesgarri kontatuko zizkidaten, sekretuak deituko nituen nik. Armairuan gordeko nituen sekretu horiek eta horrela, atzo gauekoa frogatu ahal izango nuen.

Eta iritsi zen azkenean sekretuak gordetzeko unea. Ez nekien nola egin, hura zen kezka! Ateak zabaldu, ispilu aurrean jarri eta horrela aritu nintzen nire buruarekin jolasean. Baina, azkenean, denak esan nituen.

Eta horrela ari nintzela, hara non ikusten dudan Armairumarik esandakoa! Ispiluan zegoen Sustraiko bidea. Baita «x»a ere: pagoa non zegoen erakusten zuen «x»ak. Ez nuen amets egin, dena egia zen!

Azaroaren azken igandean, azkenean gurasoei burutu zitzaien Sustraira joatea, bazen ordua!

Eginahalak egin ondoren, azkenean lortu nuen nik nahi nuen bidea hartzea, eta hantxe zegoen nire pagoa... eta hantxe nire sekretuen hostoak.

Harri koxkor baten gainean eserita, pagoari begira geratu nintzen.

—Ikusi al duzue? Hau da hau pago ederra! —esan zuen aitak.

—Honek ez ditu hostoak galdu! —esan zuen amak ondoren.

—Harritzekoa da! Bihar maisuari esango diot! —Koldo beti bezala, larri.

—Gainera, han goiko aldean ez al ditu zenbait hosto berri? —Landerrek gero.

«Ez duzue ezer ulertzen», egiten nuen nire artean.

—Eta zuk, ba al duzu sekretuak gordetzeko armairurik?

Seiak eta hamar

Kepa Betzuen Arana
Arratia institutua
Igorre

Riiiiiiiing!!

Goizeko seiak eta hamar, itzartu zara.

Komunera joan eta aurpegia garbitzen duzu ur hotzez; ez duzu lehortu; oraindik tantak aurpegitik behera irristatzen daramatzazula, esnea berotzen jartzen duzu.

Mahai alboko aulkian eseri eta berotzen ari den esnea geratzen zaizu begien aurrean. Halako batean zerbait erortzen da armairuko apaletik. Esnea albo batera utziz burua zakarki jiratzen duzu. Eskerrak... a ze sustoa! Zutitu eta eskuetan hartzen duzu Moro.

—Nolako sustoa eman didaan, halakoren batean hil behar naik!

Lurrean uzten duzu eta, hanka inguruan bueltaka darabilzula, berriz ere eseri egiten zara.

Moro, izen xelebrea, katu arraroa benetan. Burura datorkizu arrebak ekarri zizun eguna. Txikia zen, baina bere kolore beltza gaur bezain iluna eta bere begirada misteriotsuak gaur lango dizdira isladatzen zuen. *Moro*, Amaiak bataiatu zuen, ez dakizu zergatik, baina beno, arreba gazteak beti izan du irudimen handia.

Egia esan Moro eta Txuri dira baserri zahar honetan konpainia egiten dizuten bakarrak, katua eta txakurra izan arren elkarrekin ondo konpontzen dira. Bikote arraroa osatzen dute; katu kakanarrua, txikia eta beltza, zakur kankailu eta zuriarekin.

Bat-batean esneak gainezka egiten du; ahalegintzen zara iristen, baina ezin izan duzu dena zikindu aurretik geldiarazi.

—Kaka zaharra! —etsipena nabaria da zure aurpegian— Katu leloa! nahastu egin naik.

Ez duzu esneak zikindu duena garbitzeko asmorik, orain ez behintzat; beraz, kafesnea edan eta, jantzi ondoren, kalera irtetzen zara.

Argitzen ari du, eguraldi ona dakar. Gaurkoa ere atzokoa bezala abuztuko egun luze eta beroa izanen da. Zeruari so geratu zara bizpahiru minutuz. Ondoren, ardiak dituzun etxolara abiatzen zara, ortzetik begiak kendu barik.

Ardiak beeka hasten dira zu somatu orduko, sartu bezain laster agurtzen dituzu:

—Kaixo, Belen! Egunon, Judas! Zer moduz, Dorotea?...

Ateratzen dituzu etxola zaharretik eta, makutoan gazta zatia eta ogi puska bat sartu ondoren, mendirantz abiatzen zara. Txuri, ardiak eta gaztetan aitak eman zizun makila daramatzazu lagun bakartzat.

Aldapan gora zoazela, goizean mendiak darion freskotasuna eta natura usaina nabaritzen duzu. Badirudi basoa ez dela iratzarri oraindik, eta dartaka horrek ama lurraren handitasuna erakusten dizu.

Eguerdi alderarte batetik bestera jira-biraka jarraitu duzu, naturaren edertasunaz gozatuz, mugitzen den sastraka bakoitzari, txorien kantuei eta errekatxoko uraren soinuari erreparatuz.

Eguzkia punturik gorenean pausatu da inguru guztiak argituz. Ardiak larrean daude belarra jaten edo etzanda; ixiltasuna haizearen ziztuak bakarrik apurtzen du. Bitartean zu pago zahar baten gerizpe gozoan eseri zara Txurirekin batera, begien bistan daukazularik herria. Han azpian dago herria. Etxeak ez dira ia ezagutzen eta, etxeek sortzen duten puntu zurien multzotik irtetzen, elizaren kanpai dorrea dakusazu. Baso gainetik dena da horren txikia!... badirudi beheko baserriak biltzen hasi zaitezkeela eskuekin, banan-banan eta presarik gabe. Pentsamendu honek irribarrea sortzen dizu.

Herria hortxe dago. Duela gutxi arte igandero jaisten zinen mezetara. Ondoren, tabernan zerbait hartu eta adiskideekin egoten zinen musean jokatzen iluntzen hasi arte. Baina denbora da etxeko bakardadeak harrapaturik zaituela eta iganderoko ohitura hau guztiz bazterturik daukazula. Nahiago izaten duzu etxean geratu, su bazterreko berotasunean kontu zaharrak gogoratzen edo Txuri eta Mororekin hitz egiten.

Orain entzuten duzun meza bakarra hilean behin San Martingo baselizan herriko abadeak ematen duena da, eta herrira beharrezko erosketak egitera baino ez zara jaisten. Baserri zaharrak eta bakardadeak apurka-apurka irensten zaituzte, presarik gabe. Askotan pentsatu izan duzu guzti hau ez ezkontzearren ari zaizula gertatzen; ezin daiteke esan aukera faltan egon zarenik, «zelango zakua, halango amarrea» esaera zaharra baieztatuz, baina...

Denbora ohartu gabe igaro da eta, berriz ere, makila eskuetan eta Txuri alboan duzularik, ardiak gidatzen hasten zara norantza argirik gabe.

Ibili eta ibili, Santiren errefugiora hurbiltzen zara. Santi zure antzeko mendi-gizona da. Baina ez da zu bezalakoa, familia dauka eta etxe bat herrian. Dena den tipo jatorra da eta ahal duen guztietan egiten du ihesalditxoren bat mendira, naturararen magalera, aire freskoa arnastera. Dioenez, mesede handia egiten diote biratxo hauek, asko lasaitzen dute.

Etxola aurreko harri gainean dago eserita, txakurra aldamenean duela eta zahatotik ardo trago bat egiten. Berari begira geratzen zara eta azken aldian zilbota ederki hazi zaiola nabaritzen duzu; hori ere herriko bizitzaren ondorioa izango delakoan zaude, jadanik ez baita lehen beste mendian ibiltzen.

Bera ere begira geratzen zaizu, eskuarekin ezpainak lehortzen dituen bitartean.

—Aupa, Joxe! —eskua altzatuz agurtzen zaitu— Nahi al duk pixka bat? —eta zahatoa luzatzen dizu irribarre eginez.

—Arratsaldeon, Santi! Beti eskertzen duk eztarria lehor dagoenean ardo trago bat —eta zahatoa hartzen duzu.

Trago luzea egin ondoren, ondoan esertzen zatzaizkio bere txakurra laztanduz. Xelebrea da Santi eta herrian gertatu diren hainbat kontu eta iskanbila kontatzeari ekiten dio, beti ere tonu ironikoarekin eta tarteka ardoari zurrupada gozoak eginez.

Ez dizute interes handiegirik sortzen aipatzen dizkizun berriketek eta aldika baino ez diozu arreta jartzen. Baina bat-batean, ixildu egiten da eta galdera zuzen bat botatzen dizu:

—Aspaldian ez haiz herrian agertzen, zer duk? — eta zure begiei begira geratzen da erantzunaren zain bezala.

—Ezertxo ere ez, badakik, baserrian lan asko zegok egiteko eta nik bakarrik...

Ez daukazu gogorik gai honetaz jarraitzeko, ez eta zure bakardade eta penak inori kontatzeko ere.

Santi konturatzen da zure gogo ezaz eta gaia baztertzen du.

—Ongi zegok, utziko diagu gaia — botatzen du — baina bukatu behar diagu elkarrizketa hau, eh? — esanez amaitutzat ematen du kontua zutundu eta bazoazela ikustean.

Ardiak batu eta Santi agurtzen duzu makilarekin; berak ere gauza bera egiten du eta apurka-apurka urruntzen zara. Bera errefugioan sartzen da.

Eguna aurrerantz doa eta txorien kantuak ere desagertzen hasiak dira. Pausoa azkartu duzu, etxera ilundu aurretik heltzeko asmoarekin. Iluntzea are ilunagoa da pagadian barrena eta Txurik nahikoa lan du ardi guztiak gidatzen.

Azkenean iritsi zara etxera. Heldu bezain laster, ardiak etxola zaharrean sartzen dituzu, ondoren ikuiluko lanak egin eta ortutik zerbait hartzeko denbora izan dezazun gaua guztiz zarratu baino lehen.

Sukaldean sartu eta Moro ikusten duzu mahaipean lo. Txuri hurbiltzen zaio eta jolasean hasten dira jira eta bira. Zuk, bitartean, sua pizten duzu afaria prestatu ahal izateko.

Afaria berotzen den bitartean sutondoan esertzen zara. Moro altzoan harturik suari begira zaude; beroa zure aurpegi osoan hedatzen da.

Berriz ere egunero bezala zure bakardadean murgiltzen zara kontu zaharrak gogoratuz eta zenbait bertso zahar abestuz. Astiro-astiro ixiltasunak eta etsipenak arima zulatzen dizute.

Azken batean, goizeko seiak eta hamarrean iratzargailuak berriz ere joko du.

Ai! Bixente, Bixente

Iker Yurrebaso Pikaza
Arratia institutua
Igorre

Ongi etorri. Formizidoen familiako intsektu himenopteroen erresuman sartzera zoaz. Mugaz beste aldean, esan beharreko guztia esateko eskubidea galduko duzu eta zure ipurdia galtzeko lehen pausoa emanda egongo da. Utzi zure ideia eta burutazioak ate ondoan eta sartu zimaur usaina eguneroko gauza den sekta honetara. Goizeko zortziak dira eta gure atzaparretan erortzeko zorian zaude. Mila esker.

Ieup! Zer moduz? Zu ere engainatu zaituzte, eh? Ez jarri aurpegi hori, ez zara bakarra eta. Bota dizute formizidoen *rollo* hori ez da? Ez kasurik egin, *inurria* esateko era politago bat baino ez da eta. Etorri, segi niri, zure zuloa erakutsiko dizut... Nondik zatoz? Egia? Ni ere eskubidetarra naiz, ziur inoiz elkar ikusi dugula, hain da txikia... laster helduko gara... Eta? Ba al duzu neskalagunik? Hobe, errazago ohituko zara absolutismo honetara, beharko. Egia esan, ez dut gogoratzen noiztik nagoen kaka honetan. Hori baita beraien lana, hona gatozen inozoak guztiz inozo bihurtzea... Heldu gara, ja, ja... bai, hori da. Badakizu? Lagun on batek okupatu behar izaten zuen zulo-beltz hori, baina egun batez *San Ajebo de los Cuyons* edo horrelako tokiren batera bidali zuten. Bai, orain dela hilabete pare bat ikusi nuen, hil kutxa batean. Zortea izan zuen horrek ba!

Gorputzeko atal guztiak aurkitu zizkioten eta. Baina lasai, inurritegi handia da hau.

Buenas. Zuen amesgaiztorik amesgaiztoena naiz ni! *Ni el mismísimo Freddy!* Txerri kaka ere ez zarete zuek, umegorri negarti alenak. Pitilina zer den ere ez dakizue. *Cagüen las vírgenes de Niuyor y la estatua esa!* Ez dut zuengandik hitzik entzun nahi, ulertzen! Nire behatz txikia ere ez zarete. Inoiz baino gaizkiago sentiaraziko zaituztet, zuen gainean egongo naiz gau eta egun. Gutxien espero duzuenean hor izango nauzue, zuek izorratzeko prest (eta abar eta abar). *Su majestad la Reina, ¡Olé su gracia!* Heriotza arte bere zerbitzuan egoteko, zuek bezalako txakurrei prestakuntza egokia ematea da nire lana. *Y por los güevos de mi padre, que en paz descanse*, lortu egingo dudala, horretarako zuetariko batzuk akatu behar baditut ere, bai horixe! Enfin... Galderarik?

Ostia hi. Hire potroak! Bere zaharra nola hil zen galdetzea ere! Ikusten diat berria haizela, baina lehenengo egunean zigor gelara bidaltzea ez duk batere seinale ona, ez... Bai motel! Ku Klux Klana ez duk ezer honekin konparatuz gero. Hemen buru-garbiketa erabiltzen ditek. Diktadura ideologikoaren bitartez egiten ditek lan, eta demontreko erregina horri ipurdia musukatzea duk gure heziketa honetan lortuko dugun saria... Nahi al duk komikiren bat? Guzti hau komeria baten itxura hartzen ari duk. Denetarik zegok hemen, nola duk, bi galiar horiena. Asterix eta, zera, lodia... Tori ba. Nik ere atsegin diat bikote hori. Gu bezalakoak dituk, baina guk ez diagu edabe magikorik. Gainera, gu inurri sinple batzuk baino ez gaituk. Bukaezinezko galerietan zehar bueltaka dabiltzan inurri txiki-txikiak.

Zu hasi patatei azala kentzen, eta ez jarri nazka aurpegi hori. Entzun dut zure konpainia buruari esan zeniona, eta gazte, benetan zortea izan duzu sukaldera bialdu zaituztelako, egin niri kasu... bizkorrago zuritu patata horiek... gainera, ofizio bat ikasteko aukera izango duzu sukaldean. Bai, egin barre, baina hemendik irtetzea lortzen dutenek ez dute zuk izan duzun zoria izango, ez horixe! Mugitzen den edozeri eguna nola izorra diezaioketen ikasten ematen dute denbora, eta zuk berriz, ene akolito maitea, faraoien jakien sekretuak eskuratzen diharduzu... har ezazu lapiko hau, bestela ez dugu inoiz bukatuko eta...

Jesus! Ezingo dizut gehiago merketu ba! Baditut nire kriterioak, motel! Bai, bai, bai, baina... Horrekin ezingo dut *Mc Donald's* batean ere jan. Beno, horretan utziko dizut, gaurkoagatik baino ez bada... Zer! Kenduko dituzu arropak ala uniforme eta guzti egingo dugu! Ez duzula... eh, eh, eh. Ez zinen niregana negar egitera etorriko, ez da?! Joder! Horixe, *joder* da nik nahi dudana, eta ez zuen zoroetxe horretako penak entzutea. Horretarako abadeak daude... jo, nolako ganadua... Eta zu al zara martiztarrengandik salbatu behar gaituen soldadua? Berunezko soldadutxoa. Ez, ikusten dut euli bat hiltzeko ere ez zarela gai, ez da intsektizidarekin ere! Ze ozono kapa eta ze... Kaka! Azkenean sotanadun horietako baten lekua hartu behar... Ezin duzula gehiago eta zure buruaz beste egin behar duzula, lotsak jango zaituela arinago erreginak jaten ez bazaitu, janaria nazkagarria dela, sukaldaria ez dela isiltzen, Asterix-en komikia ez zitzaizula gustatu eta kexa bat jarri arren ez dizutela jaramonik egin... Ostia! Hau eroseten zerrenda baino luzeagoa da eta... hau ez dela bidezkoa, odola gorroto duzula, armek beldurra ematen dizutela eta ez dutela ezer errespetatzen, loratu maitasuna eta erein bakea... Zer! Bukatzeko asmorik ez ala! Nik arrosariorik ez

dizut aginduko, baina bai Rosariorengana bidali, ea berak jasaten zaituen! Alboko gelan dago... eh, eh! Nora zoaz horren azkar! Hau taximetroen antzera doa, motel!

Egun on, ene inurritxo maiteok! Hasi baino lehen agurtu nahi nuke hemengo kondesa eta horko enperadorea, bateko markes eta besteko dukea (betiko errepertorio luze bezain aspergarria)... Nik, zuen erregina maite, gazte, eder eta aberats honek, eskerrak eman nahi dizkizuet zuen ausardiagatik eta inurritegi hau defendatzeko burubelarri ekin diozuen lanagatik. Ez, ez, mesedez, txalorik ez... eta Shackespeare-k esango lukeen bezala... edo Sokrates-ek esaten zuen... «morituri te salutatis», edo horrelako zerbait... megafonia hori! Ez dela ondo entzuten!... eta beno, harira bueltatuz, berri on bat jakinarazteko etorri natzaizue. Nire Benidorm-eko luxuzko apartamentuan nengoela, sofan etzanda eta *Coca-Cola* bat edaten lasai asko... propaganda, badakizue... ideia zoragarri, argi, miresgarri, hunkigarri eta zuek inoiz imajinatu ere egingo ez zenuketen ideia ikaragarri bat bururatu zitzaidan. Zuen *patriaren* izen ona mantentzeko eta zor diozuena zuzen betetzeko erakutsi duzuen gogo bizia ikusirik, bada, zuen obedientzia zerbitzua epe zabalago batera luzatzea erabaki dut... megafonia hori! Ez direla txaloak entzuten!... Zinez, zuen larruazalean banengo... baina badakizue psikiatrak nolakoak diren! Hala ere, ez ahaztu zerbait behar baldin baduzue... hau ez grabatu... eskatzea besterik ez duzuela... Beno, joateko ordua heldu dela uste dut, ez gaitezen gehiago luzatu. Adio, adio gudari ausartok... eta azkenik agurtu nahi nuke holako artzapezpiku eta halako errege ezkongai...

Hori baino ez zitzaigun falta! Zoro hori pentsatzen hastea! Eta zertarako?! Ba gure existentzia oraindik gehiago izorratzeko, a ze nolako *burutazio bikaina!* Gezur

pila!... mus... zuk ez duzu ezer esaten ala?! Benetan, ez zaitut ulertzen. Tira, utzi meditazioak eta jokora... bost handira... entzun duzu esaten dutena? Bai, zerbitzua luzatzearena kanpoan gertatzen ari den mobida bati aurre egiteko estrategia bat dela eta guzti hori... enbido txikira... morroirik gabe gelditzeko beldurrez egongo dira eta. Imajinatu, bezerorik gabeko borreroaren itxura hartuko lukete... joder! Pareak ederrak!... desobedientzia. Arinago jakin izan bagenu! Ziur oraindik ere zerbait egin genezakela. Mugitzeko prest egongo zara, ez da?... paso... kontuz! Kapitaina zetorrek-eta!... Ostia! Irabazten ari nintzenean!

Kaka! Zertan ari zara horrekin?! Zer... ez zara ba... zu ez zaude ondo burutik. Utzi hori, joder! Ziur ondo pentsatu duzula? Ezin duzula gehiago?! Ni ere nazkatuta nago... eta norekin zoaz? Ez zaituztete bakean utziko. Ez diozu beldurrik?... Zuen erabakia da. Agian hau da hasierarako lehen pausoa. Heriotza ezin daiteke honekin konparatu, lagun. Goraintziak erreginari zure partetik.

Ongi etorri. Hominidoen familiako primate arrazoidunen protesta sozialeko mugimenduan sartzera zoaz. Mugaz beste aldean, esan beharreko guztia esateko eskubidea berreskuratuko duzu, eta zure askatasuna indarberritzeko lehen pausoa emanda egongo da. Kanpora itzazu zure ideia eta burutazioak, eta sartu lore usaina eguneroko gauza den lagunarte honetara. Zutitu gara. Goizeko zortziak dira eta utzi gerrak Historiako liburuetarako. Mila esker.

POESIA. A maila

BBBko 3. kurtsoa, UBI
LHko 2. gradua eta
IEEko 2. zikloa

Orkidea beltza

Ekhiñe Egiguren Azkune
Sto. Tomas lizeoa
Donostia

«Bizitzak zizelatutako poema guztiak
izkribatuko balira;
hitzak harlausetako arraildurak gaindi
ihartuko lirateke tren geltokietan
eta heriotza
—azken bagoiko neska gazte hori —
metafora hutsal bat izango litzateke
gutxietsitako elaberri baten azken
paragrafoan bortizki urkaturik».

Atzazal doilorrez urratzen dira isiltasunaren sorbaldak
arratsak sargori beren pisuaz abailtzen direnean,
denbora karminez tindatutako sedukzio merkea da;
horregatik dago geltokia hutsik,
orenak ortuzik pasiatzen direlako burdinezko trenbideetan,
lehiatiletako begiradak likaz blaitzen direlako eta
betiko iragarkiak daudelako hormetan,
zuri beltzeko erretratu batean,
arpegiera perfektu eta giharre irmo batzuk hordituta
gogaituta beren algara bortxatuaz,
zimurtuta izkina likits batean.
Bakardadeak gladiolo bat darama eskuetan,
petalo garden bakoitzeko bidaiari bat sartu da trenera,
arantza imajinarioek zauriak zarratu dituzte azal zurian eta
petrilean bost odol tanta pausatu dira, maiatzaren esklabu.

LEHENENGO BIDAIARIA: NADINE WARNER

Estraineko bagoian murtxikatzen dun zapore hitseko txikle kolorgea,
ohartu al haiz ... ? Hire bularrek hamasei urteren gordintasuna
aitortzen dinate oraindik alkandora laru horren pean;
liburu bat dun eskuetan eta buruz dakizkin kapituloak,
hire gauak uztartu ditinate azken hilabeteotan.
Ohartu al haiz ... ? Malenkoniatan itotzen dun hire soa,
edo nostaljia, edo damua, edo negarraren pisua masail zurietan behera.

Anpuluak egurrezko zolura abailtzen ditun eta sikatu.
Saminak ez din iragana deusezten. Ez ditin ahazten
bankuetan utzitako laztanak eta ilunean islatutako musu hezeak.
Abenidetan galbideratu dun mutil haren maitatzeko modua,
zertarako oroitu ... ? Hiretzako hitunan larrosa guztiak
logela alokatuetan bortxatu ditinate.

Ez al haiz ohartu ... ? Errealitatea ez dun beirazko kitarra bat
eta amodioa ez zinan Bogart-ek deskubritu
taxi batean eta zigarro bat erretzen.
Nahi badun kotoizko sehaskak egingo ditinagu egunkari orriekin,
klarionaz estaliko geltokietako eserlekuak eta
panpinak egin kurtinekin,
soinekoak eta oinetako nimiñoak ospitaleetako izarekin.
Azken eskutitz bat izkribatuko dion amari,
ez haizela gehiago azalduko, haurdun hagoela,
baina ez larritzeko, bidaia luze batean sustraituko dunala hire bizitza berria.
Nadine Warner izen aproposa dun, edo nahiago dun Michelle ... .

BIGARREN BIDAIARIA: GIULIO CANETTI

Jada hogeita zortzi paisaia utzi ditu trenak atzean,
orduek eta bagoiek aurrera egiten dute trenbidean,
urrats bakoitza burni hotsez hausnartzen,
eserleku zokoratu batean italiar bigotedunak kafea hartu berri du.
Poema bat izkribatu du paperezko serbileta batean,
– ala sujerentzi labur bat zen ... ? –
leihotik at libro utzi eta haizeak metalezko kolometan nola eskegi duen ikusi;
usapal bi pasa ohi dira arratsero, ahapaldi hits horiek jasotzera.

Giulio Canetti-k, saxoaz,
ortzi laranjan dibujatuko lituzke ezagututako gizonen izenak,
Joplin joko luke, baina ... *Romeo and Juliet* soilean gelditu behar,
melodia arras arruntez asetu behar monotoniaren eskala absurdoak.
«Eta zu zergatik zara homosexuala?» itaundu zioten
irratsaio batean behin eta isilune esanguratsu batek
audientzi espektatibak igo zituen.
Geroztik, egunkarietako hizki guztiak ebakitzen ditu,
mosaikoak egiteko maitaleen logeletan.

Hogeita zortzi arrazoi egon litezke,
hogeita zortzi erantzun eta hogeita zortzi galdera,
hogeita zortzi mosaiko, paisaien antzera atzean utziaz,
hogeita zortzi joko, gau eta gizon,
hogeita zortzi esku ilargierdiko bizkarretan behera,
izerdi tantoak eta kriseiluak amatatuko dituzten belarrira esandako sekretuak.
Egon litezke hogeita zortzi maitale ....
Hogeita zortzi Giulio.

HIRUGARREN ETA LAUGARREN BIDAIARIAK: DUBRAVKA DIMITROVA ETA VLADIMIR UGRESIC

Bi orein dabiltza izarrekin jolasean hodeiertzeko laku finituetan,
ihesi doaz, hirien marmolezko atzaparretatik urrunduz,
bi zorroetan bildu dituzte oroitzapenetan linburtutako erretratu larutuak,
bi gazte, bagoi bakarti batean, begirada jolastiak gurutzatuz,
bi hitz amodiozko, bi irribarre, bi musu eta fereka bat Dubravka-ren
masailetan.

Ekia bidertzeko belazeetan oheratu da gaur, izpi urri batzuk utzi ditu soilik,
leihoetatik itzal moreak behatu dituzte zuhaitzen altzoan,
bikote batek laino guztiak zulatuko lituzke, baina ez dago gezirik
eta aingeruak ez dira sekula puntualak izan.
«Institutoko eskilaretan ahaztu nituen zure gutunak, Vladimir ...»;
«... Neruda-ren hitzak ziren ... »;
«Esaizkidazu orain, xuxurlaka, ... »;
«. . . *Para que tú me oigas / mis palabras ...* ».

Inspektore mehar bat igaro da beltzez jantzita eta
ahapaldiak eskatu ditu, ebaki ditu itzulerarik gabeko
bidaia baten poema plajiatuak.
Gauak bi maitale idoro ditu egurrezko zoluan, kristalezko
izaretan bilduta,
ezpainak desiretan biluzten, uzten brisarak eroan ditzan
gorputz zuriak ilunean islatzera.

BOSGARREN BIDAIARIA: SIGMUND BLOMSTEDT

«Heriotza dator azken bagoian, ezpain beltzak ditu eta hutsik daude
bere begizuloak, ez du eskurik, ez du bihotzik,
labana bat du soilik soineko beltzaren azpian.
Nire bila dator. Badakit. Baina ez diot beldurrik.
Whisky botila batekin ospatuko dut gaur ezkontza funebre hau.
Nirekin maitemindu da. Badakit. Baina ez diot beldurrik.
Hauts zuri gramo batzuekin poztuko ditut zainak.
Kuraiaz hordituko naiz eta arnastuko ditut bizitzaren errautsak,
ez nau idoroko, izen garden bat izango naiz, zurezko kanposantu batean.
Bakarne, ... zergatik utzi ninduzun hain bakarrik?

Karriketan galdu dira gure semeak, eta nork isuri behar ditu gaur malkoak,
nork eroango du nire gorpua suaren erreinuetako zurubietan behera.
Galerazi egin dituzte suizidioaren aretoetan antzeztutako bizitzak,
ihes egin nahi dut, baina nondik eta nora ... .
Hotzikarez uzkurtzen da trena eta whisky botilak zure antza hartu du,
izen eskoziar bat itsatsi dizute adats gotorretan,
ez ezazu hitzik ere esan, edonork entzun liezazuke,
eta heriotza azken bagoian dator, ezpain beltzak ditu eta hutsik daude
bere begizuloak, ez du eskurik, ez du bihotzik,
zilarrezko labanaz izoztu dizkit birikak, blaitu dizkit erraiak.»

SEIGARREN BIDAIARIA: MONIQUE KLARWEIN

Isiltasuna kontrabandoko zigarro bat da, Monique-k ezpainetaratu duena,
Liszt-en obra bat jo du norbaitek piano beltz batean,
andereak egunkaria irakurri du eta leihotik begira jarri da gero,
trenaren joanak isiltasuna hozten du eta
arnaskada luzeagoak hartu behar ditu Monique-k,
arpegioz gogaituko zaio hatsa bestela.

Kaiera zimurtu baten orriak igaro ditu haize bolada batek eserleku batean,
eguneroko bat gehiago, ausentziazko lumaz izkribaturik.
Metalezko hautsontzi batean amatatu da kontrabandoko zigarroa, malko batek
tristuraz ireki ditu bere ildoak hitzen gainean. Bakardadea hemezortzi urteko
soldadu bat da eta gerra egingo luke erromantizismo merke horren nota biguinekin.

Monique, kosmetikoz lizundutako arpegierak eta lurrin garesti bat.
Larrosa ihartu bat kaiera baten orri artean.
Soldadu bat kontrabandoko zigarro bat egiten.
Emakume heldu bat, denboraren pitzadurak klepsidretan hausnartzen.

Orkidea beltz bat hazten da tren geltoki bakoitzean,
joandakoek ereiten dituzte haziak, guk mantendu ditzagun,
datozenek jaso ditzaten fruituak.
Orkidea beltz bat ez da izkribatzen, ez da ihartutako poema bat ... .
Ez da haurren begietako irrika,
ez da katez hornitutako emakumea.
Orkidea beltz bat izan liteke haurdun dagoen neska bat,
homosexual bat, bikote gazte bat, galtzaile bat edo
idazle ezezagun bat, ahapaldiak trenkatzen.

Orkidea beltz batek atzazal doilorrez urratu litzake
isiltasunaren sorbaldak,
arratsak sargori beren pisuaz abailtzen direnean,
denbora izan liteke karminez tindatutako sedukzio merkea eta
akaso horregatik daude geltokiak hutsik.

«Orkidea beltza idazle baten arnasa da;
bizitzak gazitutako zauria:
kezko seinale ttipi bat literaturaren trokarteetan».

Amodioaren frentean hildako azken soldaduari

Iñigo Iruretagoiena Agirrezabalaga
Lizardi institutua
Zarautz

I

Ezpainak
amodioaren frentean leherturen badira
gudu egin nahi dut
hil arte
izarapeko lubakietan
odolustu arte
        gorrotoz
tirokaturen ditut
ene bihotza bonbakatu nahi duten
zure obus-begiradak
zure begien esentzia irentsiz
zeru urdina are urdinago eginen duen
eztanda biluztuz
    minaren berri ez duenak
ez baitu zorionik ezagutzen

konkistarako lur dira
zure haragi sutuak
eta zizpa mutuak
zinezko garaipenik ez da
ordea
galtzaile bat den lekuan
biren garaipena behar du izan
amodioaren guduak
eta nik
badakit
bakardadearen galoiz
eta desamorioaren dominez kondekoratua
lau haizetara inarrosiz
arnas emanen diodala azpiratuen ikurrinari
baina
ezpainak
amodioaren frentean leherturen badira
gudua egin nahi dut
hil arte
izarpeko lubakietan
odolustu arte
bederen.

II

Gaur gauez
etengabe gorantz eta gorantz doan
tabernako aire ketuaren erdian topatu zaitut
eta ezinbesteko magnetismo itsuan
zure gerrien espiralak
irentsi dizkit
begi biak
bat-batean
izar irribartsuen bila
kezko lainoak gaindi
inar bakarrak itsutu
bi begirada hegalari baino ez gara
eta laister
poz bakarren bi irribarre

tabernatik irten eta
neguaren konkista bilakatu berri den hirian
espaloi deslaiaren alfonbra zurian izkiriatu
ihes bakarraren urratsak argiztatzen ditu farolak
urrats artegak
gauaren polikromian difuminatzen direnak
ZU eta NI
biok BAT
teilatupe bereko
neke bakarraren bi arnas-estu
sentipen bakarraren bi hasperen
gorputz bakarraren bi haragi
hiriaren hipnosian
iparra hegoan urtu da une batez.

III

Txuriz jantzi dituzu ene arimaren teilak
eta aterbea ez da
elurraren beste konkista bat baino
agur eta malkoz basitu begirada zuri baino
– hurbildu ahala urruntzen den zeru-muga deslaia –
ene bihotz hormatuaren ortze eskegitik
hegorik gabeko koartzek ene izena daramate mokotik
zure ezpainen amildegira linburtzen direnean
(balizko amodio ororen ezinbesteko amaiera den
betiereko bakardadearen ugaldera)
eta behin zure bizkarreko uhinetan itsaskatu esku dardartiok
ahazturaren arraldean naufragatu dute
malko gazien urmaelean itotzeko haizea ferekatzen duteino
itxaropenaren kriseilua ez da ordea
erabat itzalia malko gazien olatupetan

elur eta izotzen gibelean
bada iraungi ez den txinparta bat
oraindik bere burua maite duen koartzaren saihets artean
eta irribarre bat baino are gehiago
kanpai-lore bat ernetzen da zure bularrean
denbora eta amodioren ibilbide zirkularrean..

enea izanen zara
menturaz bihar
zure begi urdinen begirada sorgindua
etsipenaren ene poema ahituetan abesten dudanean
olinpoko jinko ahalguztidunek poseidonen bizar zurietatik
beren buruak urkatzea deliberatzen dutenean
ekiak eguneroko bere hobiratzean inularraren matel odolduak
musu hezez dastatzen dituenean irribarrearen mugetan
gauaren belztasunaren ostean ortzeko ohe ikatzeztatuan
ilargia eta artizarrak amodioa egiten dutenean

menturaz bihar
infernuak parabisua irensten duenean algara hotzez
deabruek aingeruekin amets egiten dutenean amesgaiztoz horditurik
epaileek gartzelatik ematen dutenean hondar sententzia
eta erahilketa leporatu dioten hobenduna
hogeita hamar urteko askatasunera kondenatzen dutenean
menturaz bihar
kaiman maiteminduek behelainoak irentsi zingirak utzi eta
ortzadarraren zazpi lerroetan amodiozko poemak idazten dituztenean
menturaz bihar
oroitzapen gozoz basitu iragana
lehenalditik etorkizunera ihesi joaten denean bidez erratu zelako
koartza hego-lumazuriek beren buruaz beste egin zuten gau hartan
menturaz bihar
zure irribarreak zinezkoak direnean
maite

Txuriz jantzi dituzu ene arimaren teilak
teila hormatu bakoitza bizitako zirrara bat da
teila bakoitza aterbe bat
izoztutako aterbe bat
oroiminaren konkista bat
agur eta malko bat
galdutako erresuma oso bat
nehoiz ez zara ostera enea izanen
zure begi urdinen begirada sorgindua
etsipenaren ene poema ahituetan abesten badut ere
olinpoko jinko ahalguztidunek poseidonen bizar zurietatik
beren buruak urkatzea deliberatzen badute ere
kanpai-lorearen lurrina hutsala baita elurpean
koartza hilaren malura bezalaxe
eta
izarapeko lubaki urrun haietan
iparrik ez baitugu berriz hegoan urturen une batez bada ere
maite

gaur amodioaren frenteak beste izen anonimo bat
gehitu dio guduan eroritakoen zerrendari
bart
zerua lurraren bizkarrera odolusten den garaian
bere buruaz beste egin zuen soldaduarena
maite.

Abazuzien pien

Urtzi Urrutikoetxea Vacas
Gabriel Aresti institutua
Bilbo

NOSTALGIA

asagoko ziutatean egunak larregi
laburtzen direla iruditzen zait
hotz larregi datozela enetzat
hemengo parkeak egunero zaizkit
egutegi ez dago oreinik jada eta
leiz idor datzate urmaelak

baina 90 metro karratuko pisuko
ezkaratzeko paretan
philips microwave oven
gainean antigoaleko kalendaridxo bat
mantentzen dut

goizero diost gaurko lez
udagoiena dela leihora hurbiltzeke

udagoiena da zazpigarren udagoiena
mundutik lekora

orrialde psikodelikoak ditu ene
zortzi hizkuntzatako egutegiak
baina goizero bizkaiko argazkiak
zituen hura gogoratzen dit
ez nien sekula erreparatu
arrain usaina zerien fotografia haiei
idi bi haien akuilulariari
edo artxandatik gaube argiz
koxitako infinitoari

gaur ere beharbada orduan
lez inor ohartzeke abiatuko
nintzateke udagoieneko egunsenti batez
gure uriko etxe pilatuei
asfaltoak zapaldu dituen baserriei (sic!)
eta ortzemuga itsutzen duten tontorrei
lepoa harro emanez
auskalo

baina zazpi urterik behin
udagoieneko hotzak irentsi aurretik
ketarteko tontorrak
a-8ak botako zidan etxeaz
itsasoak leuntzen zuen hotz xuabe
hartaz oroitzea
zilegi bekit

goizero leiho ertzetik so
pozik nahasten naiz
leiho ertzetik seinak
eskolatzen dakuskit
triste pozik ikusten ditut
sumatzen ditut elkarrekin
leiho ertzetik kanpora so
kanpoan neu nagoenaz jabetuz

han asago utzi nituen
haiek baino gehiago
igoal ez dut inon lekurik izanen
baina hemen orok dakite oro
eta etxean neuk bakarrik
etxekoek maite ninduten
eta nik ere asko *gur 'otziet.*

baina etxean banengo lez
neuk bakarrik dakit hori

AMAITU BAKO GRAFFITIEK

Amaitu bako graffitiek lohitzen digute ziutatea.
Beharbada, sprayak amaitu aurretik amaituko ziren.
Baina ez dut uste.
Poesia sozialaz mintzo da jendea.
Hotza. Euria.
Kale kantoietatik, izua sumatzen da.
Temati dabiltza lanean kalegarbitzaileak begirada indiskretoak ezin uxatuz.
Euripean.
Uniformedunak jagoten, euripean.
Behin eta berriro madarikatzen dute.
Euria. Hotza.

Izua hedatzen dute eta izuti dabiltza.

Libertatez lohitutako hormak izuz garbitzen dituzte.

Desolamenduz aratz, merezi dua? hausnartzeko indarge.

Gatiloan labantzen zaie hatzamarra.

Txaleko antibalasa ez da inpermeablea.

Hotza. Euria.

Hormak mutu, pintura zuria ezin da paretean lotu.

Irristakor doa beherantz, ihesi.

Furgonetek sirenez garbitzen dute ziutatea.

Graffiti berri bat atzeman dute ondoko auzoan, pintura oraindik sikatzeke.

Hotza. Euria.

Herioaz maitemintzean

Leire Bilbao Barruetabeña
Ondarroako institutua
Ondarroa

Paretean gora doan
huntzak bezala
harrapatzen dituzunean
ene gorputz atalak,
ez dut ULERTZEN
nola izan dezakezun
hainbat goxotasun
eta laztasun
une berean.

Zure kanpai hotsak
entzuten ditudanean
ez DUT ulertzen
nola erakartzen
eta beldurtzen nauten
une berean.

Ez dut ulertzen
ZERGATIK aukeratu
nauzun; nor eta ni.
Baina zure pozoia
dastatzera eman zenidanetik,
MAITE zaitut.

Erasan ezin
dezakedan zirrara
sortzen dit
zure ukituak,
horditurik uzten nau
zure begiradak...
Airearekin bat eginik
nire arnasa lapurtu nahian
nozitzen ZAITUDAN bakoitzean,
konturatzeke aurkitzen naiz
gorriz tindaturiko
latsaren gainean
itotzen doan
txaluparen erramuak
ezin gidatuaz.

Mirailek ez dute nire irudirik isladatu nahi...
Ordularien orratzen
tik-takak abiadura
desberdinean entzuten
ditut denboraren espazioan
linburtzen naizenean;
Ez dakit ene irudimenaren
frutu edo zure egia
gordinaren ziurtagiri diren.

Zure ulu urratuek
zabulka jartzen dituzte
nire xede guztiak.
Arren,
gupida zaitez
txontxongilo honetaz,
jolastu ezazu
bere hariekin,
zure oinpea musukatzeko
irrikitan dago eta!
Arren,
hariak bihurtu
itzazu soka sendo
eta tiratu ezazu,
leunki baina onedeki,
premiaz dago eta!
Arren,
soka etetean,
burnizko kateak
hartu itzazu,
zure maitasunarengatik
heriotzaren zerua zapaltzeko
antsiaz dago eta!

Astirik galdu gabe
haziz doan
ene desioen baratzean
landatu duzun
larrosa beltzak,
neurri handiegia dauka
ene barrena ez lehertzeko
eta petalo beltzen artean
ohaide hartuko ninduzun
itxoitea laster amaituko
dela ziurtatzen dizut.
Horregatik,
linbora eramanen
nauzulako itxaropenean,
ene arima zartatua
eskaintzen dizut,
ebatsi didazunetik gain,
ezer askorik gelditzen
ez delakoan.

Udaberrian loreek
beraien petaloak
eme-emeki irekitzen
dituzten bezala
irekiko ditut
ene begiak,
zure argiaren lilurak
betiko itsu utzi ez nazan...

20 eta 12

Mikel Peruarena Ansa
Agustin Iturriaga institutua
Hernani

BaDiTuK 1001 ARraZoi

IzurRatuTa EGOtEKo,

bAInA GauZa BaTek

IzurRatzen nAik bENeTan.

BA aL dAKiK zEr **IKUSI**

dUdAN tELEbIStAN?

BaI?

IKUSI AL dUK?

Ez?

bA

SoLDaDu bAT IKUSI dIAT,

hil tzennnnnnn

tzeeeeennn

hiiiil tzen

hiiiil tzeeeennnn

hiiiil tzzzeeennn

BA

baI,

hALAXe IKUSI dIAt.

BAt-batEAn,

bALA

bat agertu

agerrrrrrtu duk

dukkkkkk.

KK

{Ezerrez Hemendik; Ezerrez HandiK Eta, Bat-batean,

Ta, Tan!! S.O.S.presa}

ta, ta, ta,

eta tanke barruan

eta blaust

eta erori.

ETzEKiaT Non osTiaTik SarTu ZaiOk bALA

etA GeRo

LURrEaN IKUSI diat,

MATRAiLEZUr dEFORmAtUareKIN,

BaieTZ

BA,

EgiA

dEla,

bEGI hAUExeKIn

IKUSI DIAT.

beGI hAueXeKin

IKUSI DITIAT

beRe BEgIAK

zĘrUrA

BEGIrA,

ETa EsANgo nIkEK

bERe bEGiEk ZEUkaTela

zeRUAri Falta zItZaiOn

kOLorE uRDina

{vientos fríos del interior(...) temperaturas frías(...) nieve a partir de los 2000 (...) inviernos muy fríos(...) lluvias estivales...}

izAn ErE hIk badAKIk
«iUgoESLabia OhIA»
dELAKoan gerLaN daudElA

{datos de 1981: serbios, 36%; croatas, 20%; eslovenos, 7,8%; macedonios, + del 5%; montenegrinos y minorías albanesas, magiares y turcas}

Ez?

BA «CAscos AzulEs» fRaNtseseTakO
bat OmeN zuAN.
baDakIK ZeR dEN HOri?

EtA hI eNtErAtu BaRik,
giZagaIxoa.
ETa nI ULe hAUekIn,
KoiTtaDua.

eTA eZEtZ AsMAtU

ZEr PentSaTu DiaDan MeMENtU horRETan?

EZin aSMAtu,

Ez?

BA

pentSaTU dIAT:

«zE ARraiO; beRaK biLaTU diK. frAnTsEs alu hauek dItUK KoLONiaK EsPlOTaTzen dItUZtENAk. 3. muNduAn armAK sALDu eTa hiLdakoEN kONTuRa ABeRAStU; EZ diTEK HerIOtZA BeRtZerIK mERezi».

ETA BeRriRo

IKUSI dITiat

BEre beGIak

enE BEGIEkin,

NeNe bEgIAK

zeRura so

aingeRueKin AMeTS gOXo

EtA imAjIna aldaTU DitEk

eTA eZer DiriJITZeN eZ dakIEN

« dIRiJenTe »

hoRiETaKo baT

aZaLdu dUK.

BeHArbaDA fRaNtZIarRa,

EZ ZEKlaT.

zIDaK

EmaN

nAzka

ETa **OSPA!**

egin Diat.

zE,

bA AL Dakik

zEr dEN NAzkA?

naZka duK,

traJEAtutAKo

tIpo bAtEK

GazTEAK

GErLARA

BIDaltZeA,

POsTARIak eSKUTITzAK BAnatZEn DITueN beZalA.

nAzkA dUk,

sOLdaDu

gazTEaReN

maTraIlEzUR deFoRMAtua ikusteA

Eta GEro hIl egiN deLA jAKiTeA

UlerTzEn Ez zueN

geRlA BATEan,

TrajEaTURIko

tIpO BATek hARaNTza bidali ZuelaKo.

NaZka DUk,

HILDaKO

soldADu

gaZteA,

ULeRTZEN Ez Zuen

GErLa bateRa,

BIdali zUEN

tipo TrajEATUa

TelEBisTAN AgeRtzea,

«mEdIDa uRGeNte»-AK EskATUAZ.

eta bERrIRO

PenTSatU dIAt.

eTA IrUdItU ZaidAK

ARRAZoiA NEuKAla

GAuza PARe BateAn izAn eZIk:

– GAzteaK ez ziaN BIlaTU;

TipO trAjeATUak hIl bEhaR ZIaN.

– GAzteAK EZ ZeUkeaN

zErTan gErlarA jOAn;

gaZteAk ez ZEuKEan

ZeRtAn SoLdADuSkarA jOAN.

HERRI ZAPALDU
ETA TXIROEN ZAPALKETA
ETA TXIROKERIAK

(ez diat ulertzen txirotasun hitzaren izaitea)

AREAGOTZEN DITUZTEN EJERZITOEI
INTSUMISIOA

POESIA. B maila

BBBko 1. eta 2. kurtsoa,
LHko 1. gradua eta
IEEko 1. zikloa

Zure xerka

Mikel Ayllón Corral
Aiala Kantzelaria institutua
Laudio

AMORANTE BI PARKEAN

Atzo,
parkean bi amorante
eskutik helduta, berriketan;
norbanakoaren unibertsoa nondik norakoa den
jakin nahian.

Bart, bi amorante parkean
mosu ezti eta besarkada amoltsuez
arras hordituak,
euren unibertso taigabean ostendurik.

Gaur,
amorante parkean bi
horietarik bat,
udazkeneko orbel zapalduaren gainean akituta,
unibertsoarekin larregi jolasteagatik
hilda.

Bihar,
amorante bakarra parkean
deslai,
negar anpuluak begietan eta arima ezerezean amiltzear;
bizirik bai, baina bere bakardadean
hilda.

MAITE IZAN AL DUZU INOIZ BENETAN?

Putetxe zikin bateko
logela tipian,
gorputz higatu baten gainean,
ilusio anitzez beteriko
bertze bat,
lizunkerietan.

Ohe zuri estuan
neska gaztea
eta
gizon edadetua,
gora ta behera,
sartu-atera
etengabean.

Maitasunaren zirrara ahantzita
sexuarena sentitu ostean,
«Adio!» zakar batekin
badoa,
euri hotzak blaiturik
karrika huts eta ilunetan
galduz.

Etxera bueltan
emazte lodi eta zaharra
du kausitu;
ohean bizkarra eman dio
nazkatuta (edo apika, akituta)
eta bere buruari
beldurrez,
dio itaundu:
maite izan al duzu inoiz benetan?

BESTE ALDEAN

Lehio bustiaren alde batean,
aurpegi gatibu bat
negarrez.
Euri tantak aurpegian zehar,
negar-anpuluak lehioan irristatuz.

Beste aldean...
askatasuna.

Gogoratzen haiz

Nagore Amondarain Ipiña
Arratia institutua
Igorre

Gure antzeko
egin dituzte denak,
emakume, haur
zorigaiztoko bakarti...

Eroen izenen gotorlekuan
ahaztu gaituzte,
noizbait
zapaltzaile hitza jarri baitziguten,
irekitako eguzkilorearen
antzera jokatu beharrean gaude,
irekiegi edo hetsiegi.

Bizi garen galdetzen dute
guk konposatuak ziren erritmoak
entzutean,
dastatzean,
«egunetik egunera
hiltzera noa eta...»
begiak lausotzean.

Erraldoien sabelean
bizi ginen,
sabeleko erraldoiak izaki.
Gure entzuleekin solasean
irakatsi ziguten karrika haiek.
Azken aldian, azken aldian...
ortozik genbiltzan.

Gorputza lurrean botata
goizaldeko euriak garbitu
egiten gintuen,
gorputzak lurrean botata.

Soinua besapean hartu
eta pago adaxka gazteak
emateko beldur
artilea lortu genuen.

Ahantzi egin nahi dugu
oraina,
eta agurrari begirik ez eman;
eromen zirraragarriak
hainbat kamarada astindu dizkigu.
Beldurrari beldurra
hilzoria burmuinean.

Egin lo etenik gabe
bidegurutzean denok
elkarrekin topo egin arte,
eta kantuek bidaia amaibakoan
babestuko gaituzte
«noizbait joango ginen Jamaikara?»
bidezidorretik barrena.

Gogoratzen haiz ze ondo
pasatzen genian
kriston martxa zegoen
sasoi ilun haietan.
Lasai, lasai egin lo
etenik gabe,
zirkinik gabe, desager gaitezkeela
jabetu gabe,
hala ere inor ahantzi gabe,
E
T
E
N
A
.
.
.....

Pentsamenduak

Idurre Amozarrain Mendizabal
Arrasateko institutua
Arrasate

Izen bat jarri beharraren premian
gartzela izendatu zuten
gelaska giltzapetu honen
sabai zikin eta zahartuaren
puntu txikiren batean
begirada galdurik,
ene pentsamenduetan erabat
murgiltzen naiz.

Denboraren poderioz horixka
gelditu diren orrien artetik
idazteko doi-doi balio duen
boligrafo sinple bat hartu
eta ihaulitako paperetan igurtziz
idaztera animatzen naiz.

Oraindik ez dakit
zer eta zeini idatzi,
baina nire barneko indarren batek
behartzen nau egitera.

Agian aspaldiko bizitza
apurtu baten zatiei buruz,
edo agian
ia galduriko esperantza
zahar bati buruz
idaztera mugatuko naiz.

Zulo beltz eta ilun honetatik
irtetzeko esperantzak ia agorturik,
zutaz pentsatzen hasten naiz,
zu baitzara
nire gaudimen bakarra,
era berean
nire malkoak kanporatzeko
arrazoi nagusia.

Oheratzean,
zu zaitut pentsamendu sakonenean;
esnatzean,
begi bustiek isuritako
ttantta horiek sentitzean,
beti amets dudanak
beste egun bat, urteak bailiran,
itxoin beharra izango duela
oroitzen naiz.

Eguneroko ametsa da,
koloretako mundu zoragarri
baina gezurti bateko errutina.
Askatasuna lapurtu didate,
zu edo beste edonorekin
egoteko aukera,
familiaren giro goxoa
dastatzeko parada.
Baina nire denbora hila
zugan pentsatzen asetzeko ahalmena
inork ezingo dit ebatsi.

Orain,
nire bi begi tristeez
ikusi ez arren,
ametsetan begiratzen baitzaitut,
zurekin aurrez aurre
hitz egin ez arren,
zure xuxurlak entzuten ditut
eta zuk ni ukitu ez arren,
zure laztan eta igurtziak
sentitzen ditut.

Hemen barruko egoera tamalgarriak
poliki-poliki hiltzen nau,
ekaitzaren erdian
ikusmuga horretan bukaturiko
itsasoan dihoan untzia bezala,
maitasun faltaz ximelduriko
arrosa ederraren antzera,
haur errugabeari esku txikietatik
irrist egindako eta
begibistatik urrundutako
puxikaren gisa.

Krudelkeriaren zedarri guztiak
gainditu eta jadanik
atzean utzita dauzkate
hemen preso nautenek,
baina hauei axola ez zaiela dirudi.

Begiak zabal-zabalik
ikusten baitute nola
nire bizitzako ordu jasangaitz hauek
egun pairaezin batzuk balira bezala
eta egun hauek
urte kondenatuen modura
emeki-emeki igarotzen diren,
eta kupidarik gabeko denbora honek
nola geldiro
baina atsedenaldirik gabe
hiltzen nauen.

Dagoeneko paper horixkak
tinta ahul batez
estali dira,
nire sentimenduen ispilu den
hitz eta esaldiez osaturiko
estalki batez.

Pentsamendu sakon hauek
malkoz betetako
putzu ilun batean
itotzen naute,
baina ezertarako
indarrik gabe utzi arren,
lur jota utzi arren,
zugan pentsatzen jarraitzen dut.
Bai, maitia,
zugan pentsatzen.

Amodioaren desterruan

Leire Beloki Lizarralde
Xabier Zubiri institutua
Donostia

AMODIOAREN DESTERRUAN

«Ilunbetan, zigarroa ahoan,
poxpolua biztu zuenean,
suak aurpegia argitzen ziola;
berun errafagek zulatu zuten
gauerdiaren oihala».

Joseba Sarrionaindia

Urrin ikusten zintudan ene paradisuaren desterruan...
zetazko soineko gorri baten gerizan
aienatuz, zure irudi perfektuaren
salatariei muzin eginez.

Beste mundu baten atarian baina urrin
soma nitzakeen
zure presentziaren lorratzak
izana eta ez izanaren atxakia murritzaren orratzak.

Zure gorputz pinpirinak goimailako modelo
baten parera lerratzen zintuen
eta zure portzelana koloreko aurpegikerak
estatiko bihurtarazi.

Inolaz ere, haragizko izatetik urrin,
begirakune finko eta hotzaren lagun
Sikira uki bazintzaket eta nolabait eskura
zure berotasun xaloaren esentzia...

Dena lekuz kanpo nire bihotzean
Urrin, zure zetazko soinekoa
alderik liluragarrienen kobazuloaren sarrera
Zure fantasiaren hizkirimiriarengan heterodoxo.

Diamante eta urregorriek zizelatzen zuten
zure azal leuna, estakururik gabea
Eta transparentziaren makropolian
higiarazi zure eufemismo perfumatuaren enkantua

Begiratu ninduzun mila kolore okreren bueltan
niri, arropa zarpailez josiriko arlote honi
Eta umildu nintzaizun, zure zientziaren
monopolio hebainduan.

Etorri, etorri...

Bi ele eta bi losintxa, zuri eta
niri, bi ezezagunen armonian –kalenturan–
erresuminaren kalderan
Kimeraren zirrara amestuak.

Urrin, adin finko baten mugarrietatik at,
amodio kalaren anakronismoan amandre bilakaturik
ene begirada iheskorraren altzoan
zetazko soineko gorri baten transferentzian.

DESTINOA

Bi lagun eriden nituen
ohantze samurrean
etzanik, zilipurdika
gaueko izara mengelei besarkatuta
gaueko izar ironikoei intzirika.
Muxu bat, muxu bi
eta amodioaren krudeltasun
muxinean aitzindari.

Eta han, urrin, leihoari perpendikularrean
zetazko soineko gorri bat nekusan
botata, zimurtuta...

– Eta nola esplika nezake iradokizun
honen inozentziaren apologia?

Bi argi foko areto osoan
bi errainu eta bi lili
Urrin ordea, perfekzioaren
eta askatasunaren armarrietatik.

Haize hegoak ekarri zituen
ohantze lauera –singlera–
xerkatuz, nolabait
euren dinamika berantetsiaren oreka.

Bilatu zintuen –arropa zarpailez josiriko
arlote trabes horrek–
kobazuloaren sarrerara urreratuz
eta zure mentura ate joka hasi.

FRAKASOA

Baina...
Zure melodiaren armonian
dantza zirrian jardun
zure paradoxan
sartu-irten bat egin
klandestinitatearen lur eremuan
mila joku, mila hitz
eta atsotitz
xuxurlatu ostean.

Aidanez...
Ezarian-ezarian
ostendu zitzaizun
zetazko soineko
gorriaren gerizan...
kobazuloko zoko-moko oro
miatu ostean
malenkoniaren zertzelada
zizeladura tristean
Mila hogerleko bipilen peskizan.

ZETAZKO SOINEKO GORRIZ JANTZIRIKO EMAGALDUA

Eta zure ludi partikularra babestu nahian
atorra zuri bat jantzi zenuen...
Titi koxkorrak ondo baino hobeto
nabarmenduaraziz...
Pasadizu sekretuko hitzaurrean
bi gortinen zirrikituan
mila koloreko paradisuaren konfinetan
maiteminaren eldarnioak enoratuz.

Eta zure profeta ibilbideko
bidegurutzean kale egin zenuen...
Amodioa karrika izkinean preseski azaldu zitzaizunean
edo argi foko gorriz josiriko eskaparatean
etsipenaren ilusio galduaz begiratu ninduzunean
edo erotismoaren ildotik mingaina
atera eta maletadun gizonei
zuzentzen zintzaizkienean.

Ez zenuen sekula santan
onartu plazerra eta maitasuna
ez zirela bat
desioa eta pasioa bere homogeneoan
ez diren bezala.
Eta ni, arropa zarpailez josiriko arlote hau,
maletadun gizon urde nazkanteekin
alderatu ninduzun, mila hogerleko bipilen peskizan.

Eta zure destinoa
iluntasuneko bi argi fokoren
jirabiran jokatu zen,
kasinoetako hamaika neskatila
inuxenteren antzera.

Mila eta bat
fantasiaren jakinaren gainean
eta beste hainbeste
jantzi-erantziren baitan
ohantze mazalean
zilipurdika
gaueko mihise mengelei besarkatuta
bi hitz xuxurlatu nizkizun ahopeka
zuri,
zetazko soineko gorria
leihoari perpendikularrean zetzanean.

...Maite zaitut...

Eta zuk alde egin zenuen
olgetan ari nintzelakoan
zuk espero ez zenuena –maite zaitut–
nik espero ez nuena –emagalduaren eitea
zure gorputz pinpirinean–
behin betiko egotziz.

...sikira uki bazintzaket eta nolabait eskura...

* * *

Orain urrin ikusten zaitut
auskalo zein paradisuren desterrutan
zetazko soineko gorri baten gerizan
aienatuz, zure irudi perfektuaren
salatariei muzin eginez.

Lehenaldia ahazten, oraina bizitzen...

Mónica Estévez Fernández
R. M. de Zuazola institutua
Oñati

Malkoetan bustitako zainek,
ez dute gehiago inoiz
lorerik emango.
Ametsez lokaztutako ene bihotzak,
ez du gehiago inoiz
ilusiorik isladatuko.
Ixo! Ez galde zergatik! Ez galde norengatik!
Utz iezadazu bihotzean dudan ebaki honetatik
gorroto odol guztia behin eta berriz isurtzen.
Ez galdetu ezer amaitu arte,
utz iezadazu behintzat bukatzen,
ene sakontasunaren barrenean,
sentitzen dudana adierazten.

Gerorako galderak, gerorako-gerokoak;
baina, ixo! Ixo, mesedez!
utz nazazu jarraitzen.
Nire oihuak ez ziren aski izan,
ez zuen nigatik kupidarik izan.
Aurpegira farre egiten zidan
ene beldurra nire aurpegian isladatua ikustean.
Ondo zekien zer egin,
benetan diotsut ez niola lagundu horretan.
Hotzikara sentitu nuen nire gorputz biluzian,
bere gorputza nire gainean zegoen unean.
Itsasoaren negar zotinak baino ozenagoak,
bortitzagoak ziren nire oihuak.

Ene gorputzean sartutako ezpata zorrotz bat bezala
sentitu nuen, maitasunez sentitu behar nuen hura.
Neska izatetik emakume izatera bultzatu ninduen,
baina, zergatik niri eta horrela?
Nire ilusioak arin eraman zituen haizeak,
hegada altxatuz, hegalak zabal-zabal jarriz,
lotsagabeki aldendu zitzaizkidan, bai,
txori beldurtiak bailiran.
Ez al naiz emakume azkarregi bihurtu?
Zergatik sentitzen dut horrenbesteko nazka nire barrenean?
Ulertzen al duzu orain, ene lagun,
ulertzen al duzu sentitzen dudan gorrotoa bihotz honetan?

Kuku kanturik jadanik,
ez da entzuten ene giroan;
helduko denean ere,
oraintxe bezain esperantza hutsik harrapatuko nau agian.
Minak nahigabetzen nauen garai biluzi honetan,
ez dut nire begiak liluratuko lituzkeen
ezer edo inor aurkitzen bidean.
Bakardadea dut nire laguna,
bera beti da nire ondoan.
Oroimenak dira nire etsai,
beti bihotzean zintzilika doazen orratzak.
Norbait bilatzen ari naiz,
sakongune ilun honetatik aterako nauen norbait;
bizitza berriro ederra dela erakutsiko didan norbait.
Eta orain bai, erantzun, ez gelditu ixilik,
erantzun iezadazu, mesedez, ez begiratu ingurura:
«Zu al zara bilatzen ari naizen hura?»...

URRUZUNOTARRAK

1986-1995

ABIZENAK ETA IZENA	IZENBURUA	URTEA	ORR.	ARLOA
Agirre Elgarresta, Martin	Idazmakina bakarti baten azken narrazioa	1986	11	Prosa
Agirre Larrea, Antziñe	Irrati baten gora-beherak	1986	55	Prosa
Agirre Lazkanoiturburu, Mikel	Zergatik?	1989	143	Poesia
Aldabaldetreku Etxeberria, Gotzon	Itzultzerik gabeko bidaia	1993	97	Prosa
Altuna Angiozar, Nekane	Baldin argia ikustera iristen banaiz	1988	117	Poesia
Altuna Angiozar, Nekane	Niregandik urrun	1987	95	Poesia
Altuna Jauregi, Karmele	Praisku mutil zaharra	1986	99	Poesia
Altuna Jauregi, Nuria	Bizitza horrela delako	1987	11	Prosa
Alvarez Gerriko, Ion	Betidanik, betirako	1990	155	Poesia
Alzate Azpiroz, Jon	Zozketagai xelebrea	1992	103	Prosa
Alzugarai Sacristán, Aitziber	Zergatik?	1988	167	Poesia
Amondarain Ipiña, Nagore	Gogoratzen haiz	1995	195	Poesia
Amozarrain Mendizabal, Idurre	Pentsamenduak	1995	201	Poesia
Apaolaza Goena, Amaia	Amaigabeko itukin latzak	1992	17	Prosa
Apaolaza Goena, Amaia	Zaharra berri... orain eta beti	1993	59	Prosa
Aranburu Aseginolaza, Iñigo	Sahatsaren azken negarra	1987	19	Prosa
Aranburu Aseginolaza, Maria	Bi hitz nire pentsamenduen maizterrari	1990	113	Poesia
Aranburu Zeziaga, Xabier	Hiriaren ostadarra	1989	113	Poesia
Aranguren Oiharzabal, Ainhoa	Gauaren atseden isila	1989	171	Poesia
Arratibel Galartza, Enara	Begi diztiratsuak	1995	49	Prosa
Arregi Elosua, Ainhoa	Konfidantzaren ordaina	1988	41	Prosa
Arrese Iturbe, Olaia	Maitemintzearen gaztigua	1993	175	Poesia
Arrizabalaga Linaza, Mirari	Zereko zera zertzeko	1986	105	Poesia
Arruebarrena Lizarralde, Miren Gurutze	Iluntasuna	1994	179	Poesia
Arruza Elgezabal, Amaia	Naturaren legea	1988	49	Prosa
Artetxe Arrien, Ainara	Isilpean bego Anttonen itxura	1988	89	Prosa

ABIZENAK ETA IZENA	IZENBURUA	URTEA	ORR.	ARLOA
Artola Iriondo, Mikel	Nagusia eta hirurok	1992	87	Prosa
Aurrekoetxea Arkotxa, Igor	0-14	1991	155	Poesia
Aurrekoetxea Arkotxa, Iñaki	Merezi al du paradisuak?	1987	101	Poesia
Auzmendi Agirre, Agurtzane	Omnia vincit amor - maitasunak dena garaitzen du	1990	161	Poesia
Ayllón Corral, Mikel	Zure xerka	1995	187	Poesia
Azkarate Egaña, Belen	Amona, egia ote?	1990	19	Prosa
Azkue Ibarbia, Xabier	Azken hitzak	1987	107	Poesia
Aztiria Etxeberria, Nekane	Lamintxo	1986	17	Prosa
Baroja Arrue, Miguel Mª	Apokalipsis 1913	1994	25	Prosa
Basterra Fernandez, Ainhoa	Bihotzeko kontraesanak	1986	26	Prosa
Bastida Loinaz, Ana Isabel	Igande gau batetako eztabaida imaginarioa	1987	29	Prosa
Beloki Lizarralde, Leire	Amodioaren desterruan	1995	211	Poesia
Beloki Lizarralde, Leire	Itsasoaren menpean	1994	185	Poesia
Bengoa Santxo, Mikeldi	Zu eta ni (hiria medio)	1988	135	Poesia
Beobide Azpeitia, Begoña	Abestiaren argia	1989	161	Poesia
Berasaluze Ostolaza, Garikoitz	Amodioaren itsasoa	1990	145	Poesia
Berasaluze Ostolaza, Garikoitz	Amodioaren sehaskan	1992	161	Poesia
Berasaluze Ostolaza, Garikoitz	Auñamenditik zure leihora	1990	151	Poesia
Berasaluze Ostolaza, Garikoitz	Iraunen dute	1993	169	Poesia
Berasaluze Ostolaza, Garikoitz	Kimeraren harresietan	1994	137	Poesia
Berasaluze Ostolaza, Garikoitz	Poesiaren magalean	1992	167	Poesia
Betzuen Arana, Kepa	Seiak eta hamar	1995	113	Prosa
Bilbao Barruetabeña, Leire	Herioaz maitemintzean	1995	165	Poesia
Bitorika Albizu, Arkaitz	Bat-batean baturik	1994	167	Poesia
Cano Jauregi, Harkaitz	Amodioa, gorriz jantziriko emagaldu hori	1993	125	Poesia
Cano Jauregi, Harkaitz	Denboraren hautsontzian	1992	127	Poesia

ABIZENAK ETA IZENA	IZENBURUA	URTEA	ORR.	ARLOA
Cano Jauregi, Harkaitz	Erresuma ahituak	1993	133	Poesia
Cano Jauregi, Harkaitz	Jazza dut maitale	1991	109	Prosa
Cano Jauregi, Harkaitz	Jitolore	1993	45	Prosa
Cano Jauregi, Harkaitz	Kaosaren abantailan	1993	143	Poesia
Cano Jauregi, Harkaitz	Urak ekartzen duena	1993	183	Poesia
Churruca Fernandez, Xabier	Boga-boga sareetan	1988	81	Prosa
Collado Legorburu, Sergio	Leihotik begira	1994	115	Prosa
De los Mozos Olaizola, Izaskun	Semeak beti seme	1990	131	Poesia
De los Mozos Olaizola, Izaskun	Heriotza	1988	155	Poesia
Egiguren Azkune, Ekhiñe	Esan al dizut inoiz...	1994	173	Poesia
Egiguren Azkune, Ekhiñe	Orkidea beltza	1995	131	Poesia
Egiguren Azkune, Ekhiñe	Gau euritsu batean ezagutu nuen	1993	87	Prosa
Egiguren Imaz, Izaskun	Aitorpenak ilunabarrean	1988	11	Prosa
Eguren Etxabeguren, Iñaki	Hallelujah! Hallelujah!	1991	117	Poesia
Elduaien Uranga, Estitxu	Bizitzan hamazazpi urte	1993	113	Prosa
Esnal Badiola, Aitor	Eguna	1988	123	Poesia
Esnaola Goienetxea, Mateo	Ezkortasun boladetako gogoetak	1986	111	Poesia
Estankona Bilbao, Igor	Kondairak dioenez	1992	95	Prosa
Estévez Fernández, Mónica	Lehenaldia ahazten, oraina bizitzen	1995	223	Poesia
Estiballes Ormaetxea, Arkaitz	Au revoir, maitea	1995	29	Prosa
Estiballes Ormaetxea, Arkaitz	Azken trenaren zain estazioan	1995	19	Prosa
Estiballes Ormaetxea, Arkaitz	Bekatuaren isurkia	1995	57	Prosa
Estiballes Ormaetxea, Arkaitz	Udazkeneko arrats euritsu bat	1994	63	Prosa
Etxebarri Coello, Aritz	Burruka	1988	149	Poesia
Etxeberria Yoldi, Naiara	Badajoztik edonora	1994	81	Prosa
Etxezarraga Ziarrusta, Irantzu	Arbasoen ahotan	1991	19	Prosa

ABIZENAK ETA IZENA	IZENBURUA	URTEA	ORR.	ARLOA
Ezeiza Ramos, Ainhoa	Idazle proiektu baten aburuak	1989	25	Prosa
Ezkiaga Iparragirre, Amaia	Heriotz Andereak zuria du laket	1990	39	Prosa
Franko Sudupe, Jaione	Zerutar inperioaren zedean	1988	97	Prosa
Galarraga Aiestaran, Patxi	Oihartzun eta tenk	1989	121	Poesia
Galarraga Aiestaran, Patxi	Taiga eta Zorrilla	1989	127	Poesia
Galarraga Aiestaran, Patxi	Une hartan... eta orain	1990	137	Poesia
Galdos Arrondo, Olaia	Agurraren lezioa	1994	17	Prosa
Galparsoro Sarriegi, Ainhoa	Pailazoak irrifarra galdu du!	1992	61	Prosa
Ganzarain Etxaniz, Xabier	Ziutate postmoderno historiagabea	1992	55	Prosa
GarcÌa Berasategi, M. Jesus	In memoriam	1992	141	Poesia
Garcia de Cortazar, Miren	Hutsune eta itxaropen	1987	35	Prosa
Garcia de Kortazar Agirrezabal, Jon Ander	Azken etapa	1992	69	Prosa
Garmendia Etxabe, Jaione	Markel	1986	31	Prosa
Garmendia Munduate, Larraitz	Amodioaren garapena	1992	155	Poesia
Goenaga Jauregi, Jon	Gertaera arraroak	1991	89	Prosa
Goikoetxea Gezuraga, Josu	Azken fotogramak	1992	121	Poesia
Goikoetxea Gezuraga, Josu	Frenopatiko triste eta eroa	1991	123	Poesia
Goitia Pastor, Leire	Galdutako bihotzaren bila	1989	79	Prosa
Gurrutxaga Uranga, Amagoia	Bi eguneko egunkaria	1986	71	Prosa
Ibargutxi Gisasola, Lierni	Holyhead-en gertatu zena	1991	99	Prosa
Imaz Ganzarain, Itziar	Bizitzaren egia	1991	69	Prosa
Imaz Irastorza, Mikel	Fenixaren pabeiloia	1986	61	Prosa
Imaz Irastorza, Mikel	Montparnasse-ko usoak dira igaro	1989	31	Prosa
Imaz Irastorza, Mikel	Zentzu eta funts	1989	135	Poesia
Intxausti Ormazabal, Garbiñe	Heriotzaren magalean banengo	1989	177	Poesia
Iribarren Aristizabal, Ibon	Erretratua	1993	27	Prosa

ABIZENAK ETA IZENA	IZENBURUA	URTEA	ORR.	ARLOA
Iribarren Aristizabal, Ibon	Okerreko gaua aukeratu nuen maitemintzeko	1993	149	Poesia
Iribarren Aristizabal, Ibon	Romeo eta Julio	1992	41	Prosa
Iruretagoiena Agirrezabalaga, Iñigo	Behin betiko	1993	193	Poesia
Iruretagoiena Agirrezabalaga, Iñigo	Bizi baihaiz	1993	207	Poesia
Iruretagoiena Agirrezabalaga, Iñigo	Metalezko zuhaitzak belaze berdeetan	1994	145	Poesia
Iruretagoiena Agirrezabalaga, Iñigo	Amodioaren frentean hildako azken soldaduari	1995	145	Poesia
Iturriaga Zugaza-Artaza, Unai	Gaua eta zu	1992	135	Poesia
Iza Totorika, Ibon	Zaparrada lehorra	1991	51	Prosa
Jauregi Larrañaga, Aitor	Ahotik ere ihes egiten dun	1989	167	Poesia
Jauregizuria Lopez, Maider	Zu ez zaudenean	1990	57	Prosa
Kano Ormazabal, Nagore	Emagalduak deitzen gaituzten horiei	1990	75	Prosa
Kastañares Etxezarreta, Asier	Itsasoak daki	1989	151	Poesia
Larrabide Elexpuru, Leire	Opari misteriotsua	1995	103	Prosa
Larrañaga Zabaleta, Oihana	Zugatik	1995	87	Prosa
Larrarte Otegi, Miren	Panpina bat besterik ez	1989	41	Prosa
Lazkano Orbegozo, Aitzpea	Eguzkiak begiratu eta irri	1989	11	Prosa
Leiaristi Guenaga, Amaia	Ihes betea zilegi balitz	1988	27	Prosa
Leturia Iurrita, Iñaki	Genesi	1987	45	Prosa
Lizaso Urrutia, Maider	Zu eta ni zigarroa medio	1991	59	Prosa
Llona Ormaetxe, Idoia	Gizonak egin eta apurtu zuena	1987	53	Prosa
Loidi Garitano, Ane	Infernu berotik	1987	115	Poesia
Longarte Arriola, Maria	Fiat voluntas tua	1992	25	Prosa
Madina Ugartemendia, Mikel	Ezetza	1990	173	Poesia
Malagon Zaldua, Ana	Beleak kontatzen	1994	87	Prosa
Malagón Zaldua, Ana	Maitasunaren beste definizioa	1995	37	Prosa
Manterola Arostegi, Nere	Bizitzeko arrazoia	1991	77	Prosa

ABIZENAK ETA IZENA	IZENBURUA	URTEA	ORR.	ARLOA
Mendia Usabiaga, Saioa	Denboraren ganbara	1994	97	Prosa
Mendieta Lasarte, Arantxa	Akatsa	1988	61	Prosa
Mendieta Lasarte, Arantxa	Autobeldurtze prozesua	1989	63	Prosa
Mendieta Lasarte, Arantxa	Azken gogoetak	1990	29	Prosa
Mendiolha Agirre, Aitzol	Oficialdegui-k orhoitt ükhenen dü Santi Unzueta "vasco"-a	1991	37	Prosa
Mitxelena Albisu, Inge	Ander	1988	21	Prosa
Mitxelena Albisu, Inge	Kutxa zahar baten istorioa	1986	77	Prosa
Muguruza Sarasua, Saioa	Udazkeneko bakardadea	1991	147	Poesia
Muñoa Arrigain, Karmele	Ametsondoa eta gero	1994	123	Poesia
Muruaga Lejona, Ainhoa	Superbizipenaren burruka ikaragarria	1990	101	Prosa
Negeruela Izagirre, Ainhoa	Maitasun poesia	1992	147	Poesia
Oiarbide Aldasoro, Asier	Amodio gorrotagarria	1988	111	Poesia
Oiarbide Aldasoro, Asier	Premio santu hura	1988	129	Poesia
Olabarri Aldape, Iñigo	Orbaindu gabeko zauriak	1988	161	Poesia
Olarra Allika, Gotzone	Poema sozialen artean amodiozkoren bat	1986	123	Poesia
Olaskoaga Bereziartua, Naiara	Ume baten bizia nire eskuetan	1994	109	Prosa
Olazabal Elorza, Arantzazu	Garaia	1986	133	Poesia
Ormaetxea Irleta, Amaia	Familia baten beharra	1987	59	Prosa
Ormaetxea Irleta, Amaia	Iraganarekin topo egitean	1989	93	Prosa
Ormaetxea Irleta, Amaia	Maitasun gorrotatua	1989	183	Poesia
Oronoz Antxordoki, Belen	Plisti plasta	1990	167	Poesia
Otaduy Zubizarreta, Juan Pedro	Iraganetik datorren ekaitza	1994	37	Prosa
Padrón Plazaola, J. Luis	Ilargi gabeko kalea	1987	121	Poesia
Padron Plazaola, Araiz	Denborak ez du dena sendatzen	1991	131	Poesia
Padrón Plazaola, Araiz	Pago zaharraren azken arnasa	1993	155	Poesia

ABIZENAK ETA IZENA	IZENBURUA	URTEA	ORR.	ARLOA
Peruarena Ansa, Mikel	20 eta 12	1995	173	Poesia
Pikaza Irigoien, Nora	Zentzugabeko paktua	1986	91	Prosa
Redondo Pares, Laura	Gau hartan... iluntasunean	1989	85	Prosa
Rios Bernaola, Itziar	Amets gaiztoa	1987	71	Prosa
Salinas Elosegi, Aitziber	Ibai baten esamesak	1992	113	Prosa
Salinas Elosegi, Aitziber	Mercedesdunaren seme ez zena	1993	107	Prosa
Sansinenea Aizpurua, Ainhoa	Heriotzaren oihua	1990	91	Prosa
Santiago Arizaga, Mikel	Hosto bat bailitzan	1989	17	Prosa
Sarobe Txopeitia, Leire	Beharrezkoa	1990	65	Prosa
Sarriegi Galparsoro, Aitor	Ardi galduaren malkoak Urepeleko artzainari	1993	161	Poesia
Sarriegi Galparsoro, Aitor	Galeperrak espazioan	1991	137	Poesia
Sarriegi Galparsoro, Aitor	Horizontea	1991	143	Poesia
Sudupe Rodriguez, Maider	Azken agurra	1995	65	Prosa
Torres Renedo, Xabier	Nahitaez	1991	29	Prosa
Ugarte Zubizarreta, Larraitz	Teilen auzipean	1994	153	Poesia
Urbizu Uribe, Nagore	5B: bizitza beltz bat beltzen bizitza	1988	71	Prosa
Urbizu Uribe, Nagore	Argi bi	1988	143	Poesia
Urbizu Uribe, Nagore	Itsaso amaigabe hartan	1987	79	Prosa
Urbizu Uribe, Nagore	Jostailu berria	1990	47	Prosa
Uribesalgo Urizar, Larraitz	Askatasunaren negarra	1993	67	Prosa
Urkia Garmendia, Larraitz	Errege etzana	1992	77	Prosa
Urkizu Mendiola, Jone	Addis Kiptum	1994	73	Prosa
Urkizu Mendiola, Jone	Ihesi	1995	95	Prosa
Urrestilla Urizabal, Jon	Ostiral gau bat	1992	31	Prosa
Urrutikoetxea Vacas, Urtzi	Abazuzien pien	1995	157	Poesia
Urrutikoetxea Vacas, Urtzi	Amodio poema bat -gehiago-	1994	131	Poesia

ABIZENAK ETA IZENA	IZENBURUA	URTEA	ORR.	ARLOA
Urrutikoetxea Vacas, Urtzi	Argazki horiztatuak	1994	159	Poesia
Urrutikoetxea Vacas, Urtzi	Behin heldu hintzen	1993	199	Poesia
Urrutikoetxea Vacas, Urtzi	Zerutik maiteari	1992	173	Poesia
Urzelai Izagirre, Gorka	Bizitzaren gurpilean	1990	119	Poesia
Vives Urbieta, Alaitz	Aretoaren izkin batean	1993	17	Prosa
Yurrebaso Pikaza, Iker	Ai! Bixente, Bixente	1995	121	Prosa
Zabaleta Umerez, Ester	Zaldi hegaduna	1986	43	Prosa
Zabalo Enparantza, Katrin Naroa	Bi egun New-Yorken	1989	71	Prosa
Zorita Arratibel, Yolanda	Goizeko euri artean	1990	83	Prosa
Zuazo Corral, Nagore	Hizkuntzari zerraldorik ez	1993	35	Prosa
Zubeldia Aierbe, Estitxu	Bizi	1989	103	Prosa
Zubiate Garay-Yurrebaso, Aritz	Bariku bat	1993	77	Prosa
Zubiate Garay-Yurrebaso, Aritz	Not time for love	1994	55	Prosa
Zubillaga Zurutuza, Arrate	Alaitzen jakinmina	1989	51	Prosa
Zubiri Esnaola, Harkaitz	Begira nazazu	1995	73	Prosa
Zuloaga Martinez, Nerea	Xirularen azken notak / Ez naiz itzuliko	1987	131	Poesia
Zuloaga Martinez, Nerea	Zu zara nire bizitzaren arrazoi bakarra	1987	87	Prosa
Zumarraga Azkarate, Eriz	Ezezagun maite	1990	125	Poesia
Zumarraga Azkarate, Eriz	Gazte pentsamenduak	1987	137	Poesia

...Zerbait hori indar handia da, arnasa libre hartzera bultzatzen du; zerbait hori sumatu dut Urruzuno lehiaketa honetako hainbat lan irakurtzen ari nintzela; zerbait hori bizitzeko indarra da, gaztetasunaren indarra, idazleari mundu osoa jango lukeela sentiarazten diona...

...bezalako poema sorta topatzen duzunean, begi lausotu samarrak berpiztu egiten zaizkizu, aulkian hobeto eserita jartzen zara eta begi horiek ez dituzu paperetik jasotzen, amaitu arte; eta amaitutakoan ere behera begira gelditzen zara pittin batean, halako gozamenaren azken errainuak ondo dastatu nahian bezala...

...Batzuentzat, agian, literatura hil ala biziko kontua izango da, Sherezaderentzat bezalaxe; beste batzuentzat lapitzak (edo sudurrak, edo belarriak, edo adimena, edo ospea, edo kontu korrontea...) zorrozteko aitzakia besterik ez; gehienok hor tartean gabiltza, gure sokari norbait atzetik tiraka datorrela ikustean poz-pozik.

Juan Kruz Igerabide

EK15121791

Irakaskuntza Ertaineleko Euskara Literatur Lehiaketa 1995

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Salneurria: 500 P